



CLARA ZETKIN

FAXISMOAREN AURKA BORROKAN

NOLA AURRE EGIN ETA NOLA IRABAZI

Edizioa eta sarrera:

Mike Taber & John Riddell

Itzulpena:

Maialen Berasategi

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irribide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezzen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Clara Zetkin

**FAXISMOAREN AURKA
BORROKAN**

Nola aurre egin eta nola irabazi

Clara Zetkin

FAXISMOAREN AURKA BORROKAN

Nola aurre egin eta nola irabazi

Edizioa eta sarrera: Mike Taber eta John Riddell

Itzulpena: Maialen Berasategi



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburuak: *Der Kampf gegen den Faschismus* (1923), *Brief an den antifaschistischen Einheitskongress in Berlin* (1932), *Protokoll der Konferenz der Erweiterten Exekutive der Kommunistischen Internationale* (1923), *Rede als Alterspräsidentin bei der Eröffnung des Reichstags* (1932), *Fighting Fascism. How to Struggle and How to win* (2017)

Egileak: Clara Zetkin, Mike Taber, John Riddell

Itzulpena: Maialen Berasategi

Barruko argazkia: *1921eko Moskuko Kominternaren Hirugarren Kongresuko argazkia*. Argazkilari ezezaguna. Domeinu publikoa

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2022ko maiatza

Edición y maquetación: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea-Pamplona

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-75-4

Lege gordailua: NA 1170-2022

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
SARRERA (Mike Tabber, John Riddell)	21
BAT	
Faxismoaren kontrako borroka (Clara Zetkin)	43
BI	
Faxismoaren gaineko ebazpena (Clara Zetkin)	89
HIRU	
Faxismoaren kontrako Frankfurteko konferentzia.....	99
LAU	
Zetkinen deia, nazismoaren kontra batasun-fronte bat eratzekoa (John Riddell).....	111
PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK.....	131
BIBLIOGRAFIA.....	145





ARGITALETXEAREN OHARRA FAXISMOA, GERRA, IRAULTZA

Eskuargi itsu bat ez da biderako ilargi argitsu bat.

Clara Zetkin

Maitatu zure bizitza nahikoa haurrak eta zaharrak zaintzeko, otordu on batez ala eguzki sartze batez gozatzeko, besarkatzeko lagunak eta maitaleak; eta maitatu nahikoa mundua historiaren gurpil handian beharrezkoa denean sorbalda jartzeko.

Rosa Luxemburg

Emmanuel Bernasconik aitortu zuen 1972an italiaraz argitaratu zen ohar batean Clara Zetkin ez dela nahikoa nabarmendu ez historialarien ez biografoen aldetik. Sarritan aipatzen dela Alemaniako eta nazioarteko langile mugimenduan bere izena. Badira kaleak, egon dira zigiluak eta billeteak bere izena eta aurpegia zeramatenak. Baina sarritan beste «pertsonaia handi» baten aldamenean geratzen da, bigarren toki batean: Rosa Luxemburgen besoari helduta, Leninen irudia duen aldizkari bat eusten. Apologiaren eta irainaren artean folklorismoa nagusitu da, heroiarri suposatzen zaizkion ezaugarrien jabe, horregatik Mike Taber eta John Riddellek egin dute liburu honen sarrera, bi his-

torialarik, artxibategia eta ikerketa delako iraultzailea eta ez debaldeko laudaketa.

Zetkinen idazkiak militantearenak izan ziren, honetaz eta hartaz han eta hemen. Beraz lanak sailkatzerakoan badira artikulua, txostenak, paskinak, diskurtsoak eta berreraikitzea ariketa konplikatu egin dute. Zetkin militantea izan zen eta publizista, ez zen teoriarari bat izan baina hartu, defendatu eta landu zituen posizioak aitzindariarenak izan ziren: bai iraultzaren alde erreformaren aurka, bai emakumeen askapenaren alde subordinazio burgesaren aurka, bai inperialismoaren aurka, bai gerraren aurka edonolako abertzalekeriaren kontra.

Posizio horietan dago Zetkin interesgarriena eta, ziurrenik, kontrara, gehien zabaldu den bere obra egituratuena, *Leninekin solasean*, da idatzi zuen lanik pobreena. Eta, nahiz eta Zetkinen ekarpenek ez daukaten berritasun teorikorik, gaur egunera iristen diren interes nabarmeneko gogoetak dauzkate, autonomia handiz adierazi zituelako. Azken batean Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht eta Franz Mehringekin batera *outsider iraultzaile* bat izan zen, sozialdemokraziaren gehiengoaren kontrakarrean. Bere pentsaleroak eta ekinbideak konbinazio bat ziren, gerraren arriskuari buruz idazten zuenean hitz egiten zuen gizonek eta kapitalak Turkian, Turkestanen, Korean, Japonian, Mongolian eta Indian emakumeen kontra ezartzen zuten zapalkuntzaz. Genero zapalkuntzaz ari zenean buruan zeuzkan nekazari pobreak eta arroz landetako emakumeak, kotoi landaketetakoak, petrolioa eta ikatza. Gerra ekonomia da, genero zapalkuntza gerra da, hezkuntza askapena da, eskola iraultza izan daiteke. Sozialdemokraziatik askatu behar izan ziren Zetkin-eta gerraren kontra aritzeko, estatu egitura burgesak

deusezteko, emakumearen askapena lantzeko, inperialismoari oposizioa egiteko, 1905eko Errusiako iraultzaren aurretik gainera.

Nor izan zen Clara

Gabriele Mazzottak Clara Zetkinen testuen apailatze bat argitaratu zuen 1972an. Antologiako sarreteretan Zetkinen potretetan jaso zuen Saxoniako landa eremuko irakasle baten alaba izan zela Zetkin. Leipzigekeko institutu pribatu batean egin zituen irakasle ikasketak eta orduan hasi zen ikasle eta etorkin errusiarrekin harremanetan, orduan ezagutu zuen Ossip Zetkin errusiar iraultzailea, orduan egin zen Alemaniako sozialdemokraziako kide. 1880an Ossip Alemaniatic kanporatu zuten poliziak desegin zuen legez kanpoko asanblada batean parte hartu zuelako. Ossipek Frantziara egin zuen alde, Clarak Austriara. Linzen egon zen Clara, 1882an Zurichera joan zen arte Petroburgeko bere lagun Warwararekin elkartzeko. Zurichen Plejanov eta Vera Zassulich iraultzaile errefuxiatuak zeuden erbesteratuta. Alemaniako sozialdemokrazia-
ren hiri buruzagia zen Zurich, handik argitaratzen zen *Sozialdemokrat*, han zegoen Bernstein, handik pasatzen zuten egunkaria klandestinoki, Julius Mottellerren antolakundearen bidez. Eta han hasiko zen Clara Zetkin Mottellerren sarean militatzen. Urte berean joango zen Clara Parisa Ossipekin ezkontzeko eta han ezagutuko zuen Pottier *Internazionalaren* konpositorea, Louise Michel poeta eta Komunako buruetako bat,¹ Jenny Longuet (Jenny von Westphalen eta Karl Marxen alaba, militante sozialista eta irlandako abertzaleen defendatzailea), Laura Marx (Jennyren ahizpa, militante

1 Louise Michel, *Erbesteko gutunak Victor Hugori*, Katakarak, 2020 Iruñea. Amaia Lasaren hitzaurre eta Nora Arbelbideren hitzatzearekin.

iraultzailea, poliziak jazarria, haurrak izan eta gutxira hil zitzaizkion, bere bikotekide izan zen Paul Lafargue), Jules Guesde marxista. Lafarguek eta Guestek sortu zuten Frantziako Langileen Alderdi Marxista Iraultzailea.

Garai latzean hasi zen langile mugimenduan militatzen Zetkin: 1870-71ko gerra Frantziaren kontra, Alemaniaren batasun prozesua, Alsazia eta Lorenaren anexioa. Parisko Komunaren arrakasta eta porrotak errepresio basati bat ekarri zuen 1878an Europa osoan baina horrek ez zuen langile mugimenduaren eta sozialdemokraten batasuna eta indartzea ekidin. Langileen nazioarteko elkarteak ekarri zuen Komunaren porrotak, zabaldu zen sozialismo zientifikoaren bidea, eratu zen 1889an Bigarren Internazionala Parisen, nazioarteko erakusketaren urte berean. 1905eko Kolorniako sindikatuen kongresuan bakarrik geratu ziren Karl Liebknecht eta Clara Zetkin masen grebaren alde. Topaketa hartan lan handia egin zuen Zetkinen eta Sozialdemokrat berrirapereko kazetaria izan zen, Berlingo emakume sozialisten izenean, hura izan zen nazioarteko arenan ezagun egiten hasi zen foroa. Orduetik eta 1914an Lehen Mundu Gerra hasi arte Bigarren Internazionalaren kongresuak antolatzen egon zen, langile mugimenduaren baitan eta kanpoan emakumeen eskubideen alde aritu zen. 1891tik aurrera *Die Gleichheit* sozialdemokraziaren emakumeentzako egunkariko erredaktorea izan zen, han jardun zuen 1917an gerraren eta kolonialismoaren aurka zeuzkan posizioengatik egotzi zuten arte. *Die Gleichheit*eko idazkiak Zetkinen gaitasun militantearen testigantza dira: industrializazioaren basakeria, familia eta emakumeen askapena, hezkuntza, eskola, kalteak non albistea han.

1898tik aurrera talka nabarmena zen sozialdemokraziaren baitan: batetik Bernsteinen jarraitzaile

sozialdemokratak, bestetik, Clara Zetkin eta Rosa Luxemburg gaztea, burkide izateaz gainera oso lagunak izan ziren 1918ko azaroko iraultzan Luxemburg hil zuten arte. Sarritan, norbera bere alorretik aritu zen iraultza defendatzen sozialdemokraziaren baitan, 1899ko Hannoverreko kongresuan bezala. Bebelek Bernsteini aurre egin zion bitartean *Die Gleichheit*etik aritu zen Zetkin eta Luxemburgek *Erreforma soziala ala iraultza?* argitaratu zuen. Zetkin eta Luxemburgen garai distiratsuena beren azken urteetan jazo zen.

Zetkin eta Luxemburg ez ziren soilik burkide izan, ez ziren soilik erakundeetako barne eztabaida eta zatiketetan elkarrekin aritu. Zetkinek bere seme Kostja Rosarenera bidali zuen Berlina 1907an eta 22 urteko seme gaztearen eta 14 urte zaharragoa zen iraultzailearen artean 600 gutunetik gorako maitasun harreman bat eratu zen. Kostjak miresten zuen emakume adoretzua, borrokalaria, pentsalaria. 1915ean Kostja gerrara bidali zuten arte egon ziren elkarrekin.

1915eko apirilaren 15ean eman zen argitara *Die Internationale* eta hasieratik debekatu zuten. Luxemburg, Mehring, Liebknecht, Rühle eta Zetkinek beren gutun politikoetan Espartako gisa sinatzen zuten. Hala deituko ziren SPD sozialdemokrazia alemaneko disidenteak 1917an kaleratu zituzten arte. Errusiako sobietarren iraultza 1917ko otsailean hasiko zen eta 1918ko azaroaren 3an Kieleko portuan alemanen itsas armada hasiko zen motinean. Intsurrekzioa Bremen, Lübeck eta Hanburgora zabalduko zen. Azaroaren 4an Stuttgarten hasi zen iraultza. München Bavariako Errepublikak Sozialista deitu zuten kontseiluek Kurt Eisner buru.² Dresden, Leipzig, Hannover, Kolonia eta Bruns-

2 Christophe Bourseiller, *Historia de la ultraizquierda*, Errata Naturae, 2022 Madril. 31-34. or.

wick iraultzaileen kontrolpean zeuden. Azaroaren 9an Berlinen hasi zen errebolta. Ezaguna da historia: Karl Liebknechtek Alemaniako Errepublika Sozialista Librea aldarrikatu zuen. Baina bi ordu lehenago SPDko ministro Philipp Scheidemannek legebiltzarreko balkoian aldarrikatu zuen Errepublika. Bi errepublika, bata burgesa, bestea langileena, lurralde bakarrerako leihan.³

SPDk errepresioa antolatu zuen lurralde osoan: milaka atxilotu, milaka iraultzaile hil, gerora faxismoak izango dituen elementuen koordinazioa (talde paramilitarrak, armada erregularra, nagusi ekonomikoak, sozialdemokrazia). Eta Rosa Luxemburgen testamentua hil aurreko bezperan:

«Ordena gailendu da Berlinen!». Lekaio madarikatuak! Zuen ordena harearen gainean eraikita dago. Bihar, iraultza «berriz ere zutituko da burrunba eginez» eta aldarrikatuko du, zuei izua eraginez, tronpeta soinuen artean: Izan nintzen, bainaiz eta izango naiz!⁴

Gerraren kontra

1907an Bigarren Internazionalak Stuttgarten egin zuen kongresuan oso gogor aritu zen Lenin erreformisten kontra alor militar eta kolonialean. Zetkinek ere akusazio berak egin zituen Austriako alderdiaren kontra. 1910eko Kopenhageko kontresuan Emakumearen nazioarteko egunaren ospakizuna proposatu zuen. 1912ko Basileako kongresu sozialistan gerraren kontra jardun zuen.

3 Alemaniako iraultzei buruzko panoramika zabala: César de Vicente Hernando, *La revolución de 1918-1919. Alemania y el socialismo radical*, Catarata, 2018 Madril.

4 Rosa Luxemburg, *Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti*, Katakak, 2018 Iruñea. Amaia Lasaren hitzaurre eta Ignazio Aiestararen hitzatzearekin.

Urrundik zetorren konbinazio hori: erreformismoaren eta gerraren kontrako jarduna eta emakumeen askapenaren aldekoa. Bere ikuspegitik, langile mugimendua 1890eko hamarkadatik jasaten ari zen porrotean sozialdemokraziak Alemaniako klase zuzendariekin bat egiten zuen, ekidinezina zen-ia, bide hartan gerra eta langileen porrota. Hala jazo zen 1914ko abuztuan, tamalez gaur egun oihartzun handiegiak dituen prozesu hark: sozialdemokraziak, gerra kredituak onartu zituen.

Emakumearen auzia

1907ko abuztua zen eta Clara Zetkin Emakume Sozialisten Nazioarteko Lehenengo Konferentzian egon zen Stuttgarten, 59 ordezkari zeuden, 15 herrialdeetatik iritsiak. 1910eko bigarren konferentziaz ere arduratu zen. Rosa Luxemburgen babesas jaso zuen bietan.

1917ko maiatzean *Die Gleichheit* egotzi bazuten ere abuztuan *Leipziger Volkszeitungen* emakumeen gehigarrian ari zen kolaboratzen. 1919an Internazional Komunista sortu zutenean Alemaniako Alderdi Komunistako eta Internazionalako lanetan hasiko zen, hil arte jardun zuen horretan. 1920an emakume sozialisten nazioarteko mugimenduko presidente egin zuten. Ardura handiak izan zituen bere gain, tartean 1924tik aurrera Nazioarteko Sorospen Gorriaren presidentzia: faxismoaren eta erreakzioaren biktimei laguntzeko sarea. 1932ko abuztuaren 30ean, gaixo, ia itsu, Reichstag-ean aritu zen (liburuan aurrerago irakurriko duzun bezala). 1933ko ekainaren 20an, 76 urterekin hil zen Moskuko Arkangelskoje ospitalean «Alemaniako komunismoaren amona» esaten zioten, egun feminismo autonomoaren eta iraultzailearen ildo askoren sor-

lekuetan egon zen, faxismoa —Brecht, Benjamin eta Gramscirekin batera— hasieratik eta fin ulertu eta aztertu zuen. Ehunka milaka moskutarrek egin zioten omenaldia 1933ko ekainaren 22an Kremlinoko harresian bere errautsak utzi zituztenean. Mundu osoko langileen mugimenduko kideak bertaratu ziren. Tamalez orduko gerraren, erreakzioaren eta faxismoaren erreplikak gaur ere jaso ditugu.

Amona gorria itzuli da

Langile mugimenduaren eta emakumeen aspakenean toki nabarmena du beste batzuekin batera «Martxoaren 8a» sortu zuelako, bere gogoetek eta figurak ez du ordea euskaraz biderik egin. Salbuespen dira 2021eko martxoan Arteka aldizkariaren 15. aleko Irati Zurriarainen *Errusiako emakumea eta Iraultza: lehen genero-politika sobietarretara hurbilpen bat* artikulua eta *Emakume komunisten mugimendu internazionala. Esperientzia baten argi-ilunak* erreportaia kolektiboa (Núria Esteberena zuen azaleko irudian Zetkinen potret gorri bat zegoen).

Konpondu gabeko afera zaharrak dakartza, bezaz, Zetkinek. Maialen Berasategik egin duen itzulpen oso eta gardenean ordea ez dabil generoaren auziaz edota erreformismoaz. Beste fenomeno tamalez garaiakidea da esku artean daukaguna: faxismoa. Modu original eta aski bazterreko batetik aztertu zuen gainera, garaian Internazional Komunistan izan ziren bi ikuspegi eta estrategia nagusietatik aparte geratu zena.

Landu zituen beste gaiekin bezala, afera ez da honako testuetan lantzen diren ohar guztiekin bat egitea, fenomeno politiko zahar-berri bat ulertzeko balio dute testuok. Ez da katixima bat aurrean duzuna. Eta aldi berean, dogma ez den Zetkin honek ezinbestean

atzera begiratzera garamatza, ez genealogia kontu batengatik, baizik eta militante gutxik planteatu dutelako hark bezala lehengaien, gerren, generoaren, kapitalismoaren indarkeriaren, parlamentarismoaren eta faxismoaren arteko lotura.

Iruña
2022ko maiatza

SARRERA

Hitz gutxi daude *faxismo* hitza bezainbeste erabiltzen direnak eta era berean hain gutxi ulertzen.

Askorentzat, *faxista* etiketa ez da irain bat baino, norbanako eta mugimendu bereziki higuigarri eta erreakzionario batzuk gaitzesteko balio duena. Eskuineko diktadura militarrek politikoki deskribatzeko ere erabili ohi da.

AEBko 2016ko presidentetzarako hauteskundeetan, ordea, bestelako esanahi bat hartu zuen termino horrek; izan ere, boz haietako garaile erabatekoa, Donald Trump, maiz konparatu zuten Benito Mussolinirekin eta beste buruzagi faxista batzuekin. «Estatu Batuetako politikan, norbait faxistekin konparatze hori ez da kontu berria»: horra hor *The New York Times*ek 2016ko maiatzaren 28an argitaratutako artikulu baten hasiera. «Trump jaunarekin, ordea, muga guztiak gainditu dituzte halako konparazioek, eta jende arruntak ere txitean-pitean darabiltza, hala Estatu Batuetan nola handik kanpo».

Halako alderaketak esajeratuak eta lausoak dira, baina, berez, faxista-akusazio guztiak hartu behar dira serio. Langileek eta zapalduak arrazoi guztia dute faxismoaren zenbait bereizgarriri beldurra izateko, hala nola arrazismo endemikoari, lan-eskubideen eta eskubide zibilen abolizioari, errepresio bortitzari eta masa-hilketei.

Egia da, izan, eskuineko mugimendu eta erregimen gehienak antzekoak direla alde edo moldez, baina faxismoa oso fenomeno espezifikoa da, bere ezaugarri bereziak dituena. Eta faxismoaren ezaugarriak eta dinamikak ulertzea ez da ariketa akademiko hutsa: hari aurre egiteko, funtsezkoa da zertan den ulertzea.

Liburu labur honetan, bildurik daude Clara Zetkinen Internazional Komunistaren buruzagien 1923ko batzar batean irakurritako ebazpen bat eta txosten bat, eta analisi zinez sakon bat aurkezten da, azaltzen duena zer izan zen nobedade garai hartako jokaleku globalean.

Irakurle asko txundituta geratuko dira ikusten dutenean zeinen argia den Zetkinen analisia eta nola hartu zien aurrea gertatzekoak zirenei, kontuan hartuta hura idatzi zuen garaian faxismoaren sorrera misterio hutsa zela oraindik aztertzaile gehienentzat. Zetkinen idatziak ia mende bat geroago berrikusiz gero, agerian geratzen da benetan lortu zuela jarrera marxista sendo bat marraztea, oso goiz gainera, hala faxismoaren funtsaz nola hari aurre egiteko moduez den bezainbatean.

Faxismoaren sorrera

Lehen Mundu Gerraren osteko Italian du jatorria faxismoak. *Fasci Italiani di Combattimento* delako mu-

gimendua Benito Mussolinik antolatu zuen, 1919an, krisi sozial betean, erantzun bat eman nahian proletarioen mugimendu gero eta indartsuagoari, hots, bizirik irauteko beren lan-indarra saldu behar zutenen klase sozialari.

Garai hartan, langile italiarrak aurrera-aurrera zihoazen beren borroka militantean, Errusiako Iraultzaren garaipenak hauspotuta eta Italian gerraostean kapitalismoak izandako krisiak erasanda. Italiako gizartearen geruza guztietan, zeharo sinetsita zeuden Italiako Alderdi Sozialistak —zeina Internasional Komunistako kide baitzen orduan— boterea bereganatuko zuela.

Proletarioen goraldiak 1920ko irailean jo zuen goia. Hilabete hartan, milioi erdi langile pasatxo, metalgintzako langileek gidaturik, fabrikak hartzen hasi ziren Italia osoan. Produktzioa fabrika-kontseiluen gidaritzapean antolatzen hasi ziren, eta leku askotan Guardia Gorriak eratu zituzten, bereganatutako lantegiak defendatzeko. Protestak trenbideetara eta beste lan-eremu batzuetara hedatu ziren, eta laborari eta nekazari pobre ugari ere lurrak hartzen hasi ziren. Soldaduei, haiek ere langile-kide uniformeduntzat harturik, eskatu zieten ez ziezaietela men egin fabriketan oldartzeko aginduei. Olde itxuraz geldiezin hura ikusita, klase kapitalista eta haren gobernuak paralizatuta geratu ziren, ezbaian eta beldurturik. Egoera iraultzaile bat hedatzen ari zen, botere politikoa konkistatzea jomuga.

Italiako Alderdi Sozialistak eta haren eraginpean zegoen sindikatu-federazio nagusiak, ordea, borroka sindikal huts gisa baino ez zuten hartu nahi izan hilabeteko ekinaldi iraultzaile hura. Hala, azkenean, buruzagi sindikalek fabrikak uztera bultzatu zituzten

langileak, kapitalistek eginiko promes tentagarri baina hutsal batzuen truke; izan ere, ordurako, kapitalistak prest zeuden edozer sinatzeko, baldin eta horrek lantegiak berreskuratzeko balio bazien. Ondorioz, langile italiarrek, zeinek ordura arte esperantza izan baitzuten aginpide kapitalistak hurrena zuela akabera, etsi-etsian utzi behar izan zituzten fabrikak.

Lantegiak okupatzeko mugimenduak huts eginda, langile-klase osoa adoregabetuta geratu zen. Fascioak, berriz, gero eta jende gehiago errekrutatzen hasi ziren, eta langileen mugimenduaren kontrako ekintza gero eta oldarkorragoak egiten, buruzagi kapitalisten laguntza finantzario gero eta handiagoarekin, eta poliziaren eta Italiako estatuko beste zenbait sektoreren gerizpean. Hala, 1921ean eta 1922an, faxistek milaka eta milaka langile eta laborari erail zituzten beren «zigor-espedizioetan», eta ehunka enplegu-bulego eta sindikatu-egoitza suntsitu ere bai.

Luze gabe, masa-mugimendu bilakatu zen faxismoa, eta, 1922ko urriaren amaierarako, modua izan zuen gobernu kontrolpean hartzeko, Mussolini lehen ministro izendatuta. Boterea bereganatuta, faxismoak guztiz deuseztatu zituen sindikatuak eta gainerako langile-erakunde independente guztiak.

Hala, Italiako faxisten garaipenak adoreturik, antzeko mugimenduak sortzen hasi ziren Europako beste herrialde batzuetan: Alemanian indartsuen, baina Polonian, Txekoslovakian eta Austrian ere eratu ziren halako talde faxismo-kutsukoak, baita beste zenbait lurraldetan ere.

Fenomeno berri bat ezagutzen

Fenomeno sozial berri gehienekin gertatzen den bezala, orduan ere ez zen berehala agerian geratu zer-

tan zetzan. Hasieran, indarkeria eta terrorea erabiltzen zituzten beste mugimendu kontrairaultzaile batzuen zaku berean sartu zuten zenbaitek faxismoa.

Lehen Mundu Gerraren osteko urteetan, izan ere, terrorea nabarmen hedatu zen. Hungarian, esaterako, 1919an tarte labur batez boterea hartu zuen iraultza mendean hartu ondoren, 5 000 pertsona exekutatu zituzten, eta 75 000 kartzelatu. Finlandian, berriz, gerra zibil bat izan zen, eta 10 000 lagun hil zituzten tiroz, eta 100 000 bidali kontzentrazio-esparruetara. Eta beste herrialde batzuetan ere izan ziren antzeko kasuak, «terrore zuri» izendatuak.

Italiako faxisten indarkeria kontrairaultzaileak, ezbairik gabe, beste indarkeria horien guztien antza zuen, baina faxismoaren fenomenoak bazuen beste zerbait ere. Eta Internazional Komunistari egokitu zitzaion faxismoaren benetako funtsa argitara ateratzea.

Internazional Komunita (Komintern) 1919an sortu zuten, Errusiako Iraultzaren eraginpean, eta guztiz berritzailea izan zen: mugimendu bat helburu zuena, batetik, eztabaidatzea nola iraul zezakeen langile-klaseak aginte kapitalista, eta, bestetik, langileak antolatzea asmo hori betetzeko. Hala, Kominternen kongresuak eta topaketak, Leninen agintepean, politika iraultzaileak egiteko eskola bihurtu ziren.

Kominternek IV. Kongresuan antolatu zuen lehen aldiz faxismoaren inguruko eztabaida bat, 1922ko azaroan. Ez zen, dena den, oso oparoa izan. Amadeo Bordiga italiar komunistak txosten bat egin zuen, eta Mussolinik Italian hedatutako mugimenduaren zenbait alderdi garrantzitsu deskribatu zituen, baina ez zuen oso ondo asmatu faxismoaren funtsa azaleratzen; hori baino gehiago, nabarmendu zuen zer zeukaten antzeko faxismoak eta demokrazia burgesak,

eta iragarri zuen Italiako faxismoak ez zuela askorik iraungo. Ez Bordigaren txostenean eta ez haren ondoren egindako eztabaidan ez zioten arreta handirik jarri faxismoaren kontrako borrokari.⁵

Hala, oharturik ez zirela oraindik iritsi fenomenoaren muinera, Kominternen buruzagiek berriz ere heldu zioten auzi hari 1923ko ekainean. Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren III. Osoko Bilkura Zabala izan zen topalekua, eta, ahalegin hartan, Clara Zetkin giltzarri izan zen, hark egin baitzuen bilerrarako txostena eta hark idatzi baitzuen batzarraren ebazpena ere.

Clara Zetkin

1923an, 66 urte zituen Clara Zetkin, eta Kominterneko borrokalaria beterranoen artean nabarmenetako bat zen: aparteko figura bat nazioarteko mugimendu iraultzaile hartan.

1878an, 21 urte zituela, Alemaniako mugimendu sozialistara batu zen. Urte hartantxe sartu ziren indarrean Lege Antisozialistak herrialde hartan, eta, ondorioz, delitu bihurtu zen publikoki sozialismoaren alde egitea, eta legez kanpoko, berriz, Alderdi Sozialdemokratako kide izatea (SPD). Zetkin, ordea, ez zen kikildu. Urte ugari eman behar izan zituen erbestean, baina gero eta aktiboago jardun zen mugimendu iraultzailean, alderdiko ekintzaile gailenetako bat bihurtzeraino. 1891n, editore ere hasi zen *Die Gleichheiten*, SPDk emakumeentzat idazten zuen egunkarian.

1907an, emakume sozialisten nazioarteko mugimendua sortu zuten liderren artean printzipala izan

5 Bordigaren txostena irakurtzeko, ikus: Riddell (ed.), *Toward the United Front: Proceedings of the Fourth Congress of the Communist International, 1922* (Historical Materialism Book Series, Chicago: Haymarket Books, 2012), 402-423. or.

zen Zetkin. Mugimendu haren ekinaldi garrantzitsuetako bat hauxe izan zen: martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Egun izendatzea. 1910eko konferentzia batean hartu zuten erabaki hori.

Rosa Luxemburgekin batera ere jardun zuen Zetkinek. SPDren ildo ezkertiarrekoa zen. 1914an, ordea, alderdi hark traizio egin zien bere printzipio sozialistei, jendaurrean defendatuz Alemaniak Lehen Mundu Gerran egin zuen ekinaldia, eta iragarri zuen Alemaniako kapitalismoari «bake zibila» deklaratuko ziola gerrak iraun bitartean. Zetkinek uko egin zion deklarazio hari, eta irmo azaldu zen haren kontra. Espartakisten Ligan antolatutako isilpeko mugimendu iraultzaileari atxiki zitzaion, eta hainbat aldiz atxilotu zuten, gerraren aurkako ekintzak egiteagatik. 1918an, Espartakisten Ligak Alderdi Komunita eratzen lagundu zuen, eta Zetkin jarri zuten buruzagi.

1919. urtearen hasieran, berriz, Luxemburg, Karl Liebknecht eta beste zenbait erail zituztenean, Zetkinnek funtsezko rola hartu zuen Alderdi Komunistaren buruzagitzan, bai eta Internazional Komunistan ere oro har.

Egia da gaur egun Zetkin ezagun dela, batez ere, mugimendu sozialistan eta emakume komunisten mugimenduan dozenaka urtez funtsezko rola bete-tzeagatik, baina hori baino askoz ere gehiago izan zen: buruzagi politiko bat osoa, ahalmena izan zuena analisi politiko sakonak egin eta hortik ondorio praktikoak ateratzeko, 1923an faxismoari buruz idatzi zuen txostenean erakutsi zuen bezala.

Faxismoaren ezaugarriak

Txosten hartan, faxismoaren funtsezko ezaugarri batzuk nabarmendu zituen:

- Faxismoaren sorrera guztiz lotua dago kapitalismoaren krisi ekonomikoarekin eta instituzioen gainbeherarekin. Krisi horren bereizgarrietako bat da gero eta gehiago erasotzen zaiola langile-klaseari, eta gizarteko erdiko estamentuetakoak ere gero eta estuago hartzen direla, proletario-tzarantz beheratuz.
«Hain justu, ekonomia kapitalista eta estatu burgesa desegin izana da faxismoaren iturburua (...) gerrak, gero, goitik behera birrindu du ekonomia kapitalista. Horren erakusgarria, proletarioak izugarri pobretu izana ez ezik, burges txiki eta burges ertain asko eta asko proletario bilakatu izana ere bada».
- Proletarioek ahalegina egiten badute boterea bereganatuz eta gizartea berrantolatuz kapitalismoaren krisi soziala konpontzeko, baina ez badute lortzen, orduantxe pizten da faxismoa. Langile-klasea buruzagi bihurtzeko ekinaldi horrek huts egiten badu, adoregabetuta geratzen dira hala langileak nola beste indar sozial batzuk, uste zutenak proletarioak eta sozialismoa izango zirela krisiaren aterabidea.
Indar sozial horiek, Zetkinen arabera, itxaropena zeukaten sozialismoak «mundua aldatuko» zuela. «(...) baina esperantza hori txiki-txiki eginda geratu da (...) buruzagi erreformistengan zuten ustea ez ezik, sozialismoan berean zuten ustea ere galdu zuten».
- Faxismoa fenomeno masibo bat da, eta bereziki erakartzen ditu burges txikiak, zeinak ordena kapitalistaren gainbeheraren mehatxupean baitaude.

Kapitalismoaren gainbeheraren ondorioz, hain zuzen, «burges txiki eta burges ertain asko eta asko proletario bilakatu» dira, laborari txikiak «bizi-baldintza negargarrietan» geratu dira, eta intelektualak, berriz, «miseria izugarrian (...) eta hain justu oinarritzko bizigaia segurtaturik ez edukitzea, horixe dute lastarik handiena».

- Gizarte-maila horietako jendea bere aldera ekartzeko, faxismoa demagogia antikapitalistaz baliatzen da.

«Halako batean milaka eta milaka pertsona lerratu ziren, modu masiboan, faxismorantz. Babesleku bihurtu zen politikoki etxegabe zeudenentzat, deserrotu sozialentzat, existentziaz gabetuentzat eta desengainatuentzat. (...) Burges txikiak eta erdiko klase sozialetakoak, hasieran, duda-mudan ibiltzen dira noren alde jarri, bi multzo historiko erraldoien artean: proletarioen alde ala burgesen alde. Beren bizi-premiek eta, hein batean, beren muinmuineko desira eta ideal gorenek proletarioen alde jartzera bultzatzen dituzte, betiere ematen badu proletarioek badutela aukeraren bat iraultza egiteko ez ezik garaile ateratzeko ere. Are, masek eta haien premiek estu harturik, eta egoerak hartaratuta, buruzagi faxistak berak ere behartuta daude gutxien-gutxienez proletario iraultzaileak pixka bat limurtzera, nahiz eta sakonean ez dituzten batere begiko».

- Ideologia faxistak nazioa eta estatua jartzen ditu klase-kontrakotasun eta klase-interes guttien gainera.

«[Masei] Esperantza piztu zitzaien klase sozial guztietako norbanakorik abil, indartsu, deli-

beratu eta adoretuenek lortuko zutela jada klase proletario iraultzaileak eta sozialismoak lortzea espero ez zutena. Indar haiek guztiek bat egin behar zuten, eta komunitate bat osatu. Eta, faxistentzat, nazioa da komunitate hori. (...) Haientzat, estatua da ideal faxistak iristeko tresna: estatu bat sendoa, estatu bat autoritarioa, berek sortua eta beren menekoa. Haien ustez, alderdien arteko eta klaseen arteko ezberdintasun guztien gainera nagusituko da estatu hori».

- Buruzagi faxistek hala militarismoa nola gerra inperialista ezkutuan akuilatzen erabiltzen dute chauvinismo nazionalerako ideologia hori. «[Italia faxistako] indar armatuak, ustez, aberria defendatzeko baino ez zuen jardungo: horixe esan zuten bere garaian. Baina armada gero eta handiago hori eta haren arma ikaragarriak abentura inperialista erraldoietarako prestatuta daude. (...) Berriazko batzorde bat ere osatu dute industria astunari ehunka milioi lira ematea onartzeko, hegazkin modernoenak eta tresna militar hilgarriak ekoizteko».
- Eraso-tropen bitartez langile-klasearen kontrako indarkeria antolatua erabiltzea da faxismoaren ezaugarri printzipaletako bat, edozein jardura proletario independente deuseztatzea helburu. Italian, Mussolinniren indarrek «terrore grinnatsu eta odoltsu» bati ekin zioten, Zetkinen nabarmendu zuenez. Nekazari-eremuetan hasi ziren: faxistek «nekazaritza-eremuko proletarioen kontra jo zuten, haien erakundeen goitzak suntsituz eta errez, eta haien liderrak

erailez». Gero, «faxisten terrorea hiri handietako proletarioengana» zabaldu zen.

- Faxismoaren mezuen artean, muin-muinean dago ideologia arrazista baliatzea eta arrazakeriaz zenbait pertsona pagaburu bihurtzea. 1923an, ezaugarri hori ez zegoen erabat argi oraindik, baina Zetkinek jada ohartarazi zuen nola Alemanian faxisten programan «aspertzeraino» azaltzen zen «Juduak txikitu» esapidea.
- Une jakin batean, klase kapitalistako sektore ugari mugimendu faxista babesten eta finantzatzen hasten dira, hori delakoan proletarioen iraultzaren mehatxuari buru egiteko modua. «Burgesiak jada ezin du espero izan bere estatua indarbide arruntek klase-autoritatea segurtatuko diotenik; horretarako, beraz, legez besteko eta estatuz besteko indar-egitura bat behar du, eta faxismoaren indarkeria heterogeneo eta askotarikoak eskaintzen dio hori». Kapitalismoak «ageri-agerian sustatu zuen faxisten terrorismoa, hura diruz eta bestelako baliabidez babestuz».
- Boterera iristen denean, burokratizatzeko joera izaten du faxismoak; aldeni egiten da lehengo aldarri demagogikoetatik, eta klase-kontraktasunak eta klase-borrokak hauspotzen hasten da berriro.
- «Kontraesan lotsagarria dago faxismoak promestutakoaren eta masei ekarri dienaren artean. Estatu faxista batek nazioaren interesak beste guztiaren gainetik jarriko zituelako berrikeria hori guztia, ekiteko garaia heldu denean, hutsean geratu da, xaboi-anpulu bat lehertzen denean bezalaxe. 'Nazioa' esaten zutenean,

egiaz, 'burgesia' esan nahi zuten; eta estatu faxista ideala aipatzen zutenean, berriz, estatu burges arrunt eta eskrupulurik gabeaz ari ziren. (...) Klaseen arteko kontraktasunak, izan ere, indartsuagoak dira horiek ukatzen dituzten ideologia guztiak baino».

Analisi alternatiboak

Zetkinetik faxismoaren inguruan egin zuen analisiak ez zeukan inolako zerikusirik garai hartan langileen eta sozialisten mugimenduetan egiten ari ziren beste azterlan batzuekin.

Analisi haien guztien artetik, Zetkinetik sozialdemokrata erreformisten ikuspegia aztertu zuen bere txostenean. «Faxismoa, haientzat, terrorea eta indarkeria da», adierazi zuen.

«Erreformistek, hain zuzen, klase burgesaren botere eta indar sendo eta aldaezinaren erakusgarritzat daukate faxismoa. Haien ustez, proletarioak alferrik ausartuko dira hura borrokatzen, eta, beraz, zera baino ezin dute egin, isil eta umil bazter batean geratu, eta klase burgeseko tigrerik eta lehoirik ez xaxatu, alde batera utzirik beren burua askatzeko eta agintea eskuartzeko borroka».

Kontraste handia dago, halaber, Zetkinen azterlanaren eta hurrengo urte eta hamarkadetan Stalinen gidaritzapean zeuden alderdi komunistek faxismoaren inguruan osatutako analisisien artean. Bi ikuspegi estalinista nagusi zeuden, biak ere Zetkinen ikusmoldeari kontrajarriak:

1. *Faxismo soziala*. Kominternen 1920ko hamarkadako eta 1930ekoaren hasierako «Hirugarren Aro» ultraezkertiarrean hartutako ikuspegia da. Sozialdemokrazia eta faxismoa berdintzea zen

haren funtsa, eta, hala, justifikatu egiten zuen Alemaniako Alderdi Komunistak uko egin izana Alderdi Sozialdemokratarekin batasun-fronte bat osatzeari nazien kontra borrokatzeko.

Halako fronte batek Alemaniako langile gehien-gehien babesa izango zuen, eta, seguru asko, naziei buru egiteko bezain boteretsua bihurtuko zen. Esan daiteke ezen hala Alderdi Komunistako buruzagiek nola SPDkoek elkarrekin bat egiteari eman zioten ezezko biribilak atea ireki zuela Hitlerrek boterea har zezan.

2. *Herri-frontismoa*. Ikuspegi hau Georgi Dimitroven txosten batean aurkeztu zen lehen aldiz oso-osorik, 1935ean, ordurako guztiz estalinizatua zegoen Komintern baten VII. Kongresuan. Faxismoa, Dimitroven iritziz, «finantza-kapitalaren elementurik erreakzionarioenen, chauvinistenen eta inperialistenen diktadura terrorista agerikoa» zen. Gehitu zue-nez, «inperialistarik muturrekoenen mesedetan» jarduten du faxismoak, hots, «burgesiako zirkulurik erreakzionarioenen mesedetan».⁶

Analisi horren arabera, egiteko nagusia hau xe zen: blokeak osatzea «herri-fronteak» burgesiaren zenbait sektoreekin, ustez gutxien erreakzionarioak, gutxien chauvinistak eta gutxien inperialistak zirenekin «sektore antifaxistarekin», alegia, eta helburu horren mende jartzea langile-klase independentearen borroka eta jarduera politikoa. Praktikan, horrek esan nahi zuen proletarioen jarduera iraultzaile

6 Dimitroven txostena irakurtzeko, jo hona: *VII Congress of the Communist International: Abridged Stenographic Report of Proceedings* (Mosku: Foreign Languages Publishing House, 1939), 126-129. or.

independentearen ifrentzuan zegoela alderdi estalinista oro har, eta horrek oztopoa zirudien irudikatua zuten herri-frontea osatzeko. Ikuspegi hark orobat balio izan zuen politikari kapitalista *antifaxista* batzuk babestea justifikatzeko, hala nola Franklin D. Roosevelt estatubatuarra, argudiatuik haren aurkari errepublikanoa «mehatxu faxista gorena» zela.⁷

Leon Trotski izan zen lehenetakoa ikuspegi haiei uko egiten, Zetkinen 1923an emandako argudio erabakigarrien alde eginez. Trotskik, hain zuzen, faxismoak Alemanian 1930eko urteetan izandako pizkundeari buruz idatzi zuen, modu polemikoan idatzi ere, eta hala testu haietan nola nazien garaipenetik ateratarako ikasbideetan daude faxismoaren eta hura garaitzeko moduen inguruan idatzi diren analisi marxistarik buruargienetako batzuk.⁸

Nola borrokatu faxismoa

Kapitalismoaren aldeko indar liberalek maiz iradokitzen dute faxistak beren kabuz desagertuko direla ez ikusi egiten bazaie. Zetkin, aldiz, ez zetorren bat horrekin. Haren ustez, langile-klaseak eta haren aliatuek hil edo biziko premia zuten beren indar guttiz faxismoaren aurka egiteko.

Langile-klaseak faxismoaren kontra egin beharreko borrokaz ari, Zetkinen zenbait gai nabarmendu zituen:

- Langileen autodefentsa guttiz funtsezkoa da faxisten terrore-kanpainari aurre egiteko. Oroz

7 *The Communist*, 6. zk., 1936ko ekaina, 489. or.

8 Nazismoaren Alemaniako sorreraren inguruan Trotskik idatzitako testu oinarritzakoak irakurtzeko, jo hona: *The Struggle Against Fascism in Germany* (New York: Pathfinder Press, 1971). Material horren parte handi bat online ere eskuragarri dago, *Marxists Internet Archive* izenekoan.

gain, langileak antolatu eta defentsa-guardiak osatu behar dira horretarako, faxisten erasoei buru egite aldera.

«Proletarioak, oraintxe, faxismoaren kontra autodefentsa baliatzeko premia gorrian daude; une oro kontu egin behar zaio faxismoaren terrorearen aurkako autobabes horri, autodefentsa horri. Jokoan daude proletarioen gorputza eta bizitza bera; jokoan dago haien erakunde iraupena. Proletarioek beren burua babestea ezinbestekoa da oraintxe. Faxismoari, izan ere, ez diogu aurre egin behar Italian erreformistek aurre egin dioten bezala, hots, faxistei eskatuz: 'Utzi ni bakean, eta nik ere bakean utziko zaitut'. Ez! Kontrakoa behar du guztiz: indarkeriari indarkeriaz erantzun! Baina ez terrore indibidualaren indarkeriaz, horrek huts egingo baitu seguru. Indarkeria bai, baina proletarioen klase-borroka iraultzaile antolatuaeren botere gisa erabilia».

- Funtsezkoa da batasun-fronte batean aurre egitea faxismoari, langile-klasearen erakunde eta korrante guztiak elkarturik, elkarren arteko desadostasun politikoak gorabehera.

«Proletarioek beren burua faxismotik defendatu eta haren aurka borrokatzeko, ordea, ezinbestekoa da batasun-fronte bat eratzea. Izan ere, fabrika bateko langile batekin topo eginez gero, faxistak ez dira galdezka hasten zer kolore dituen gustuko: Bavariako zuri-urdirak, ala errepublika burgeseko beltza, gorria eta urrea, ala bandera gorriko mailu-igitaiak. Ez dira galdezka hasten ea langile horrek [Bavariako] wittelsbachtarren dinastia berrezartzea nahi

duen, edo ea Eberten jarraitzaile sutsua den [Friedrich Ebert SPDko buruzagi eta Alemaniako presidentea], edo ea nahiago lukeen gure lagun Brandler ikusi Alemaniako Sobietar Errepublikako presidente gisa. Faxistei gauza bakarra axola zaie: klase-kontzientzia duen proletario bat aurkitzen badute, hura txiki-txiki egitea. Horrexegatik bat egin behar dute langileek borrokan, kontuan hartu gabe zer alderditara edo zer sindikatutara afiliatuta dauden».

- Bere burua defendatzeko, faxismoari fisikoki aurre egiteaz gainera, hark masengan pizten duen erakarmenari ere politikoki aurre egin behar dio langile-klaseak, erdiko klasekoen artean ahalegin berezia eginez.
«[Italiako] alderdiak [Komunistak], ezbairik gabe, hanka sartu zuen arlo taktikoan, faxismoa fenomeno militar hustzat jota eta haren alde ideologikoari eta politikoki ez ikusi eginda. Ez dezagun ahatz ezen Italiako faxismoak, ekintza terroristen bidez proletarioak zapaltzen hasi baino lehenago ere, ideologikoki eta politikoki ere gaina hartua ziola langileen mugimenduari, eta ez dezagun ahatz zertan oinarritu zen garai-pen hura. Oso arriskutsua litzateke aintzat ez hartzea zer garrantzitsua den faxismoa ideologikoki eta politikoki ere garaitzea».
- Bide horretatik faxismoa borrokatzeko, oroz gain, nahitaezkoa da proletarioen buruek, batetik, erakustea guztiz deliberatuta daudela borrokaren bitartez burgesiari boterea kentzeko, kapitalismoaren krisi soziala konpontze aldera, eta, bestetik, programa bat proposatzea horretarako osatu behar diren aliantzak finkatzeko.

Zetkinen ustez, faxismoari gailendu nahi izanez gero, funtsezkoa zen gobernabidea eskuratzeko borroka iraultzaile bati ekitea, klase sozial esplotatuen eta zapalduen aliantzan oinarriturik. Horrexegatik, bere txostenean azpimarratu zuen «faxismoa garaitzeko borrokan» ezinbestekoa zela gobernantza-eskari bat egitea ikusmolde hori adierazteko, hots, langileen eta laborarien gobernantzaren aldeko ikusmoldea.

Faxismoaren mehatxua gaur egun

Gaur egun faxismoa ulertzen ahalegintzea ez da auzi huts-hutsean historiko bat.

XXI. mendea aurrera doan honetan, krisi sozial betean sartu da kapitalismoa; eskuindarrak gero eta gogorrago ari zaizkie eraso egiten langileen eta zapalduen eskubideei eta bizi-baldintzei, eta gizartea gero eta polarizatuago dago. 2016ko azaroan, Donald Trump kapitalista bilioiduna aukeratu zuten AEBko presidente, demagogia eskuindar lotsagabea eta disimulurik gabeko aldarri arrazistak ezaugarri izan zituen kanpaina baten ondoren. Aipatu berri dugun krisiaren isla izan da gertatu dena, eta baita krisi horren larrigarria ere.

Zetkinnek duela ia mende bat iragarri zuen bezala, hain justu halako egoeretan sortzen da abagunea, une jakin batera ezker, mugimendu faxistak pitz daitezten.

Halako mugimenduek onartu onartzen dute krisi sozial bat dagoela, baina, sistema kapitalista jo ordez haren erantzuleztat, beste pagaburu batzuk aurkitzen dituzte: immigranteak, beltzak, juduak, beren buruarengan konfiantza duten emakume independenteak, LGBT jendea, erromaniak eta abar. Konspirazio-teoria bitxi samarrak ere ekartzen dituzte hizpidera, hartara

krisia eragin duen sistema sozial eta ekonomikotik aldentzeko jendearen arreta.

Jarraitzaileak lortzeko, erresuminaz baliatzen dira mugimendu faxistak: kapitalismoaren menpeko *herri-kultura* delakoa muineraino blaitzen duten sentipen arrazistak, chauvinistak eta misoginoak pizten dituzte.

Langileak elkarrengandik bereizteko faxistek egiten duten dei erreakzionarioari, beraz, kontra egin beharko zaio azalera ekariz premiazkoa dela zapalduak eta esplotatuek bat eginik borroka egitea —zeinahi dela ere haien nazionalitatea, jatorri etnikoa eta generoa—, hartara kapitalisten eta lur-jabeen agintea deuseztatzeko eta gizarte justu eta humanoago bat sortzen hasteko.

Borroka-zelaia, dena den, ez da izango ideien esparrua bakarrik.

Krisi soziala sakondu ahala eta langileak erantzuten hasi ahala, gero eta kapitalista gehiagok eta haien zerbitzari gehiagok joko dute legezko zein legez kanpoko neurrietara beren klase-aginpidea defendatzeko.

Eta halako erasoak gogortu ahala, beren batasuna defendatzeko borrokan buru egin beharko diete langileek: bai arrazismoaren, polizien basakeriaren eta poliziek egindako hilketen aurka borrokatzen direnek; bai abortatzeko eskubidearen alde emakumeen eskubideak defendatzen dituztenek; bai eskubide demokratikoen aurkako erasoek kontra libertate zibilen alde jarduten dutenek; bai ingurumenaren suntsipen kapitalistari aurre egiten diotenek; bai immigranteen kontrako indarkeria eta deportazioak borrokatzen dituztenek; laburbilduz, zapalduen eta esplotatuen mesedetan borrokatzen diren guztiek.

Ekintzaileei eta borrokalariei interesatuko zaie gehien faxismoaren izaera aztertzea eta haren kontra borrokaren historia ikertzea.

Lehenik Zetkinek zirriborratu eta gero hurrenez hurren Leon Trotskik, Antonio Gramscik eta enparauek osatutako ikuspegi marxista hau, askorentzat, funtsezko arma bat izango da faxismoaren mehatxuari aurre egiteko.

Testuinguru horretan, gero eta langile eta gazte gehiago batuko zaizkio etorkizun sozialista baten aldeko borrokari.

Horixe zen Clara Zetkinen uste sendoa.

Faxismoak gazteentzat zeukan erakargarritasunaz mintzo, honela esan zuen: «(...) haietan onenak atsekabe espiritual sakon bati ihes egin nahian dabil-tza. Esperantza berri eta sendo baten irrikaz daude, ideal berri eta irmo batzuen irrikaz, eta natura, gizartea eta beren bizitza ulertzen lagunduko dien mundu-ikuskeraren baten grinaz: mundu-ikuskeraren bat ez dena izango formula antzu bat, baizik sortzailea, erakitzailea. Ez dugu ahaztu behar faxista-talde biolento horiek ez daudela osatuta, soil-soilik, gerrako gaizkilez, *landsknecht* terrorezalez, lunpen ustelez; hizpide ditugun maila sozial horietako kiderik kementsuenak ere badaude haien artean, garatzeko ahalmenik handiena dutenak hain justu. Serio aritu behar dugu, haien egoerarekin eta irrika sutsuarekin ulerbera. Haiekin batera lan egin behar dugu, eta erakutsi badela soluzio bat ez daramana atzera, baizik eta aurrera, komunismora. Horrela, komunismoak mundu-ikuskeraren gisa duen gailentasunari esker, aldeko jarriko zaizkigu».

Faxismoa, azken batean, aginte kapitalistaren fruitua da, Zetkinen zioenez. Faxismoaren mehatxua ez da behin betiko amaituko harik eta langile-klasea,

familia kapitalista bilioidunei boterea kenduta, mundu berri bat eraikitzen hasten den arte.

Horretaz guztiz sinetsita zegoen Zetkin; hain zuzen ere, 1923ko txostenaren bukaeran islatzen da zeinen irmo sinesten zuen langile-klasearen potentzial iraultzailean:

«Proletario guzti-guztiek sentitu behar dute zerbait gehiago direla soldatapeko esklabo hutsak baino, kapitalismoaren eta autoritateen ekaitz-erauntsien mende dauden jostailuak baino. Klase iraultzaile baten parte direla sentitu eta ulertu behar dute: klase iraultzaile bat jabetzadunen estatu zaharra berregingo duena, eta estatu sobietar bihurtu. Langile guztiengan hala klase-kontzientzia iraultzailea nola klase-erabakimenarenugarra pizten dugunean, orduan baino ezingo dugu benetan prestatu eta erdietsi faxismoaren kontrako garaipen militar ezinbestekoa. Zein ere bortitz erasotzen dien bolada batean munduko kapitalak munduko proletarioei, zein ere gogorra den haren amorrua, proletarioek borroka egingo dute, eta garai-penerako bidea urratu azkenean».

Edizio honi buruz

Liburu honetako bi dokumentu nagusiak Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren III. Osoko Bilkura Zabalean aurkeztu zituzten, 1923ko ekainean. Bilkura hartako prozedura guzti-guztiak —Zetkinen faxismoaren inguruan idatzitako txostenaren eztabaida barne— lan honetan aurki daitezke: *The Communist Movement at a Crossroads: Plenums of the Communist International's Executive Committee, 1922-1923*. Mike Taberrek egin du edizio-lana, eta Brillen eta Haymarket Booksek argitaratu dute, Historical Materialism Book Series sailean. Kominternen lehen lau

biltzarretako prozedurak agertzen dira sail horretan — Lenin oraindik bizirik zela eginak denak—, eta material osagarria ematen duten beste liburu ugari ere hartzen ditu barnean.⁹

Zetkinetik III. Osoko Bilkurarako egindako txostena eta ebazpena, liburu honetan jasoak, John Riddellek itzuli ditu, hemendik: *Protokoll der Konferenz der Erweiterten Exekutive der Kommunistischen Internationale: Moskau, 12.-23. Juni 1923* (Hanburgo: Verlag Carl Hoym Nachf., 1923). Oin-oharrak ingelesezko editoreek erantsiak dira.

Horrez gainera, bi eranskin ere badauzka liburu honek:

1. Zetkinen txostena eta ebazpena, 1923ko maiatzaren 17tik 20ra Frankfurt am Mainen (Alemania) gerraren eta faxismoaren kontra antolatu zuten nazioarteko konferentziarako idatziak. Konferentzia hartako bi dokumentuetan nabarmendu zituen zenbait ideia, hain zuzen, berriz ere adierazi zituen Zetkinetik hiru hilabete geroago, Kominternen Batzorde Exekutiboaren bilera batean.

Liburuki honetarako, Sean Larsonek itzuli ditu bi dokumentu horiek, *Internationale Press-Ko-*

9 Hauek dira Kominternen biltzarretako prozedurak argitara atera dituzten lau liburukiak, John Riddellek editatuak: *Founding the Communist International: Proceedings and Documents of the First Congress, March 1919* (New York: Pathfinder Press, 1987); *Workers of the World and Oppressed Peoples, Unite! Proceedings of the Second Congress, 1920* (New York: Pathfinder Press, 1991); *To the Masses: Proceedings of the Third Congress of the Communist International, 1921* (Historical Materialism Book Series, Chicago: Haymarket Books, 2016); eta *Toward the United Front*. Hiru liburuki osagarriak, berriz, hauek dira: *Lenin's Struggle for a Revolutionary International 1907-1916* (New York: Pathfinder Press, 1984); *The German Revolution and the Debate on Soviet Power* (New York: Pathfinder Press, 1986); eta *To See the Dawn: Baku, 1920—First Congress of the Peoples of the East* (New York: Pathfinder Press, 1993).

rrispondenzetik (52. zk., 1923). Larsonek orobat lagundu du editatzen Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren osoko bilkurarako Zetkinetik egindako txostenaren ingeleserako itzulpena.

2. John Riddellen azalpen bat, kontaktzen duena nola ibili zen Zetkin etengabe deitzen nazismoaren kontra batasun-fronte bat osatzera. Zetkin leial izan zitzaion 1923an aurkeztu zuen batasun-fronte antifaxistaren ikuspegiari, baita Alderdi Komunistak ikusmolde hari bizkarra eman eta gero ere. Ikuspegi hura 1932ko abuztuaren 30ean laburbildu zuen gero ondoen, hots, Hitler eta naziak boterea bereganatzear zirela Alemaniako Reichstagen eman zuen hitzaldian. Etsaituak zituen entzule haien aurrean isilik geratu nahi ez, eta nazismoa hil edo bizi borrokatzera deitu zuen Zetkinetik, ordurako hirurogeita hamalau urte beteta.

Hil baino urtebete eskas lehenago Zetkinetik ekintza antifaxistaren alde egin zuen dei ausart hura gogoratzea, gaur egun oraindik ere, goresmen egokia da haren bizialdia omentzeko, bizialdi oso bat borroka iraultzaileari emana, eta baita utzi zuen legatua aitortzeko ere, zeina itsasargi bihurtu baita etorkizuneko belaunaldientzat.

Mike Taber eta John Riddell
2017ko urtarrila

BAT

FAXISMOAREN KONTRAKO BORROKA¹⁰

Faxismoa etsai guztiz arriskutsua eta beldurgarria da proletarioentzat. Gaur egun, burgesak munduan zehar hedatzen ari diren eraso orokorraren adierazpiderik indartsuena, trinkoena eta klasikoena da. Guztiz premiazkoa da hura azpiratzea. Eta ez soil-soilik proletarioek klase gisa duten existentzia historikoari dagokionez —proletarioen klaseak askatuko baitu gizadia, kapitalismoari gaina hartuz—: auzitan dago, halaber, langile arrunt oren iraupena, eta auzitan milaka eta milaka esplotaturen ogia, lan-baldintzak eta bizi-kalitatea.

Horrexegatik da proletario guztien kontua faxismoaren kontrako borroka. Eta argi dago ezen, zenbat eta argiago ulertu zein den etsai maltzur horren funtsa eta funts horren adierazpidea, orduan eta lasterrago izango dugula modua hura garaitzeko. Orain arte, izan ere, nahasmen handia izan da faxismoaren inguruan, eta ez soilik proletarioen masa zabaletan, baizik eta baita haien abangoardia iraultzailean ere, komunisten artean alegia. Hasieran,

10 Clara Zetkin.

pentsatu ohi zen faxismoa ez zela burgesiaren terrore indarkeriazkoa baino, eta bazirudien Horthyren Hungariako erregimenaren antzekoa zela izatez eta eraginez.¹¹ Eta, berez, egia da hala faxismoak nola Horthyren erregimenak metodo terrorista odoltsu berberak darabiltzatela, proletarioak modu berean zapaltzen dituztela, baina bi fenomeno horiek, historikoki eta funtsean, oso ezberdinak dira.

Hungarian, borroka iraultzaileak garaipena lortu zuen hasieran, eta, luze iraun ez bazuen ere, haren ondoren etorri zen terrorea: hau da, une batez, proletarioen indarrak dardarka utzi zuen burgesia, eta hain justu iraultza horretaz mendekatzeko hasi zen Horthy terrorea baliatzen, ofizial feudalen kasta kokkor bat akuilari zuela.

Faxismoa, ordea, besterik da: ez, inondik ere, burgesiak proletarioen altxamendu militarraz mendekatzeko urratutako bide bat. Aitzitik, historiaz den bezainbatean, eta modu objektiboan begiratuta, faxismoa askoz ere gehiago sortu zen zigor gisa, hain justu proletarioek ez ziotelako segitu Errusian hasitako iraultzari, ez zutelako aurrera jarraitu harekin. Gainera, faxismoa ez zuen piztu kasta txiki batek, baizik geruza sozial zabal batzuek, masa zabal batzuek, tartean baita proletarioak ere. Faxismoari aurre egingo badiogu, beraz, funtsezko diferentzia horiek ulertu beharra dugu. Izan ere, baliabide militarrek ez dira nahikoa faxismoa suntsitzeko, esapide hori erabil badezaket behintzat; politikoki eta ideologikoki ere garaitu behar dugu.

11 Miklós Horthy Hungariako erregimen kontrairaultzailearen buruzagia izan zen, 1919ko martxotik abuztura herrialde hartan indarrean egon zen sobietar gobernuaren erantsia izan ondoren.

Zer den faxismoa sozialdemokraziarentzat

Gure mugimenduko indar erradikal zenbaitek uste dute faxismoa terrore burgesaren adierazpide hutsa dela, baina, hein batean, ideia hori lotua dago sozialdemokrata erreformisten ikusmoldearekin. Faxismoa, haienezat, terrorea eta indarkeria da, eta, horrez gainera, baita proletarioek gizarte burgesaren aurka erabili duten edo erabiltzeko mehatxua egin duten indarkeriari burgesek emandako erantzuna ere. Biblian sinesten dutenezat zer izan zen paradisuaren sagarrari kosk egitea, bada, horixe bera izan da jaun erreformistentzat Errusiako Iraultza: gure garai-ko terrorismo-adierazpide guztien iturburua. Sekula izan ez balitz bezala arpilatze-gerra inperialistarak eta burgesiaren klase-diktadurarik! Faxismoa, erreformistentzat, Errusiako proletarioek egindako iraultzaren gainbeheraren ondorioa da: proletarioek Edeneko Lorategian egindako jatorrizko bekatuaren ondorioa.

Otto Bauerren gisako figura ospetsu batek berak adierazi zuen, Hanburgon, hein handi batean Errusiako komunistak eta haien gogaideak direla gaur egun mundu osoan burgesiak izan duen erreakzioaren eta faxismoaren erantzuleak; haiek zatitu omen dituzte alderdi politikoak eta sindikatuak.¹² Ausartu zen, ausartu, hori dena esatera, baina ahaztu egin zitzaion, antza, Errusiako Iraultza eta haren eredu moralki «galgarria» hasi baino are lehenago bereizi zirela Independentente ez batere indartsuak [USPD] [Alemaniako] Sozialdemokratetatik. Bauerrek erantsi zuen, gainera, faxismoa gailur izan duen erreakzio global hori orobat piztu dela, partez, Errusiako Iraultzak suntsitu egin

12 Austriako Alderdi Sozialdemokratiko buruzagi eta teorialaria izan zen Otto Bauer. Bi eta Erdi Internazional zentristako kide izan zen, zeinak Bigarren Internazional eskuindarrarekin bat egin baitzuen, 1923ko maiatzaren 21etik 25era bitarte Hanburgon egindako biltzar batean.

zuelako mentxebikeek Georgian eta Armenian zuten paradisua.¹³ Eta mundu osoko erreakzio horren hirugarren kausa, haren ustez, «terrore boltxebikea» izan omen zen oro har. Nolanahi ere, esanak esan, Bauerrek zera onartu behar izan zuen: «Orain, Erdialdeko Europan, proletarioen defentsa-taldeekin batera aurre egin behar diegu ezinbestean erakunde faxista biolentoei; izan ere, demokraziara deitze hutsa ez da nahikoa zuzeneko indarkeria horri buru egiteko».

Hori esan zuenez gero, pentsatzekoa litzateke ondorioztatuko zuela «indarrari indarrez aurre egin» behar zitzaiola; baina erreformisten logika bere gisakoa da, ulergaitza, probidentzia zerutiarraren bideak bezain.

Otto Bauerrek honela segitu zuen egun hartan: «Ez naiz esaten ari onbidera ez daramaten ekintza handiegi batzuk egin behar direnik une eta leku jakin batzuetan: ez naiz ari matxinada egiteaz, greba orokorrera deitzeaz... Egiatan, biderik oparoena zera da: parlamentuan koordinatuta jardutea eta parlamentutik kanpo ere modu masiboan ekitea».

Hori esanda, ordea, Otto Bauer jaunak ez digu argitzen zein den bere politika aratzaren sekretua: ez digu esaten zer-nolako ekintza politikoak egin behar

13 Georgia, zeina inperio tsaristaren parte baitzen lehenago, independente bihurtu zen Errusiako 1917ko urriko iraultzaren ondoren, Alderdi Mentxebikea buru izan zuen gobernu baten eskutik —alderdi hura Sobietar Batasunarekin etsaituta zegoen—. 1921eko otsailaren 16an, ordea, Armada Gorria Georgian sartu zen, sobietarren aldeko tokiko indarren matxinada babesteko, eta, berehala, sobietar errepublika independente bihurtu zen Georgia, Errusiari itunez atxikia. Armeniako lurralde bat ere, lehenago Otomandar Inperioaren eta Errusiako Inperioaren artean banatua, independente bihurtu zen Lehen Mundu Gerraren ondotik, daxnaken alderdi nazionalistaren agintepean. 1920ko irailean, Turkiako indarrek eraso egin zioten herrialde hari, eta, azarorako, Armeniako erresistentzia militarrek porrot egin zuen. Sobietar gudarosteak herrialdera sartu ziren, beren aldeko matxinadari laguntzeko, eta, hala, Armeniako Sobietar Errepublika Sozialista sortu zen.

diren parlamentuan eta, batez ere, parlamentutik kanpo. Ekintza guztiak ez baitira berdinak. Barkatuko didazue arrunkeria, baina, gure ustez, zenbait ekintza parlamentario eta zenbait ekintza masibo ez dira kaka zahar burgesa baino. Dena den, ekintza bat iraultzailea izan daiteke parlamentuan bertan egina izan zein handik kanpo egina izan. Otto Bauerrek, baina, ez zuen batere zehaztu zein litzatekeen erreformisten ekinaldien funtsa. Eta erreakzio global horren kontrako borrokaren gainean egin zituen adierazpenek fruitu aski bitxia ekarri dute: itxura denez, informazio-bulego bat izango omen da, mundu osoko erreakzio horren inguruko txosten zehatzak egiteko betebeharra izango duena. Bauerrek onartu zuen zenbaitek eszeptizismoz hartuko zutela kongresua. «Ez baldin bada ulertzen nolatan sortuko den albiste-bulego bat erreakzio horren gaineko beharrezko informazioa emateko, orduan justifikatuta egongo da eszeptizismo hori».

Zer dago interpretazio horren atzean? Bada, erreformistek uste osoa dutela ordena kapitalistaren eta klase burgesaren indarrean eta sendotasunean, eta, kontrara, koldarkeriaz jokatzeko dutela proletarioekin, ez direlako fidatzen proletarioak mundu osoko indar iraultzaile kontziente eta geraezin bat izan daitezkeenik. Erreformistek, hain zuzen, klase burgesaren botere eta indar sendo eta aldaezinaren erakusgarritzat daukate faxismoa. Haien ustez, proletarioak alferrik ausartuko dira hura borrokatzen, eta, beraz, zera baino ezin dute egin, isil eta umil bazter batean geratu, eta klase burgeseko tigrerik eta lehoirik ez xaxatu, alde batera utzirik beren burua askatzeko eta agintea eskuratzeko borroka. Alegia: proletarioek horri guztiari uko egin behar diote bai orain eta bai gero, eta pazientziatz

zain geratu, ea demokraziaren eta erreformaren bi-deak zertxorik dakarkien.

Faxismoaren sustrai sozialak

Nik neuk guztiz bestela pentsatzen dut, eta baita, seguru asko, gainerako komunista guztiek ere: faxismoa, bere indarraz hain harro egonik ere, ekonomia kapitalistaren gainbeheraren eta desintegrazioaren adierazpidea da, eta estatu burgesa desegin izanaren sintoma bat. Hura borrokatzeko, bide bakarra dugu: ulertzea faxismoa txinpartatsua eta liluragarria egiten zaiela masa zabalei, zeinek galdua baitute beren existentziaren gaineko segurtasuna eta, harekin batera, baita ordena sozialean zuten ustea ere. Hain justu, ekonomia kapitalista eta estatu burgesa desegin izana da faxismoaren iturburua. Gerra aurreko kapitalismoan bertan ere, zenbait seinalek jadanik adierazten zuten sektore burges batzuk proletario bihurtzen ari zirela, baina gerrak, gero, goitik behera birrintu du ekonomia kapitalista. Horren erakusgarria, proletarioak izugarri pobretu izana ez ezik, burges txiki eta burges ertain asko eta asko proletario bilakatu izana ere bada, eta laborari txikien gaur egungo bizi-baldintza negargarriak, eta intelektualen miseria izugarria. Intelektualak, beharbada, areago daude kinka larrian, gerraren aurretik kapitalismoak ahalegina egin zuelako intelektualak neurritz gain sortzeko. Kapitalistek, izan ere, lan intelektualaren esparrura ere hedatu nahi izan zuten lan-indarraren eskaintza masiboa, hartara lehia bridagabea piztu eta jornalak —barka, soldatak— apaldu zitezzen. Zirkulu haiexetan errekrutatu zituen hala inperialismoak nola mundu-gerra inperialistak aldezkari ideologiko ugari. Oraintxe, ordea, hutsaren hurrena da geruza sozial horiek guztiek gerran jarria

zuten esperantza. Askoz ere okerrago bizi dira gaur egun, eta hain justu oinarritzko bizigaia segurtaturik ez edukitzea, horixe dute lastarik handiena, gerraren aurretik bezalaxe.

Hori dena ondorioztatzeko, ez dut oinarri hartu Alemaniako egoera, non burges intelektualak behar gorrian dauden, langileak berak baino miseria larriagoan asko. Ez, begira Italiari. Aurrerago azalduko dudan bezala, herrialde hartan hondamendi ekonomikoa ere erabakigarria izan da masa sozialek faxismoarekin bat egin zezaten. Eta demagun beste herrialde bat, Mundu Gerratik gorabehera larririk gabe atera zena, Europako beste lurralde batzuek bestera: Britainia Handia. Han, gaur egun, hala prentsan nola bizimodu publikoan, «pobre berrien» sufrimenduaz adina hitz egiten da «aberats berri» urrien etekin eta luxu neurrigabeez. Estatu Batuetan, berriz, geruza sozial oso zabal baten premia gero eta handiagoaren iragarle da laborarien mugimendua. Funtsean, herrialde guzti-guztietan okertu dira nabarmen erdiko klaseetako baldintzak, baina zenbait lurraldetan, hainbesterainokoa izan da gainbehera, non geruza sozial horiek birrinduta, deuseztatuta geratu baitira.

Ondorioz, gaur egun, milaka eta milaka lagun dabilta bizi-aukera berrien bila, ogi bila, posizio sozial baten bila; eta, gainera, gero eta gehiago dira, gobernuko behe- eta erdi-mailako enplegatuak eta funtzionario publikoak ere batu zaizkienez gero, bai eta, orobat, ofizial eta ofizialorde izandakoak eta enparauak, enplegurik eta ogibiderik gabe geratuak garaile atera diren herrialdeetan bertan ere. Halako elementu sozialek figura itzaltsuen kontingente bat eskaintzen diote faxismoari: kontingente erabakigarri bat, mugimendu horri kutsu monarkiazale nabarmena eman diona zen-

bait herrialdetan. Dena dela, pentsatuko bagenu hori baino ez dela faxismoaren bilakaeraren kausa, ezingo genuke hura zeharo ulertu, zeren kausa hori nabarmen areagotzen baitute estatuen finantza-krisiak eta haien autoritate gero eta txikiagoak.

Proletarioen buruzagitzaren porrota

Faxismoak badu beste eragile bat ere: iraultza globalaren etena, haren ibilera motela, langileen mugimenduko buruzagi erreformisten traizioak eragina. Proletario bihurtu diren edo patu horren mehatxupearan bizi diren burges txiki eta ertain asko, funtzionario publiko eta burges intelektual asko, nolabait, sozialismo erreformista baten alde jarriak ziren, gerra-psikologia baztertuta. Espero zuten sozialismo erreformistak mundua aldatuko zuela «demokraziari» esker, baina esperantza hori txiki-txiki eginda geratu da. Sozialista erreformistek koalizio-politika sotil bat darabilte, eta haren ondorioak ez dituzte sufritu soilik proletarioek eta enplegatuek, baizik eta baita funtzionarioek, intelektualek eta orotariko burges txiki eta ertainek ere.

Estratu horiek, oro har, ez dute inolako heziketa teoriko, historiko eta politikorik. Sozialismo erreformistaren alde jarri ziren, bai, baina joera hura ez zeukaten sakon errotuta, eta, azkenean, buruzagi erreformistengan zuten ustea ez ezik, sozialismoan berean zuten ustea ere galdu zuten. «Sozialistek promes egin ziguten gure lastak eta sufrimenduak arinduko zituztela, eta beste gauza polit asko ere bai, besteak beste gizartea berregituratuko zutela justiziaren eta demokraziaren printzipioetan oinarrituta», zioten. «Baina boteretsuek eta aberatsek lehen baino are zorrotzago jarduten eta agintzen dute orain». Sozialismoarekin desengainatutako burges haiei indar proletarioak ere

batu zitzaizkien. Eta, gaur egun, desengainatutako horiek guztiak —jatorri burgesekoak nahiz jatorri proletariokoak— indar espiritual guztiz baliotsu bat galdu eta galdu ari dira, indar bat modua emango liekeena orainaldi ilun honetatik esperantzaz begiratzeko etorkizun argi baterantz. Ez dute sinesten proletarioen klaseak gizartea eraldatuko duenik. Desengainua hartutako horientzat guztientzat, izan ere, lider erreformisten traizioa baino zama astunagoa izan da masa proletarioek traizio hori toleratu izana, matxinatu gabe eta aurre egin gabe onartu izana uztarri kapitalista, eta lehen baino sufrimendu gogorrago batean etsi izana.

Bestalde, zuzena izan nahi badut, onartu beharra dut alderdi komunistek ere, Errusiakoak salbu, badutela erantzukizunik desengainua hartutako zenbait proletariok faxismoa besarkatu izanarena. Maiztxo, alderdi komunistek ez diote aski indartsu ekin; ez dute behar adina egin, eta ez dituzte behar bezain aintzat hartu masak. Eta hori dena, porrotera eraman duten hutsegite politikoak kontatu gabe. Argi dago hain justu proletariorik aktibo, kementsu eta iraultzaileenetako batzuek ez dutela aurkitu guganako bidea, edo bide horretan gelditu eta atzera egin dutela, iruditu zaielako ez ginela aski indartsuak eta oldartsuak, eta ez dugulako lortu behar bezala ulertaraztea zergatik guk ere gelditu egin behar izaten dugun batzuetan, gure borondatearen kontra baina pisuzko arrazoiz.

Faxismoaren masibotasuna

Halako batean milaka eta milaka pertsona lerratu ziren, modu masiboan, faxismorantz. Babesleku bihurtu zen politikoki etxegabe zeudenentzat, deserrotu sozialentzat, existentziaz gabetuentzat eta desengainatuentzat. Esperantza piztu zitzaien

klase sozial guztietako norbanakorik abil, indartsu, deliberatu eta adoretuenek lortuko zutela jada klase proletario iraultzaileak eta sozialismoak lortzea espero ez zutena. Indar haiek guztiek bat egin behar zuten, eta komunitate bat osatu. Eta, faxistentzat, nazioa da komunitate hori. Sinetsita daude errealtate sozial berri eta hobe bat sortzeko borondate zintzoa aski indartsua dela klaseen arteko kontrakotasun guztiak gainditzeko. Haientzat, estatua da ideal faxistak iristeko tresna: estatu bat sendoa, estatu bat autoritarioa, berek sortua eta beren menekoa. Haien ustez, alderdien arteko eta klaseen arteko ezberdintasun guztien gainetik nagusituko da estatu hori, eta beren ideologiaren eta programaren arabera berregingo du gizartea.

Faxismoaren ostenen osaera sozialari bagagotzio, agerikoa da barnean hartzen dituela, besteak beste, gizarte burgesarentzat izugarri deserosoak eta are arriskutsuak izan daitezkeen indar batzuk. Are gehiago: elementu horiek, benetan mesede zerk egiten dien ulertzen badute, ezinbestean izan behar dute arriskutsuak gizarte burgesarentzat. Bai horixe! Halakorik gertatzen bada, indar horiek beren ekarpena egingo dute gizarte burgesa ahalik eta lasterren deuseztatzeko eta komunismoa egia bihurtzeko. Haatik, gaur arte gertatutakoek erakusten dute indar erreazionarioek gaina hartu eta oztoparria ezarri dietela indar iraultzaileei.

Antzera gertatu izan da beste iraultza batzuetan. Burges txikiak eta erdiko klase sozialetakoak, hasieran, duda-mudan ibiltzen dira noren alde jarri, bi multzo historiko erraldioen artean: proletarioen alde ala burgesen alde. Beren bizi-premiekin eta, hein batean, beren muin-muineko desira eta ideal gorenek proletarioen alde jartzera bultzatzen dituzte, betiere ematen badu

proletarioek badutela aukeraren bat iraultza egiteko ez ezik garaile ateratzeko ere. Are, masek eta haien premiek estu harturik, eta egoerak hartaratuta, buruzagi faxistak berak ere behartuta daude gutxien-gutxienez proletario iraultzaileak pixka bat limurtzera, nahiz eta sakonean ez dituzten batere begiko. Baina, gero, argi geratu orduko proletarioek amore eman dutela, ez dutela aurrera segituko iraultzarekin, gudu-zelaitik erretiratzeakoak direla buruzagi erreformisten bultzadaz, iraultzaren errezeloz eta kapitalisten meneko, orduan faxisten masa zabalak nora-eta beren lider gehienak —ohartuki zein oharkabean— hasiera-hasieratik zeuden lekura lerratzen dira: burgesiaren ondora, alegia.

Burgesia eta faxismoa

Burgesiak, jakina, atseginez hartu ditu aliatu berriak. Harentzat, boterea izugarri handitzeko bide bat dira: indarkeria-olde deliberatu bat burgesiaren zerbitzuan. Burgesek, agintzera ohiturik, proletario uztarrira ohituek baino askoz ere eskarmentu eta jakituria handiagoa dute, zoritxarrez, gauzak zertan diren aztertzeko eta beren klase-interesak defendatzeko orduan. Burgesiak hasieratik ulertu du argi eta garbi zein den egoera eta zer etekin atera diezaiokeen faxismoari. Zer nahi du, azken batean, burgesiak? Bada, ekonomia kapitalista berreraiki nahi du, hots, bere klase-menperakuntza iraunarazi. Eta, gaur egun, gauzak dauden bezala, bere helburua lortzeko nahitaezkoa du nabar-men gogorrigo eta biziago esplotatzea eta zapaltzea langile-klasea.

Burgesek, ordea, ondotxo dakite berek bakarrik ez daukatela behar adinako botererik esplotatuei patu hori ezartzeko; izan ere, proletariorik soraioenak ere,

gainera datorkien miseriaren lupuek zigorturik, kapitalismoaren kontra matxinatzen dira azkenerako. Horiek horrela, burgesek onartu beharra dute sozialista erreformisten sermoirik leun eta bakezaleenak ere galtzen duela azkenean proletarioengan zeukan eragin sorgor-garria. Badakite indarrez baino ezin dituztela azpiratu eta esplotatu proletarioak. Baina estatu burgesak eskura dituen indarbideak, partez, desegiten hasita daude. Estatua galtzen hasita dago bere esklaboak itsu-itsu leial eta menperaturik edukitzeko behar dituen indar finantzarioa eta autoritate morala. Burgesiak jada ezin du espero izan bere estatuaren indarbide arruntek klase-autoritatea segurtatuko diotenik; horretarako, beraz, legez besteko eta estatuz besteko indar-egitura bat behar du, eta faxismoaren indarkeria heterogeneo eta askotarikoak eskaintzen dio hori. Horrexegatik onartzen du hain gogo onez burgesiak faxismoaren zerbitzua, eta horrexegatik ematen dio zernahi egiteko libertatea, baita bere arau idatzi eta idatzigabe guztien kontra aritu behar badu ere. Are: elikatu egiten du faxismoa, sostengatu, eta haren bilakaera sustatu ere bai, eskura duen botere politiko guztia eta diru guztia eskainiz.

Begi-bistakoa da herrialde bakoitzean ezau-garri jakin batzuk dituela faxismoak, tokian tokiko inguruabarren arabera, baina, hala ere, herrialde guzti-guztietan baditu bi bereizgarri funtsezko: batetik, programa iraultzaile faltsu bat, izugarritzko abilitadez erantzuten diena masa sozial zabalen aldarte, interes eta eskariei; eta, bestetik, terrore bortitz eta biolento baten erabilera.

Faxismoaren goraldia Italian

Gaur egun, Italia da faxismoaren bilakaeraren eta izaeraren eredu klasikoa. Han, ekonomiaren de-

segitean eta ahuldadean aurkitu du faxismoak bere mintegia. Eman lezake ez duela zentzurik horrek, Italia herrialde garaileetako bat izan zenez gero; baina gerrak, egiaz, gogor kalte egin zion haren ekonomia-ri. Burgesak garaile itzuli ziren gerratik, bai, baina era berean garaiturik. Eta, horretan, erabakigarria izan zen hango ekonomiaren egitura eta bilakaera: Italiaren iparraldean baino ez zen eratua kapitalismo industrial moderno bat; Italia erdialdean eta bereziki hegoaldean, aldiz, nekazaritza-kapitala zen artean nagusi, hein batean modu feudalean irauten zuena, oraindik garrantzi eta bilakaera modernorik ez zuen finantza-kapitalismo bati lotua. Bietako bakar bat ere ez zen inperialista, biak zeuden gerraren kontra, eta bakar batek ere ez zion inolako edo ia inolako etekinik atera genozidioa-ri. Nekazari ez-kapitalistek gogotik sufritu zuten haien pean, baita hirietako burges txikiak eta proletarioek ere. Egia da Italia iparraldean modu artifizialean elikatutako industria astuneko kapitalistek mozkinak oparo poltsikoratu zituztela, baina industria hura ez zegoen sakon errotuta —Italiak ez baitu ez ikatzik ez burdina-rik—, eta luze gabe zimeldu zen haren lorea.

Gerraren eragin gaizto guztiek blaitu zituzten hala Italiako ekonomia nola hango gobernuaren finantzak. Krisi latz bat piztu zen. Industria, eskulangintza eta merkataritza ez atzera ez aurrera geratu ziren, eta bankarota bankarrotaren atzetik etorri zen. Banca di Scontok eta Ansaldo konpainiak —biak ere inperialismoaren eta gerraren sorkariak— erreka jo zuten. Gerraren ondorioz, milaka eta milaka pertsonak hasi behar izan zuten lan eta ogi bila, eta ehunka mila elbarri, alargun eta umezurtz geratu ziren mantenu-beharrez. Krisiaren eraginez, lanetik kaleratutako langile- eta enplegatu-saldo batek etxera itzuli behar

izan zuen lan baten eta posizio baten premian, gizon zein emakume. Miseria-olde erraldoi batek hartu zuen Italia osoa, eta 1920ko udatik 1921eko udaberrira bitarte jo zuen goia. Iparraldeko industriako burgesia, gerra inolako eskrupulurik gabe hauspotu zuen berbera, ez zen gai izan porrot egindako ekonomia hura leheneratzeko. Ez zeukan behar adinako botere politikorik estatua bere xedeen alde mugiarazteko, eta galdu egin zuen gobernuaren gaineko kontrola; izan ere, Giolittiren agintepean, nekazaritza- eta finantza-kapitalisten esku geratu zen gobernua atzera. Baina, hala izan ez balitz ere, estatuak, juntura guztiak kirrinka, ez zuen izango behar bezalako baliabiderik eta aukerarik krisi hari eta miseria hari aurre egiteko.

Egoera hari esker, eta harekin pausoz pauso, faxismoa ernatu zen Italian. Haren buruzagi izateko patua zain zuen Mussolinik. 1914ko udazkenean, sozialismo pazifistaz arnegatu zuen, eta, «Gerra edo errepublika» leloa ahotan harturik, gerrazalerik sutsuena bilakatu zen. Ententeak diruztatuta sorturiko egunkari batean, *Il Popolo d'Italia* izenekoan, produkzioan aritzen ziren masei promes egin zien gerrari esker paradisua lortuko zutela lurrean. Industriako burgesiarekin batera zeharkatu zuen Mundu Gerraren itsaso odoltsua, eta harekin batera eraldatu nahi izan zuen Italia, estatu kapitalista moderno bat bihur zedin. Alabaina, herrialdearen benetako egoera Mussoliniren profezien gezurtagarria zen, oztopo bat haren helburuetarako, eta, horrexegatik, zirkunstantzia haietan modu aktiboan esku hartzeko, masak batzen saiatu behar izan zuen. Gerraostean, 1919an, lehen *fascio di combattimento* delakoa eratu zuen (fronteko soldaduen liga), Milanen, helburu harturik nazioa bizirik mantentzea eta loraraztea, eta «segurtatzea lubakietako heroientzat

eta langileentzat» izango zirela «gerra iraultzailearen fruitu iraultzaileak». Zenbait hiritan sortu ziren *fascio* haiek. Mugimendu gazte hura hasiera-hasieratik gogor borrokatu zen langileen erakunde iraultzaileen kontra, Mussolinik esana baitzuen erakunde haiek «nazioa zaitzen eta ahultzen» zutela klase-borroka lehenetsiz. Faxismoak Giolittiren gobernuaren kontra ere zuzendu zituen armak, hura jotzen baitzuen gerraosteko sufrimendu latzaren erantzule erabatekotzat. Nolanahi ere, hasieran, oso mantso eta ahul garatu zen mugimendua: masa zabalek oraindik konfiantza zuten sozialismoan, eta horrexek galgatu zuen faxismoa. Horren erakusgarri, 1920an, ehun bat talde faxista baizik ez zeuden Italian, eta bakar bat ere ez 20-30 kide baino gehiagokoa.

Desmoralizazioa eta terrorea

Berehala, beste iturri oparo batetik ere elikatzen eta indartzen hasi zen faxismoa. Iraultza-egoera bat zen hura objektiboki, eta horrek iraultza-giroa hedatu zuen Italiako proletarioen artean. Errusiako langileen eta laborarien eredu loriatsuak eragin handia izan zuen. 1920ko udan, metalgintzako langileak fabrikak hartzen hasi ziren.¹⁴ Han eta hemen, Italia hegoalderaino, nekazari proletarioak, laborari txikiak eta etxaldeetako maizterrak lursailak okupatzen hasi ziren, edo bes-telako moduetan altxatzen lur-jabe handien kontra. Baina abagune historiko erabakigarri hartan, langileen gidariek uzkur jokatu zuten. Alderdi Sozialistako buruzagi erreformistek atzera egin zuten iraultzaren bidean, beldur baitziren fabriken okupazioa ez ote zen botere-borroka politiko bilakatuko. Mugimendu huts-hutsean ekonomiko baten zedarrri estuetara mugatu

14 1920ko irailean Italiako lantegiak nola hartu zituzten jakiteko, jo sarrerara.

zuten langileen borroka, eta sindikatuen zeregina zen mugimendu hura gidatzea. D'Aragonarekin eta Lanaren Konfederazio Nagusiko beste agintari batzuekin elkar hartuta, traizio egin zieten soldatapeko esklabo matxinatuei, enplegatzailleekin konpromiso lotsagarririk bat adostuz, gobernuaren eta bereziki Giolittiren laguntzaz baliatuta. Alderdi Sozialistako ildo ezkertiarreko buruzagiek —haiek eratu zuten gerora Alderdi Komunista— artean ez zeukaten behar bezalako trebakuntzarik eta eskarmenturik egoera hura teoriarik eta praktikan kontrolpean hartzeko eta gauzak beste nolabait bideratzeko. Era berean, agerian geratu zen proletarioen masak ez zirela kapaz beren liderrei aurre hartu eta haiek iraultzaren biderantz bultzatzeko.

Fabriken okupaziotik, galtzaile atera ziren proletarioak, lazgarriro, eta horrek etsita, dudatsu eta uzkur utzi zituen. Ondorioz, ehunka langilek bizkarra eman zieten alderdi eta sindikatuei. Batzuk indiferentzian eta sorgortasunean hondoratu ziren, eta beste batzuk, berriz, elkarte burgesetara batu. Desengainua hartutakoen artean, gero eta gehiago hasi ziren faxismoa babesten, baita gero eta burges eta burges txiki gehiago ere. Politikoki eta ideologikoki, faxismoak gainera hartua zion ordurako langile-klase erreformismoak kutsatuari. 1921eko otsailean, hain zuzen, 1 000 *fascio* inguru zenbatu zituzten. Eskrupulurik gabeko demagogiaz jendea nahastuz eta aldarri iraultzaile faltsuak zabalduz, faxismoak berera erakarri zituen masak. Eta, oroz gain, Giolittiren gobernuaren kontra baliatu zuen bere hizkuntza erradikal hanpatua, hura baitzeukan «nazioaren traidoretzat».

Bigarren «etsaiaren» kontra ere, hots, langileen nazioarteko erakundeen, «aberriaren etsaien» kontra, jo eta su ekin zion faxismoak. Mussolinik, bere ikuspegi

errepublikano, antimonarkiko eta inperialistarekin bat, errege-erreginen dinastia kanporatzeko agindu zuen, eta Giolitti lepo egiteko ere bai, literalki. Faxismoaren jarraitzaileak terrore grinatsuz eta odoltsuz hasi ziren «zigortzen» «antinazionalak», hau da, klase-kontzientzia zuten langile-organizazioak. 1921eko udaberrian egin zituzten lehen «zigor-espedizio» faxistak: nekazaritza-eremuko proletarioen kontra jo zuten, haien erakundeen egoitzak suntsituz eta errez, eta haien liderrak erailez. Beranduago arte ez zen iritsi faxisten terrorea hiri handietako proletarioengana. Estatuaren botereek, une oro, nahieran jokatzen utzi zieten, legeari eta justiziari ez ikusi eginez. Eta burgesiak ere, izan industria-eremukoa izan nekazaritza-eremukoa, ageri-agerian sustatu zuen faxisten terrorismoa, hura diruz eta bestelako baliabidez babestuz. Izan ere, nahiz eta langileak galtzaile atera ziren fabrikak okupatzeko ekinalditik, burgesak beldur ziren etorkizunean berriz ere indarra hartuko ote zuten. Udal-hauteskundeetan, sozialistek 8 000 udalen herenak bereganatu zituzten, eta aurrea hartu behar zieten, bai horixe!

Faxistak garaile hauteskundeetan

Ordurako, gobernuak bazuen bai motiborik eta bai aukerarik faxismoa indarrez eraisteko, mehatxagari jazartzen ari baitzitzaion. Baina hala egiteak, gauzak zeuden bezala, indarra emango zion langileen mugimenduari, eta Giolittik zera pentsatu zuen: faxistak nahiago, sozialistak eta iraultzaileak baino. Hala, azeri zahar maltzurak parlamentua desegin zuen, eta hauteskundeetara deitu 1921eko maiatzerako. Alderdi burges guztien arteko «ordena-bloke» bat eratu zuen, erakunde faxistak ere barnean hartuta. Hauteskunde-kanpainan, faxistak beren aldarri errepublikano

zalapartatsuak haizatzen ibili ziren. Nekazarien buruzagiak eta nekazarien masak haien alde lerratu ahala, ordea, isilduz joan zen mugimendu antimonarkiko eta antidinastiko hura. Hein handi batean, babes horri esker hasi ziren faxistak garaile ateratzen hauteskundeetan, eta horri esker hedatu eta indartu ziren *fascioak* ere: 1921eko maiatzerako, baziren 2 000 bat. Ezbairik gabe, Mussolini jabetua zegoen zer-nolako arriskua zen hala beretzat nola bere helburuentzat nekazarien indarrak saldoan sartzea mugimendu faxistan. Ohartu zen ezen, asaldura antimonarkiko ustez iraultzaile hura geldituta, pizgarri sendoak galtzen ari zirela masak faxismora batu zitezen.

Hauteskundeetako norgehiagoka bukatu zenean, Mussolinik 1919ko leloetara itzuli nahi izan zuen beriz. Behin, elkarrizketa bat eman zion *Giornale d'Italiari*, industria astunaren interesak defendatzen zituen egunkari bati, eta esan zuen hautetsi faxistek ez zutela parte hartuko ganberaren hasiera-ekitaldian, ezin zutelako «Bizi bedi erregea!» oihukatu hark tronutik bere diskurtsoa egin ondoren. Elkarrizketa hura argitaratuta, agerian geratu zen nolako indarra zuen nekazarien ildoak faxismoan. *Fascioen* babesaz hautatuak izan ziren diputatu batzuek bat egin zuten monarkikoe-kin eta nazionalistekin. Tirabira hura ebazteko, bilera batera deitu zituzten diputatu faxistak eta *fascioeta-*ko eskualde-ordezkariek; Mussolini eta haren eskaria galtzaile atera ziren, eta, ondorioz, bere errepublikanismoa bridatu behar izan zuen, argudiatu ez zuela auzi harengatik faxismoa zatitu nahi.

Aparatu faxista

Porrot haren ondorioz, Mussolinik alderdi antolatatu eta zentralizatu gisa eratu behar izan zuen

faxismoa; ordura arte, izan ere, mugimendu saka-banatu samarra zen. 1921eko azaroan gauzatu zuten eraldaketa hura, faxisten lehen kongresuan. Dena den, nahiz eta auzi hartan Mussolinik irabazi, alderdiko buruzagiak hautatzeko orduan gaina hartu zioten. Horrek esan nahi zuen oraindik ez zeukala dena kontrolpean: zehatz-mehatz, kideen erdiek baino ez zuten zuzenean babesten Mussolini; beste erdiak nekazari monarkiaza-leak ziren. Eta horrek badu garrantzirik, agerian uzten baitu faxismoaren barnean gatazka bat zegoela, gaur arte iraun duena, gero eta biziago, eta etorkizunean faxismoaren gainbehera areagotuko duena. Nekazaritza-kapitalaren eta industria-kapitalaren arteko gatazka bat da, edo, alde politikotik begiratuta, monarkikoen eta errepublikanoen artekoa. Alderdiak 500 000 kide ditu orain.

Faxismoa alderdi gisa eratze hutsak ez zion Mussoliniri behar adinako botererik bermatu langile-klasearen nagusi bihurtzeko, hots, proletarioak behartzeko are grinatsuago lan eginez ekonomia kapitalista berregitera eta garatzera. Hori benetan lortu nahi bazuen, bi aparatu behar zituen: aparatu bat langileak galbideratzeko, eta beste bat indar armatuen eta terrorismoaren bidez langileak garaitzeko.

Langileen mugimendua galbideratzeko aparatua sortze aldera, bada, sindikatu faxistak eratu zituzten, «korporazio nazional» izendatuak. Faxismoak betidanik egin zuena egitea zuten betebeharra, baina modu planifikatu batean: alegia, langileen mugimendu iraultzaileari aurre egin behar zioten, langileen edozein mugimendu independente barne. Hala eta guztiz ere, Mussoliniri leporatzen dioten bakoitzean langile-klasearen aurkako borroka baten gidaria dela, hark beti erantzuten du ezetz: behin eta berriz esaten du langile-

klasea materialki eta kulturalki gorarazi nahi duela, eta ez hura atzera itzularazi «esklabo-bizimodu dohakabe batera». Baina mugimendu horrek «nazioaren» zedarien barruan egon behar du haren ustez, eta nazioaren interesen mende, klase-borrokari erabat uko eginda.

Sindikatu faxistak, beraz, helburu argi batekin sortu zituzten: proletarioen erakunde iraultzaileen aurka ez ezik edozein klase-erakunderen aurka egitea. Mussolinik eta haren jarraitzaileek iraultzaile-susmoa hartzen diote klase-erakunde proletario orori. Mussolinik sortutako sindikatuek, berriz, barnean hartzen dituzte negozio edo industria jakin bakoitzeko langile, enplegatu eta enplegatzailleak. Egia da enpresari antolatu batzuek uko egin diotela sindikatu horietan afiliatzeari —hala nola Nekazarien Elkartek eta Industrialarien Elkartek—, eta egia da halako heresia eginda ere ez diotela konturik eskatu zigor-espedizio faxisten bidez; izan ere, proletario jakin batzuei baino ez diete erasotzen: akaso mugimendu iraultzailean ibili ere ez dabiltzan baina beren klase-interesen alde borrokatzen diren proletarioei, hain zuzen. Gaur egun, dozenaka mila langile behartu dituzte sindikatu faxistetan afiliatzera, eta, diotenez, milioi bat kide inguru dituzte orain.

Italian, *eskuadro*i izeneko talde faxistak erabiltzen ari dira langile-klasea terrorismoaren bitartez azpiratzeko: nekazaritza-eremuko zigor-espedizioetan dute jatorria erakunde militar horiek; handik abiatuta garatu dira. Horrela, hasierako «zigortzaile»-banda haiek, modu espontaneoan sortuak, ordainpeko mertzenarioen «organizazio» iraunkor bilakatu dira, terrorea ofizio dutenak. Denboraren poderioz, indar militar peto bihurtu dira: estatu-kolpea eman zuten, eta Mussoliniren diktadura sostengatzen dute orain.

Boterea eskuratu eta estatu faxista ezarri ondoren, «milizia nazional» gisa legezatu zituzten, estatu burgesaren organo gisa. Eta, ofizialki deklaratu izan den bezala, «Jainkoaren, nazioaren eta lehen ministroaren zerbitzuan» daude; gogoan hartu: ez erregearen zerbitzuan. Haien indarra neurtzeko egin diren estimazioen arabera, estatu-kolpe faxistaren garaian¹⁵ 100 000-300 000 kide omen ziren, eta orain, berriz, milioi erdi.

Greba orokor huts egina

Buruzagi erreformisten porrotak eta traizioak faxismoa ernatzen lagundu zuen bezalaxe, erreformisten beste traizio batek eta, beraz, Italiako proletarioen beste porrot batek eman zien modua faxistei estatua- ren boterea bereganatzeko. [1922ko] uztailaren 31n, bilera sekretu bat egin zuten Italiako langileen lider erreformistek, hala lider sindikalek nola politikoez [Alderdi Sozialistakoek], tartean Turati eta D’Aragona. Bilkura hartan, erabaki zuten greba orokorrera deitzea abuztuaren 1erako, Sindikatuen Konfederazio Nagusiaren bidez, baina greba hura ez zegoen ez prestatuta eta ez antolatuta.¹⁶ Eta horren emaitza ezin zitekeen izan, jakina, proletarioaren porrot lazarria besterik. Zenbait tokitan lanuztea hasi zutenerako, greba huts

15 Faxistek 1922ko urriaren 22tik 29ra egindako «Erromako Martxaren» aipamena da hori. Martxa haren amaieran, kabinetea osatzeko eskatu zioten Mussoliniri.

16 1922ko uztailaren 31n, Lanaren Aliantzak —CGL Lanaren Konfederazio Nagusia eta beste sindikatu batzuk biltzen zituen— greba orokorrera deitu zuen Mussoliniren erregimenaren kontra, biharamunean hasteko, baina faxistak eraso-oldeak egiten ibiliak ziren erabateko inpunitatez, eta langile-klasea gero eta desmoralizatuago zegoen; horren ondorioz, baliabide urriz antolatutako greba hari erantzun apala eman zioten langileek, eta errepresioa, aldiz, bortitza izan zen. Azkenean, antolatzaileek amore eman behar izan zuten, eta bertan behera utzi zuten greba, abuztuaren 3an.

egina zen beste leku batzuetan. Fabriken okupazioaren porrota bezain alimalekoa eta zorigaitzokoa izan zen porrot hura: faxistei adorea eman zien estatu-kolpea jotzeko, eta langileak, aldiz, adoregabetuta eta desmoralizatuta utzi zituen. Ez atzera eta ez aurrera, esperantzarik gabe, erresistentziaz etsi zuten, eta zetorrenari etortzen utzi. Gainera, estatu-kolpearen ondoren, Mussolinik hala aginduta, Baldesik adierazi zuen —Alderdi Sozialistako eta Italiako sindikatuen konfederazioko buruzagirik itzaltsuenetako batek, alegia— prest zegoela mugimendu faxistara batzeko, eta, hala, berretsita geratu zen buruzagi erreformisten traizioa. Itun lotsagarri hark, azkenean, porrot egin zuen, baina —hau bai lotsagarria— ez erreformistek haren aurka protesta egin zutelako, baizik eta nekazari faxistak azaldu zirelako hitzarmenaren kontra.

Kamaradak! Laburpen orokor honek modua emango zizuen ohartzeko zer lotura izan den Italian faxismoaren bilakaeraren eta masak pobretu eta engainatu zituen gainbehera ekonomikoaren artean; faxismoaren bilakaeraren eta buruzagi erreformisten traizioaren artean. Borroka abandonatzera behartu zituzten proletarioak. Eta Alderdi Komunistaren ahuldadeak ere izan zuen zerikusirik: egia da kide gutxi zituela, baina, hori alde batera utzita, alderdiak, ez bairik gabe, hanka sartu zuen arlo taktikoan, faxismoa fenomeno militar hustzat jota eta haren alde ideologikoari eta politikoki ez ikusi eginda. Ez dezagun ahatz ezen Italiako faxismoak, ekintza terroristen bidez proletarioak zapaltzen hasi baino lehenago ere, ideologikoki eta politikoki ere gaina hartua ziola langileen mugimenduari, eta ez dezagun ahatz zertan oinarritu zen garaipen hura. Oso arriskutsua litzateke aintzat ez

hartzea zer garrantzitsua den faxismoa ideologikoki eta politikoki ere garaitzea.

Faxisten promesak vs faxisten ekintzak

Argi dago faxismoak, antolamendu eta indar aldetik, oso programa erakargarria zuela masa zabalentzat, eta soilik horregatik eboluzionatu ahal izan zuela lehentxeago laburbildu dudan bezala. Erantzun beharreko galdera, beraz, hauxe da —eta herrialde guztietako proletarioentzat da inportantea—: boterea hartu zuenetik, zer egin du Italiako faxismoak bere programa betetzeko? Nolakoa da lanabes gisa hautatu duen estatu hori? Erakutsi al du promestu zuen estatu hori dela, hots, klaseen eta alderdien gainetik dagoen estatu bat, gizarteko geruza guztiei justizia bermatuko diena? Ala, aitzitik, agerian utzi du ez dela gutxiengo jabetzadunen eta bereziki industriako burgesiaren tresna bat baizik? Hori ebazteko modurik onena da aztertzea zein diren faxisten programako aldarririk garrantzitsuenak eta zenbateraino bete dituzten.

Arlo politikoan, zer promesak egin zuen faxismoak Sanson bezala oldar betean iritsi zenean, ilea basati haizetan?

Agindu zuen botoa emateko eskubidea erreformatuko zuela, eta, ondorioz, biztanle guztiak modu proportzionalan ordezkaturik egongo zirela. Zer ikusten ari gara, ordea? Bada, 1919ko ordezkartza proportzionalaren lege zaharkitu eta akastuna indarririk gabe utzi eta, haren ordez, proportzionaltasunaren aldetik broma hutsa den hauteskunde-lege bat ezartzekoak direla. Boto gehien biltzen duen alderdiak parlamentuko eserlekuen bi heren bereganatuko omen ditu; eta eztabaida izan da ea bi heren behar zuen ala hiru laurden. Prentsak berriki jakinarazi duenez, faxis-

tek ontzat joko dute alderdirik indartsuenak —alderdi faxistak, alegia— bi heren eskuratzea eta beste herena gainerako alderdien artean banatzea modu proportzionalen. Erreforma galanta!

Mussolinik agindu zuen emakumeek eskubidea izango zutela bai bozkatzeko eta bai hautatuak izateko. Duela gutxi, emakumeen boto-eskubidearen inguruko nazioarteko konferentzia burges bat egin zuten Erroman,¹⁷ eta Mussolini adeitsu agertu zen andre haiengana, irribarre eztiz, esanez emakumeek botoa emateko eskubidea izango zutela, baina udal-hauteskundeetan bakarrik. Hortaz, emakumeek oraindik ere ukatuak izango dituzte zenbait eskubide politiko. Are gehiago: ez dute emakume guzti-guztiek izango udal-hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea, baizik soilik hezkuntza-maila jakin bat dutela egiaztatu dezaketenek, eta, horiez gainera, «gerrako dominaren» bat daukatenek eta zerga jakin batzuk pagatzeko adinako diru-zorria duten gizonen emazteek. Horrelaxe bete nahi du Mussolinik emakumeen eskubide-berdintasunaren inguruan egin zuen promesa.

Faxismoak, bestalde, bere programan sartu zuen senatua abolitzea eta parlamentu ekonomiko bat sortzea, parlamentu politikoaren aldez albo funtzionatuko zuena. Bada, parlamentu ekonomiko hori inork ez du aipatu ere egiten jada. Mussolinik, lehen aldiz hitz egin zuenean senatuan, erreakzionarioen trasteleku horretan, goretsi zuen ekarpen bikainak egin zituela iraganean, eta lorpen handiak egiten ari zela oraindik ere, eta horrek guztiak erabakigarria izan behar zuela senatuak eragin handiagoa izan zezan legegintzan.

17 Emakumeen Boto Eskubidearen Aldeko Nazioarteko Aliantzaren IX. Kongresuaz ari da: 1923ko maiatzaren 12tik 19ra egin zuten, Erroman.

Faxistek beren programan zioten batzar nazional batera deitu beharra zegoela berehala, konstituzioa erreformatzeko. Zertan da orain hori? Bada, txintik ere ez dute esan batzar horren inguruan, baina badi-rudi hauxe izango dela konstituzioaren erreforma: parlamentuak —lehenago deskribatu dudan bezala osaturik, hots, alderdi faxistak gehiengoa duelarik— lehen ministro bat proposatuko du; orduan, erregeak berretsi beharko du proposatutako lehen ministro hori —hau da, faxismoak gehiengoa duen bitartean, lehen ministro faxista bat—; segidan, lehen ministroak nahieran osatuko du bere gobernua, eta bere burua eta bere kabinetea aurkeztuko dizkio parlamentuari; hark konfiantzazko botoa emango dio, eta, hortik aurrera, parlamentua bazter batean geratuko da lau urtez, le-gealdi osoan alegia.

Konpara dezagun orain zer promes egin zituzten faxistek arlo sozialean eta benetan zer egin duten gero. Agindu zuten legez babestuko zutela zortzi orduko lanaldia, eta gutxieneko soldata bat ezarriko zutela industriako langileentzat nola nekazaritzakoentzat. Zortzi orduko lanaldiaren gainean aurkeztu duten le-geak, ordea, ehunka salbuespen ditu, eta amaieran xedapen bat dauka esaten duena lanaldi hori bertan behera utzi ahalko dela zenbait kasutan. Are, praktikan, zortzi orduko jardunaldia desagertua da proletario-sektore askotan, bereziki trenbideko langileen, postakoen eta beste komunikazio-bide batzuetakoen artean: Groener kalamidade horren ereduari zehatz-mehatz jarraituz¹⁸, langile horiek orain jardunean eman behar-ko dituzte lehen guardiakoak zituzten zortzi orduak.

18 Alemaniako trenbide-ministroa izan zen Wilhelm Groener. 1922ko otsailean, zenbait neurri hartu zituen trenbideko langileak nazio guztian egitekoak ziren greba deuseztatzeko.

Gutxienero soldatari dagokionez, berriz, honela dago kontua: sindikatuak suntsituz eta terrorismoaren bidez mugatuz, eta «bake zibilarekin» engaiatutako «korporazio» faxisten jokabideari esker, enpresariak sekulako boterea eskuratu dute edozein soldata-eskari ezetz esateko; hainbestearainokoa, ezen langileek ezin izan baitituzte, egoera ekonomikoa dela medio, lehengo soldatak ere defendatu. Batez beste % 20-30 apaldu diete soldata, baina langile ugari % 50 ere bai, eta, are, batzuei baita % 60 ere.

Faxismoak promes egin zuen pentsioak ordainduko zizkiela adinekoei eta ezgaituei, pobreziarik eta sufrimendurik latzenetik babesteko. Zer gertatu da, ordea, promes horrekin? Bada, adinekoentzako, kalteberentzako eta gaixoentzako gizarte-laguntza lehendik eskasa, 50 milioi lirako funts bat zena, deuseztatu egin dutela. «Arrazoi ekonomikoengatik» atera omen dituzte 50 lira horiek aurrekontutik. Ondorioz, premian daudenek ez dute jada inolako laguntza sozialik Italian. Enplegu-zerbitzuetarako eta langabeei laguntzeko jarriak zituzten 50 milioi lirak ere erretiratu dituzte aurrekontutik, bai eta aurrezki-kutxa kooperatiboetarako bideratuak ziren 60 milioiak ere.

Faxismoak, bestalde, aldarrikatu zuen langileek fabriketako zuzendaritza teknikoaren parte izan behar zutela: hots, produkzioaren kontrola hartu behar zutela. Agindu zuten faxismoak langile-batzordeen ikuskapen teknikoaren pean jarriko zituela enpresa publikoak. Egiaz, ordea, orain eztabaidagai dute lege bat langile-batzordeak bertan behera utziko lituzkeen. Are, enpresa publikoak pribatizatzeke asmoa ere badute. Hasita daude horretan, partez. Esaterako, pospoloen fabrikazioa, lehen estatuaren monopolioa zena, espekulatzailerik pribatuen esku gelditu da, eta beste

hainbeste gertatu da paketeen posta-zerbitzuarekin, telefoniarekin, irriatiaren eta telegramen sektorearekin eta trenbideekin. Mussolinik adierazia du faxistak «liberalak» direla, «hitzaren adiera klasikoa».

Errepara diezaiozun, bada, faxismoak finantzen arloan ekarri duenari. Faxistek zerga-erreforma sakon bat nahi omen zuten. Haien estatu «autoritarioak» bere boterea baliatuko omen zuten kapitalaren gaineko zerga-sistema orokor eta progresibo bat ezartzeko, zeina, ustez, «kapitala espropiatzeko» erreforma bat izatekoa baitzen hein batean. Baina, horren ordez, luxuzko produktu batzuen gaineko zenbait zerga kendu dituzte: besteak beste, zalgurdien, automobilen eta halakoen gainekoak. Erabakia zuritzeko, esan dute halako zergek «ekoizpen nazionala mugatzen» dutela, eta «jabetza eta familia suntsitzen». Gainera, zeharkako zergak handitzea ere aurreikusia dute, zuri bide berdin irudimentsu bat erabilita: zehazki, zerga horiek zabaldua kontsumoa apalduko litzatekeela eta horrela esportazioak sustatuko liratekeela. Bestalde, ezabatu egin dute baloreak beren jabeen izenean erregistratzeko betebeharra —«baloreen nominaltasun» delakoa—, eta, hala, atea zabal-zabalik utzi diete zerga-ihesean aritzen direnei.

Mussolinik eta haren guardiak elizaren ondasunak konfiskatzea ere exijitu zuten. Horren partez, ordea, faxisten gobernuak atzera indarrean sartu ditu kleroari garai batean egiten zitzaizkion kontzesio batzuk, aspaldi bertan behera utziak. Eskolako heziketa erlijiosoak ere duela 50 urte utzi zen bertan behera, baina Mussolinik berriz ere ezarri du, eta orain gurutze bat zintzilikatu beharra dago eskola guztietan. Horra hor nola ari diren elizgizonen aurka.

Bere garaian, faxistek esan zuten berrikusi egin behar zirela gobernuak gerra-hornikuntzarako egiten zituen kontratuak, eta gerrako etekinen % 85ek gobernuarentzat izan behar zutela. Baina zer gertatu da egiaz? Parlamentuak sortua zuen batzorde bat gerra-hornikuntzako kontratuak berrikusteko, eta, teorian, batzorde horrek txosten publiko bat aurkeztu behar zion parlamentuari. Hori egiteak, ordea, arrisku larrian jarriko lituzke, ezbairik gabe, industria astuneko ugazaba gehienak, hots, faxismoaren babesle eta ongi-leak; beraz, Mussoliniren lehen erabakietako bat izan zen batzorde horrek berari baino ez erakustea txostenak, eta sei hilabeteko kartzela-zigorra ezartzea horko informazioaren bat argitara ateratzen zuen edonori. Gerra-etekinak bereganatzeari dagokionez, berriz, faxistak isil-isilik geratu dira, eta, aldi berean, onetsi egin dute industria astunari milaka milioi lira ematea askotariko hornigaiak ordaintzeko.

Faxismoak orobat nahi zuen indar armatuak errotik berritzea. Armada iraunkorra abolitzea exijitzen zuen, soldadutza laburtzea, armada gerra imperialistetan aritzeko ez baizik herrialdea defendatzeko erabiltzea, eta abar. Nola bete dute programa hori? Hasteko, armada iraunkorra ez dute abolitu. Nahitaezko soldadutza, berriz, zortzi hilabetekoa izan ordez, hemezortzikoa bihurtu dute, eta, hala, lehen 240 000 gizon zituen armadak 340 000 ditu orain. Egia da *Guardia Regia* delakoa, militariki armatu eta antolaturiko polizia moduko hori, bertan behera utzi dutela. Zergatik ote? Beharbada herritarrek eta bereziki langileek ez zutelako oso begiko, manifestazioetan, grebetan eta halakoetan esku hartu zuelako? Ezta inondik ere: guttiz kontrakoa! Mussoliniri «demokratikoeogia» iruditzen zitzaion guardia hura, Barne Ministerioaren esanetara

zegoelako eta ez Estatu Nagusiaren esanetara, eta beldur zen indar armatu horiek ez ote zuten gatazkaren bat izango bere eskadroiekin eta ez ote zitzaizkion kontra jarriko.

Guardia Regian 35 000 gizon zeuden. Hori konpentsatzeko, orain 90 000 *carabiniere* dira, 65 000 izan ordez. Hori gutxi ez, eta bikoiztu egin dute polizien kopurua, baita detektibeena eta aduana-poliziena ere. Gainera, gobernu faxistak milizia nazional bilakatu ditu «alkandora-beltzen» eskadroiak. Hasieran, kalkuluen arabera, 100 000 bat kide ziren, baina faxistek berriki erabaki dute etorkizunean milioi erdi ere izango direla.

Eskadroietan, ordea, nekazaritza-eremuko monarkiazale ugari sartu ziren, «alkandora-urdin» nazionalistak batez ere, eta horrek dardarka jarriko zuen inondik ere Mussolini, bere diktaduraren aurka altxatuko ote ziren beldur. Mussolinik, ez alferrik, eskadroiak sortu zirenetik bertatik, neurriak hartu zituen «alkandora-urdinak» alderdiaren buruzagitza politikoaren menpe edukitzeko: bere menpe, alegia. Alderdiko zuzendaritzak aukeratutako autoritate nazional goren baten menpe jarri zituen eskadroiak, eta pentsatu zuen helburua betea zuela hala; baina lidergo politiko hark ezin izan zuen eragotzi gatazkak piztea eskadroien barruan, eta, «alkandora-urdin» nazionalistak sartuz geroztik, gatazka haiek larritu baino ez ziren egin. Haien eragina murrizteko, Mussolinik erabaki zuen alderdiko kide oro behartzea milizia nazionalera batzera, alderdian adinako indarra harrezaten milizian ere. Esperantza zeukan horrela politikoki azpiratu ahalko zituela aurre egiten ari zitzaizkion nekazari haiek. Haatik, alderdiko kideak milizian sar-

tzeak larritu egingo ditu barne-gatazkek, eta gero eta larriagoak izango dira, gainbehera eragiteraino.

Indar armatuak, ustez, aberria defendatzeko baino ez zuen jardungo: horixe esan zuten bere garaian. Baina armada gero eta handiago hori eta haren arma ikaragarriak abentura inperialista erraldoietarako prestatuta daude. Artilleria izugarri garatu dute, ofizial-kidegoak ere beste hainbeste handitu, eta itsas armadak laguntza oso berezia du: enkargatuak dituzte gurutzatze, torpedo-suntsitzaile, urpeko ontzi eta halako beste tramankulu ugari. Aire-armada ere modu oso nabarmenean garatzen ari dira: dagoeneko eskatuak dituzte mila hegazkin, eta aerodromo ugari egin dituzte. Berriazko batzorde bat ere osatua dute industria astunari ehunka milioi lira ematea onartzeko, hegazkinik modernoena eta tresna militar hilgarriak ekoizteko.

Italiako faxismoaren programa zein zen eta gero benetan nola bete duten konparatuz gero, gaur egun argi dago: mugimendua, ideologia aldetik, kiebra jota dago. Kontraesan lotsagarria dago faxismoak promesutakoaren eta masei ekarri dienaren artean. Estatu faxista batek nazioaren interesak beste guztiaren gainetik jarriko zituelako berriketa hori guztia, ekiteko garaia heldu denean, hutsean geratu da, xaboi-arpulu bat lehertzen denean bezalaxe. «Nazioa» esaten zutenean, egiaz, «burgesia» esan nahi zuten; eta estatu faxista ideala aipatzen zutenean, berriz, estatu burges arrunt eta eskrupulurik gabeaz ari ziren. Kiebra ideologiko horrek, lehenago edo geroago, kiebra politikora eramango du faxismoa halabeharrez.

Faxismoaren kontraesanak

Eta gero eta gertuago dago egun hori. Faxismoa ez da kapaz ezta baturik mantentzeko ere isil-isilik eta

ongile boterea eskuratu zioten bi korronte burgesak. Faxismoak birjaiotza sozial baterako boterea segurtatu nahi zuen estatuaren kontrola bereganatuz eta haren botere-aparatua bere helburuetarako baliatuz, baina oraindik ez du lortu aparatu burokratikoa guztiz mendeen hartzea. Gatazka bizia piztu da lehengo burokrazia errotuaren eta oraingo funtzionario faxisten artean. Berdin etsaituta daude lehengo armada arrunteko ofizial-kidegoak eta milizia faxistako buruzagi berriak, eta, era berean, gero eta gatazka handiagoa dago faxismoaren eta alderdi burgesen artean.

Mussoliniren plana zen klase-erakunde burges batu bat eratzea, proletario iraultzaileen ifrentzua izango zen alderdi faxista bat sortuz. Horregatik egin zuen halako ahalegina alderdi burges guztiak suntsitu eta xurgatzeko, baina, azkenean, alderdi bakar bat xurgatzea baino ez zuen lortu: nazionalistena.¹⁹ Behin eta berriz esan bezala, alde askotatik geratu da agerian batasun hori bitan banatuta dagoela. Talde burgesak, liberalak, errepublikanoak eta demokratikoak egitura kontserbadore bakar batean elkartzeko saialdiak huts egin zuen zeharo. Faxisten politiken ondorioz, burges demokratetatik oraindik ere zutik geratu direnek gogoeta egin dute beren lehengo ideologiaren inguruan, eta, Mussoliniren botere- eta indarkeria-politikaren kontra, borrokan hasi dira «konstituzioa defendatzeko eta lehengo libertate burgesa berriz ezartzeko».

Faxismoa ez da gai bere botere politikoa finkatu eta errotzeko; horren erakusgarri bereziki argia da Katolikoek Alderdi Popularrarekin duen harremana.²⁰ Alderdi hori da, dudarik gabe, Italiako alderdi burgesen

19 Italiako Elkarte Nazionalista 1923ko martxoan batu zitzaion Mussoliniren Alderdi Faxistari.

20 Italiako Alderdi Popular kristau-demokrataz ari da.

artean handiena eta eraginik zabalena duena, eta Mussolinik uste zuen erraz lortuko zuela horko nekazarien ildo eskuindarra desegin eta hark faxistekin bat egitea; horrela, aldi berean, ildo ezkertiarra ahulduko zuen, eta desegiteko bidean jarri. Baina besterik gertatu zen. Alderdi Popularrekoek Turinen duela gutxi egin zuten kongresuan, zinezko protesta ozen bat nagusitu zen faxismoaren kontra. Alderdiaren ildo eskuindarreko kide batzuk faxismoaren alde eta hura babesteko asmoz aritu ziren, baina isilarazi egin zituzten. Faxisten politikei kritikarik zorrotzenak egin zizkietenak, aldiz, onespenez grinatsuz hartu zituzten.

Gatazka horien atzean —aipatu ditudanen eta beste batzuen atzean—, klase-gatazka dago, eta hori ez du desagerraraziko inolako sermoi edo erakunde pazifistak. Klaseen arteko kontrakotasunak, izan ere, indartsuagoak dira horiek ukatzen dituzten ideologia guztiak baino, eta beti aurkitzen dute adierazpidea, faxismoaren despit, edo, alderantziz, faxismoari esker eta haren aurka. Alderdi Popularrekoen jokabideak argi uzten du hirietako burges txiki asko eta laborari txiki asko daudela jabetuta zer klasetako kideak diren eta nola dauden kapital handiaren ifrentzuan, eta hori zeharo erabakigarria da faxistek Italian duten botererako, edo, hobeto esanda, faxisten gainbehera hurrenerako. Gizarte-geruza horiek, eta geruza horietako emakumeak bereziki, oso katolikoak dira, elizkoiak; horregatik, Mussolinik eginahalak egin ditu Vatikanoa beregana ekartzeko, baina hura, aldi berean, ez da ausartu kontra egitera Alderdi Popularreko laborari-masen altxamendu antifaxistaren lehen urratsei.

Laborari txikiek ikusi dute faxismoak zergak jaisten dizkiela burgesi, zerga-iheserako aukera handiagoak ematen dizkiela, eta kontratu mardulak

eskaintzen. Beraiek, aldiz, gero eta zama handiagoa nabaritzen dute zeharkako zergen ondorioz eta, batik bat, nekazaritzako errentak berriz kalkulatu izanaren ondorioz. Eta beste hainbeste gertatu zaie hiriko burges txikiei: faxismoak, garaile aterata, errentariak babes-teari utzi dio, eta horrek guztiz kontra jarri ditu burges txikiak; izan ere, jabeek berriz ere botere mugagabea dute orain errentak garesti kobratzeko. Faxismoak bere eskuadroien bidez erresistentzia oro deuseztatua uste zuten nekazaritza-eremuetan ere indartsu piztu da laborari txikien eta nekazaritzako langileen matxinada, eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Boscorealen, adibidez, Napolestik gertu, mila laborari pasatxo oldarrean sartu ziren udaletxean zerga hertsagarrien kontra protesta egiteko. Novarako probintziako hiru udalerritan, berriz, nekazariak lehengo soldatak eta lan-baldintzak aldarrikatu zituzten, eta baita lortu ere, zenbait jabetza okupatuta, faxisten eskuadroien laguntzaz. Begi-bistakoa da klase-borrokaren ideia errotzen hasia dela baita faxismoaren lerroetan bertan ere.

Proletarioen esnaldia

Bereziki garrantzitsua da faxismoak horditu eta pozoitu dituen proletario-sektoreak esnatzea. Faxismoa ez da gai langileen interesak defendatzeko burgesiaren kontra, eta ezta egin zituen promesak betetzeko ere, batik bat sindikatu faxistei egin zizkienak. Zenbat eta garaipen handiagoak lortu, erakusten ari da orduan eta gutxiago izan daitekeela proletarioen babesle. Faxismoa ez da kapaz ezta enpresariak behartzeko ere antolakunde komun enbantailen promesei eustera.²¹ Inon langile gutxi batzuk baldin badaude sin-

21 Sindikatu faxistez mintzo da hor: *korporazio* esaten zieten, eta lanaren eta kapitalaren «antolakunde komunak» ziren ustez.

dikatu faxistetan antolaturik, orduan litekeena izango da kapitalistek soldata hobeak pagatzea gutxi horiei; baina inon masa handiak bildurik badaude antolakunde faxistetan, enplegatzaileek ez dituzte aintzakotzat hartuko beren «anaia faxistak», horrek kostu handiegia bailekarkieke. Sosa tartean denean, etekinak tartean direnean, jaun kapitalistak ez ohi dira oso atseginak izaten.

Langile asko eta asko ogibiderik gabe geratu dira, enpresa pribatuetatik ez ezik publikoetatik ere bota baitituzte, eta horrek bereziki eragin dio proletarioen esnaldiari. Faxistek estatu-kolpea jo eta berehala, trenbideetako 17 000 langile kaleratu zituzten; haien atzetik, beste zenbait ere bai, eta kaleratze gehiago ere izango dira aurrerantzean, seguru. Gobernuaren lantegi militarrek ere itxi zituzten: 24 000 langile geratu ziren diru-sarrerarik gabe, eta lantegi pribatuetako esplotazio mugagabearen menpe daude orain.

Hain justu faxistek berek antolatutako langileen artean pizten ari da faxisten politika ekonomikoaren kontrako matxinada sutsu bat. Turinen, Napolin, Triesten, Venezian eta beste hainbat hiritan, sindikatu faxistak izan ziren, salbuespenik gabe, beste alderdi eta antolakunde batzuetako langileei batu zitzaizkien aurrenak —baita langile sindikalistei eta komunistei ere—, fabrikak ixtearen eta langileak kaleratzearen kontrako ekinaldi publiko masibo batean. Gerran zaurituta ezindurik geratutako ehunka eta ehunka lagun, lantegi militarretatik kaleratuak, Napolitik Erromara joan ziren sufritu zuten injustiziagatik protesta egitera. Esperantza zuten Mussolinik bermatuko zizkiela justizia eta babesa, baina horren partez, fede horren ordainetan, atxilotu egin zituzten Erroman trenetik jaitsi orduko. Monfalcone eta Triesteko ontzioletako

langileak, eta udalerrri eta industrialde ugaritakoak —denak ere antolakunde faxistetako kideak— mugitzen hasi dira. Zenbait lekutan, berriz ere ekin diote lantegiak okupatzeari, nor-eta talde faxistetan antolatutako langileak; eta eskuadroiak, gainera, toleratzen edo are babesten ari dira ekinaldi horiek, elkertasunez.

Horrek denak erakusten du kiebra ideologikoak berekin ekarriko duela kiebra politikoa, eta oroz gain langileak hasiko direla berriz ere, luze gabe, beren klase-interesez eta klase-eginkizunaz gogoratzen.

Nork eraitsiko du faxismoa?

Esandako guztitik zenbait ondorio segitzen dira. Lehenik eta behin, ez dugula pentsatu behar faxismoa fenomeno bakan bat dela, granitozko harri puska bat, gure ahalegin guztiak geldiaraziko dituen. Faxismoa kontraesanez betetako egitura bat da, eta barruan ditu indar askotariko batzuk elkarrekin gatazkan daudenak, barne-gainbeherara eta desegitera eramango dutenak. Kementsuago heldu behar diogu borrokari, ez soilik faxisten sarean erori diren proletarioen arimaren alde, baizik eta baita burges txiki eta ertainen, laborari txikien eta intelektualen arimaren alde ere: laburbilduz, gaur egun beren posizio ekonomikoa edo soziala dela-eta kapitalismo handiarekin gatazka gero eta bortitzaigoan dauden geruza sozialen alde.

Dena dela, izugarri arriskutsua litzateke pentsatzea Italiako gainbehera ideologiko eta politikoak kolapso militarra ekarriko duela berehala. Egia da, bai, faxismoaren gainbehera eta kolapso militarra iritsi, iritsiko dela —iritsi beharra du—, baina luze joko du beharbada, eskuragarri dituzten botere-tresnek pisu handia baitute oraindik. Italiako proletarioak faxismotik askatuko dira; gero eta kontzienteago, indartsuago

eta deliberatuago jardungo dute beren interesen alde borrokan, eta berriz ere ekingo diote beren burua askatzeko klase-borroka iraultzaileari, baina, bide horretan, Italiako burkideek eta proletarioek jabetuta egon beharko dute ezen faxismoak, arlo ideologikoan eta politikoan ezerezean geratuko den arren, terrorismo militarrez erasoko diela, inolako erreparorik gabeko indarkeria gupidagabez. Prest egon behar dugu! Munstroak, hil-hurren dela ere, azken kolpe latz batzuk emateko modua egiten du maiz. Horregatik, proletario iraultzaileek, komunistek eta klase-borrokan haiekin batera ari diren sozialistek prest eta armaturik egon behar dute gogor borroka egiteko.

Hanka-sartzea litzateke faxismoaren alderdi historikoa ulertzen dugula pentsatu eta bertan goxo egitea, zain geratzea, geure burua armatzeari eta faxismoa borrokatzeari uko egitea. Bai noski, faxismoa kondenatuta dago barrendik hasita gain behera erori eta desegitera: behin-behinean baino ezin die balio izan burgesei klase-borrokarako; behin-behinean baino ezin du indartu, legez nahiz legez kanpo, estatu burgesak proletarioen aurka darabilen boterea. Baina, hala eta guztiz ere, hondamendia litzateke gainbehera horren begirale buruargi eta finaren rola hartzea. Kontrara, gure betebeharra eta eginkizuna da egin ahalak eginez prozesu hau bultzatzea eta bizkortzea.

Faxismoa Alemanian

Horixe da proletarioen eginkizuna, baina ez soilik Italian, prozesu hau seguruenik lehenago gertatuko den tokian: *Alemanian proletarioen egitekoa ere bada*. Faxismoa nazioarteko fenomeno bat da, denok bat gatoz horretan, eta, orain arte behintzat, Italiaren ondoren, Alemanian lortu du indarririk handiena. Herrialde ho-

rretan, izan ere, hala gerra bukatu den moduak nola iraultzaren porrotak mesede egin diote faxismoaren hazkunderari, eta ulertzekoa da, kontuan hartzen badugu zertan errotuta dagoen faxismoa.

Alemanian, gerrako porrotak, herrialdea berre-raiki beharraren zamak eta Versaillesko Itunak²² guztiz suntsituta utzi dute ekonomia. Estatua goitik behera erori da. Gobernua ahul dago, autoritaterik gabe: jostailu bat da Stinnesen eta haren kideen eskuetan.²³ Nire ustean, buruzagi erreformisten traizioa, jarrera eta jokabidea direla medio, beste ezein herrialdetan ez dago Alemanian bezainbesteko kontrasterik iraultzarako baldintza objektiboki umotuen eta proletarioen heldugabezia subjektiboaren artean. Beste inon ez zen sozialdemokrazia Alemanian bezain lotsagarriro gain behera etorri gerra piztu zenean. Alemanian, industria kapitalista izugarri garatuta zegoen, eta proletarioak harro egoteko moduan zeuden beren antolamendu sendoaz eta eskola marxista aspaldikoaz. Britainia Handiko, Frantziako eta Austriako alderdi sozialdemokratek eta Bigarren Internazionalen batutako proletario-erakundeek bazituzten beren indarguneak, hori aitortu beharra dago, baina alderdi liderra, besteek eredu zuten alderdia, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata zen. Haren hondoraldia, beraz, beste langile-alderdi batzuen hondoraldia baino krimen barkaezin eta lotsagarriagoa izan da. Zuribide gehiago daude gerra piztean beste alderdiak erori izana

22 Indar aliatuek eta Alemaniak sinatu zuten Versaillesko Bake Ituna, 1919ko ekainaren 28an; haren bidez, beste gauza batzuen artean, ebatzi zuten Frantziaren, Belgikaren, Danimarkaren eta Poloniaren mende geratuko zela Alemaniako lurraldearen % 10, eta Alemaniak 33 bilioi dolar pagatu beharko zizkiela Ententeko indarrei, kalte-ordain gisa —461 bilioi dolar lirareke 2016an—.

23 Hugo Stinnes Alemaniako kapitalista gailenetako bat zen, inperio ekonomikoa zabal eta dibertsifikatua zuena.

justifikatu edo barkatzeko, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata erori izana justifikatu edo barkatzeko baino. Zartada hark modu bereziki gogor eta suntsigarrian eragin zien proletarioei. Ententearen inperialismoak Alemaniaren inperialismoa militarki deuseztatu zuen garaian, Alemaniako egoera bereziki zen mesedegarria faxismoa ziztuan erna zedin.

Nolanahi dela, sinetsita nago ez Versaillesko Itunak eta ez Ruhrreko eskualdearen okupazioak²⁴ —bere indarkeria guztiarekin ere— ez dutela Mussoliniren estatutatu-kolpeak adina sustatu faxismoa Alemanian. Beste ezein pizgarri baino handiagoa izan zen estatu-kolpe hura faxista alemanentzat: konfiantza eman zien, eta irabaziko zutelako uste sendoa. Aitzitik, Italiako faxismoa garaitua eta suntsitua izango balitz, horrek izugarri adoregabetuko lituzke berehala Alemaniako faxistak, eta ikaragarri adoretu, aldiz, proletarioak; are gehiago proletarioek modua balute pentsatzeko faxismoa garaile atera zela Italian eta boterearen gailurrean egon zela bolada batean, baina desagertua dela orain, ez soilik bere barne-kontraesanek halabeharrez zartatu behar zutelako, baizik eta baita hango proletarioek indarrez eta erabakimenez kontra egin ziotelako ere. Ikuspegi hori nazioartean hedatuko litzateke, zeinahi izanik ere herrialde bakoitzaren egoera.

Hortaz, gure betebeharra da nazioartean buru-belarri lan egitea Italian faxismoa garaitzeko. Ahalegin horretan, ordea, ez dugu ahaztu behar beste zerbait ere nahitaezkoa dela faxismoa atzerrian arrakastaz garaitzeko: geure herrialdean bertan ere borrokatu behar

24 1923ko urtarrilaren 11n, Frantziaren eta Belgikaren 60 000 soldaduk Alemaniako Ruhr eskualdea inbaditu eta okupatu zuten —hots, herrialde hartako altzairu- eta ikatz-produkzioegune nagusia—, kalte-ordain bat exijitu nahian, Alemaniak Versaillesko Itunaren arabera ordaindu beharrekoa ordaindu ez ziela eta.

dugu faxismo antolatua, indar betez, eta hura zeharo azpiratu.

Orain arte, Italian faxismoa nola garatu den azaldu dut nahiko xehe —nahiz eta ez noski behar bezain zabal—, begien aurrean dugulako umoturik, argi zehazturik eta oso-osorik. Kamarada italiarrek osatuko dituzte nik esandakoak. Ez dut deskribatuko zertan den faxismoa beste herrialde batzuetan; gure alderdiak herrialde horietan dituen ordezkariak dagokie hori esplikatzea.

Faxismoaren erakargarritasunari buru eginez

Aurkeztu dudan ebazpenean, azaldu dut zer baliabide erabili behar ditugun, zer eginkizun bete behar ditugun faxismoari nagusituko bagatzaizkio. Ez dut emango xehetasun gehiago: uste dut aski argi dagoela bere hartan. Besterik gabe, nabarmendu nahi dut eginbehar horiek bi ildotakoak direla. Batzuk faxismoa ideologikoki eta politikoki garaitzeko dira. Izugarri garrantzitsua da hori, eta, helburua betetzeko, hein batean egokitu edo zehaztu beharra dugu faxismoaren fenomeno sozial bereizgarri eta funtsezko batzuen gainean dugun ikuspegia, eta oso bizi ekin behar diogu. Jabetuta egon behar dugu ezen, hasieran esan dudan bezala, gosetuen mugimendu bat dela faxismoa, behartsuena, existentzia galarazia dutenena eta desengainatuena. Saiatu behar dugu orain faxismora lerratzen ari diren geruza sozialak gure borrokara ekartzen, edo gutxienez borroka horretan neutral bihurtzen. Erabateko argitasunez eta indarrez eragotzi behar dugu kontrairaultza burgesaren alde jardun dezaten. Eta ez badugu lortzen geruza horiek gure alderdira eta idealetara erakartzea eta proletario-armada iraultzaileen lerroetan jardutea, neutralizatu behintzat egin beharko ditugu,

antzutu, edo nahi duzuen bezala esan. Ezin dira guretzat mehatxu izan burgesiaren aldeko borrokalari gisa. Eta burgesiaren klase-menperakuntzak historiaren bilakabidearen fase honetan inposatzen dizkien bizibaldintzek berek bide ematen diote gure helburuari.

Uste dut zeharo dela inportantea guk esparru ideologikoan eta politikoan erabakimenez eta irmo borrokatzea geruza horietako herritarren alde, intelektual burgesak barne. Ulertu beharra dugu ez bairik gabe gero eta masa zabalagoak dabiltzala gure garaiko sufri-mendu lazgarritik ihes egin nahian. Eta hor kontua ez da tripa betetzea bakarrik, ez: haietan onenak atsekabe espiritual sakon bati ihes egin nahian dabilta. Esperantza berri eta sendo baten irrikaz daude, ideal berri eta irmo batzuen irrikaz, eta natura, gizartea eta beren bizitza ulertzen lagunduko dien mundu-ikuskeraren baten grinaz: mundu-ikuskeraren bat ez dena izango formula antzu bat, baizik sortzailea, eraikitzailea. Ez dugu ahaztu behar faxista-talde biolento horiek ez daudela osatuta, soil-soilik, gerrako gaizkilez, *landsknecht* terrorezalez, lunpen ustelez; hizpide ditugun maila sozial horietako kiderik kementsuenak ere badaude haien artean, garatzeko ahalmenik handiena dutenak hain justu. Serio aritu behar dugu, haien egoerarekin eta irrika sutsuarekin ulerbera. Haiekin batera lan egin behar dugu, eta erakutsi badela soluzio bat ez daramana atzera, baizik eta aurrera, komunismora. Horrela, komunismoak mundu-ikuskeraren gisa duen gailentasunari esker, aldeko jarriko zaizkigu.

Hurbildu masengana!

Bigarren Internazionalaz bestera, Hirugarrena ez da Europako eta Amerikako proletario zurien elitearentzako Internazional bat: arraza guztietako

esplotatuentzako Internazional bat da. Hortaz, herrialde bakoitzeko Alderdi Komunistak ez du soilik izan behar soldatapeko langileen aldeko borrokalari abangoardiakoa —zentzu hertsian—, ez soilik eskulanean dabiltzan proletarioen interesen aldeztaila, baizik eta baita langile intelektualen aldezkaria ere, hots, kultura gorarazteko beren irrika eta beren bizi-interesak direla-eta gero eta gehiago ordena kapitalistaren kontrakarrean doazen geruza sozialen liderra. Horregatik, zinez ongietorri egiten diot gure bilkurak hartu duen erabakiari, langileen eta laborarien gobernu baten alde borrokatzeko erabakiari. Kontsigna berri hori, ezbairik gabe, ezinbestekoa da oro har nekazari-lurralde diren Balkanetako herrialdeetan, Bulgarian, Errumanian eta abarretan, baina orobat da izugarri garrantzitsua Italian, Frantzian, Alemanian eta, bereziki, Estatu Batuetan. Funtsezkoa da faxismoa garaitzeko borrokarako. Exijitzen du guk komunismo askatzailearen berri alaia eramatea laborari-ekoizleen eta nekazaritzako langile esplotatuen gehiengo zabalari. Exijitzen du faxismoak ezin konta ahal jarraitzaile bereganatzeko darabiltzan geruza sozial guztietakoei erakustea ezen guk, komunistok, haien interesak defendatzen ditugula klase burgesaren aginpidearen kontra bizi-bizi ekinez.

Eta badugu beste zeregin bat ere. Masekin batera eta masentzat borrokatu behar dugu, baina ez soilik gure programa politiko eta ekonomikoagatik. Egia da eskari politiko eta ekonomikoek lehentasuna dutela halabeharrez, baina nola eskaini diezaiekegu masei ogia segurtatua izatea bat baino zerbait gehiago? Komunismoak mundu-ikuskerara gisa duen barne-funts noblea ere eskaini behar diegu, oso-osorik. Hala eginez gero, gure mugimendua estratu sozial guztietan erro-

tuko da, eta, batik bat, intelektual burgesen artean, zeinak, azkenaldiko gertakizun historikoen eraginez, jada ez dauden seguru beren pentsamoldeaz: lehen-go mundu-ikuskerari uko egin nahi bai, baina, garai hauetako nahasmenean, ezin inon aurkitu bestelako ikuskera sendorik. Ez dezagun utz bila ari diren horiek okerbidera lerra daitezen.

Pentsamolde horrekin bat, «Hurbildu masengana!» diot, eta, hori esanda, arrakasta izateko ezinbesteko baldintza bat nabarmendu nahi dut. Ez ditugu ahaztu behar Goetheren esanak: «*Getretener Quark wird breit, nicht stark*». ²⁵ Gure ideologia komunistari eutsi behar diogu, argi eta tinko. Zenbat eta gehiago hurbildu masengana, orduan eta nahitaezkoagoa izango da Alderdi Komunistak bat eginda eustea antolamendu eta ideologia aldetik. Ezin dugu geure burua suelto barreiatu masen artean. Horrek oportunitate guztiz kaltegarria lekarke, eta porrot egingo genuke, modu umiliagarrian porrot egin ere, masen aldeko ahalegin horretan. Masek «ulertzen ez dutela-eta» kontzesioak egiten hasten bagara —masa zaharrez eta berriez ari naiz, biez—, alderdi gisa dugun benetako bokazioa galduko dugu, bila ari diren horientzat garrantzizkoena dena galduko dugu, elkarrengana lotzen dituen hori: bizimodu historiko berri baten sugarra, argi egiten duena eta bero ematen, esperantza dakarrena eta borrokarako kemena.

Zera egin behar dugu: hala gure asaldura- eta propaganda-metodoak nola gure literatura eginkizun berri horietara egokitu. Mendia Mahomarengana ez

25 Hitzez hitz, «Gaztanbera, zapalduz gero, ez da gogortzen, baizik zabaltzen». Goetheren *West-östlicher Divan* obratik aterea. Hurrengo lerroetan ulertzen da zer esan nahi zuen Goethek: «Kolpez kolpe, sartu indarrez molde gogor batean, eta forma hartuko du orduan: adreilu sendo baten forma».

badator, Mahomak joan behar mendira. Alegia, erakarri behar ditugun masa berriak ez badatozkigu, guk aurkitu beharko ditugu, eta haien hizkuntzan hitz egin beharko diegu. Hizkuntza horrek bat etorri beharko du noski haien ikuskerarekin, baina gure ikuspegi komunista ezertxotan ere baztertu gabe. Literatura berezi bat behar dugu nekazariengan eragiteko, literatura berezi bat funtzionarioentzat, enplegatuentzat eta orotariko burges txiki eta ertainentzat, eta baita intelektualengan eragiteko literatura bat ere. Ez dezagun gutxietsi intelektualek zer egin dezaketen iraultzan ez ezik iraultzaren ostean ere. Gogoan hartu zeinen sabotaje kaltegarria egin zuten Errusiako intelektualek [1917ko] urriko iraultzaren ondoren. Gure anaia errusiarrei gertatutakotik ikasi nahi dugu. Horrexegatik ulertu behar dugu zeharo erabakigarria dela intelektualak gure alde dauden ala gure kontra, bai iraultzan bertan eta bai haren ondotik ere.

Langileen autodefentsa eta batasun-frontea

Faxismoaren aurkako borrokak, hortaz, ezin konta ahal eginkizun berri dakartzkigu. Internazional Komunistaren atal bakoi-bakoitzak betebeharra du eginkizun horiei heldu eta bere herrialdeko baldintza jakinetara egokitzeko. Jabetuta egon behar dugu faxismoa ideologikoki eta politikoki garaitzea bere hartan ez dela nahikoa borrokan ari den proletariotza hori etsaiaren indarkeriatik eta gaiztakeriatik babesteko.

Proletarioak, oraintxe, faxismoaren kontra autodefentsa baliatzeko premia gorrian daude; une oro kontu egin behar zaio faxismoaren terrorearen aurkako autobabes horri, autodefentsa horri. Jokoan daude proletarioen gorputza eta bizitza bera; jokoan dago haien erakundeen iraupena. Proletarioek beren burua

babestea ezinbestekoa da oraintxe. Faxismoari, izan ere, ez diogu aurre egin behar Italian erreformistek aurre egin dioten bezala, hots, faxistei eskatuz: «Utzi ni bakean, eta nik ere bakean utziko zaitut». Ez! Kontra-koa behar du guztiz: indarkeriari indarkeriaz erantzun! Baina ez terrore indibidualaren indarkeriaz, horrek huts egingo baitu seguru. Indarkeria bai, baina proletarioen klase-borroka iraultzaile antolatuaeren botere gisa erabilia.

Alemanian, abiatuak gara langile-klaseak bere burua faxismotik babesteko bidean, langile-tropak eratu.²⁶ Talde horiek hedatu eta beste herrialde batzuetan haien antzekoak eratzten badira, faxismoari gaina hartuko zaio nazioartean.

Proletarioek beren burua faxismotik defendatu eta haren aurka borrokatzeko, ordea, ezinbestekoa da batasun-fronte bat eratzea. Izan ere, fabrika bateko langile batekin topo eginez gero, faxistak ez dira galdezka hasten zer kolore dituen gustuko: Bavariako zuri-urdirak, ala errepublika burgeseko beltza, gorria eta urrea, ala bandera gorriko mailu-igitaiak. Ez dira galdezka hasten ea langile horrek [Bavariako] wittelsbachtarren dinastia berrezartzea nahi duen, edo ea Eberten jarraitzaile sutsua den [Friedrich Ebert SPDko buruzagi eta Alemaniako presidentea], edo ea nahiago lukeen gure lagun Brandler ikusi Alemaniako Sobietar Errepublikako presidente gisa. Faxistei gauza baka-

26 *Proletarische Hundertschaften* delakoez ari da —inoiz zenturia proletario ere esan izan zaie—. Langileen miliziak ziren, beren burua eskuineko paramilitarren eraso eta erailketen mehatxuaren aurka defendatzeko erabiltzen zituztenak. 1923ko otsailean antolatu zituzten lehen aldiz, Erdialdeko Alemanian, langile-batzordeen mugimenduaren ekimenez. Alemaniako Alderdi Komunistak batasun-fronte nazionalerako mugimendu bilakatu nahi zituen, botere iraultzailea eskuratzeko borrokan ere baliatu ahal izateko asmoz. 1923ko maiatzerako, dozenaka mila langile zeuden talde haietan antolatuta.

rra axola zaie: klase-kontzientzia duen proletario bat aurkitzen badute, hura txiki-txiki egitea. Horrexegatik bat egin behar dute langileek borrokan, kontuan hartu gabe zer alderditara edo zer sindikatutara afiliatuta dauden.

Eta proletarioek batasun-fronte bat osatzeko eta sendotzeko indar handienetako bat faxismoaren kontrako autodefentsa da. Batasun-fronterik ezean, proletarioek ezinezkoa dute autodefentsan behar bezala aritzea. Horregatik, nahitaezkoa da gure mugimendua fabriketara hedatzea eta han errotzea. Oroz gain, gure ahaleginek gaina hartu behar diete langileen indiferentziari eta klase-kontzientzia eta -elkartasun faltari, langileek zera pentsatu ohi baitute maiz: «Borrokatu eta mugitu daitezela bestea; ez da nire kontua». Bada, proletario bakoitza konbentzitu beharra dugu kontrakoa dela: «Bai, bada nire kontua. Hor egon behar dut. Gertu dugu garaipena».

Proletario guzti-guztiek sentitu behar dute zer-bait gehiago direla soldatapeko esklabo hutsak baino, kapitalismoaren eta autoritateen ekaitz-erauntsien mende dauden jostailuak baino. Klase iraultzaile baten parte direla sentitu eta ulertu behar dute: klase iraultzaile bat jabetzadunen estatu zaharra berregingo duena, eta estatu sobietar bihurtu. Langile guztiengan hala klase-kontzientzia iraultzailea nola klase-erabakimenaren sugarra pizten dugunean, orduan baino ezingo dugu benetan prestatu eta erdietsi faxismoaren kontrako garaipen militar ezinbestekoa. Zein ere bortitz erasotzen dien bolada batean munduko kapitalak munduko proletarioei, zein ere gogorra den haren amorrua, proletarioek borroka egingo dute, eta garai-penerako bidea urratu azkenean. Ikusten ari garen bezala, faxismoa gorabehera, ekonomia kapitalista,

estatu burgesa eta haien klase-aginpidea beren muga-
mugara iristen ari dira. Faxismoaren gainbeheraren
eta gizarte burgesarren desgitearen seinaleak ozen eta
zorrotz adierazten ari zaizkigu hurbil dagoela garaipe-
na, baldin eta proletarioak jakinduriaz eta borondate
onez borrokatzen badira batasun-fronte batean. Hala-
xe behar du!

Gaur egungo kaosaren gainetik, altxatu egin-
go da proletarioen figura erraldoia, aldarriz: «Ni naiz
borondatea! Ni naiz boterea! Ni naiz borroka eta ni ga-
raipena! Nirea da etorkizuna!».

BI

FAXISMOAREN GAINEKO EBAZPENA²⁷

Faxismoa garai honen gainbeheraren sintoma bat da, ekonomia kapitalistaren eta estatu burgesaren desegitearen adierazpide bat.

Faxismoaren erroan, oroz gain, gerra inperialistaren eragina dago, eta gerra horren ondorioz ekonomia kapitalista gero eta gehiago eta lasterrago deuseztatu izana burges txiki eta ertainen, laborari txikien eta intelektualen geruza zabaletan. Prozesu hark esperantza desegin zien, ordura arte izan zituzten bi-zi-baldintzak eta segurtasuna suntsituz. Geruza sozial horietako asko, gainera, desengainua hartuta daude, ez baitute inolako itxaropenik sozialismo erreformistak gizartearen erroa hobetuko duenik.

Alderdi erreformistek eta sindikatu-erakundeak buruek iraultzari traizio egin zioten, kapitalismoari amore emanda, eta koalizio bat osatu zuten burgesiarekin, lehengo klase-agingpidea eta klase-esplotazioa berriz

²⁷ Ebazpen hau, Zetkinek idatzia, 1923ko ekainaren 23an onartu zuen Internazional Komunistako Batzorde Exekutiboko III. Osoko Bilkura Zabalak.

ezartzeko. Eta hori dena, «demokraziaren» izenean. Hala, proletarioen «aldeztaille» horiek orain auzitan jartzen dute sozialismoa bera, baita askapenerako eta gizartea berritzeko duen ahalmena ere. Borrokatzeko beldurrez eta borondatea ahul, Sobietar Batasuneko proletarioek ez beste gehienek toleratu egin zuten traizio hura, esplotazioari eta esklabotzari ameto eginda. Horren ondorioz, burges txiki eta ertainen eta intelektualen artean asaldatuta zebiltzanek ere utzi egin zioten sinesteari langile-klasea eragile boteretsua izan zitekeenik errotiko aldaketa sozial baterako. Eta beste hainbeste gertatu zitzairen ekin nahian eta ekintza eskean ari diren indar proletario askori ere, alderdi politiko bakar baten jokabidearekin ere pozik ez. Gainera, faxismoak beregana erakarri zuen lehengo funtzionarioen geruza soziala ere, gerra bukatzean lanik gabe geratu zirenean; orain, diru-sarrerarik gabe, ilusioa galduta daude, deserrotuta, beren klase-sustraietatik erauzita. Erdialdeko potentzia porrot eginetan gertatu da hori bereziki [Alemanian eta Austria-Hungarian], non faxismoak kutsu antirrepublikano nabarmena baitu.

Historia ulertzen ez dutenez, eta heziera politikorik ere ez daukatenez, talde faxista biolentoek —zeinak talde sozial askotarikoak juntatuta osatu baitziren, korrika eta presaka— espero dute dena bere lekuan jarriko duela estatuak, berek sortu eta tresna gisa baliatzen duten estatu horrek. Ustez klaseen eta alderdien gainetik egonik, estatuak haien programa nahasi eta kontraesanek jositako betearazi behar du, legedi burgesarekin bat eginez nahiz hura urratuz, eta zernahi baliatuz: dela «demokrazia», dela diktadore bat.

Proletarioak iraultzarako mugitu eta altxatu ziren garaian, faxismoa haien eskari iraultzaileetara *arriatu* zen, nolabait ere.

Hala, jarraitzaile faxistak zalantzan ibili ziren armada baten edo bestearen alde jarri, munduan eta historian nagusi izan diren klase-antagonismoak eta -borrokak ordezkatzeko zituzten bi armada haien artean. Aurrerago, ordea, berriz ere aginte kapitalista ezarri zenean eta burgesek beren eraso orokorrari ekin ziotenean, faxismoa tinko lerratu zen burgesiaren alde, eta buruzagiek hasiera-hasieratik eutsi zioten konpromiso horri.

Proletarioak garaitu eta behin betiko esklabo bihurtzeko borrokan, burgesiak berehala errekrutatu zuen faxismoa, bere zerbitzuan eduki eta hartaz baliatzeko. Ekonomia kapitalista gero eta gehiago eta sakonago dislokatu denez denborarekin, gero eta onartezinagoak bihurtu dira horrek proletarioei ekarri dizkien zamak eta sufrimenduak ere. Era berean, erreformistek, bake zibilaren eta klaseen elkarlan demokratikoaren inguruko sermoiak botaz, langileen presiotik babestu dute burgesen ordena, baina babes horrek eraginkorra izateari utzi dio. Burgesiak indarkeria behar du bere burua langile-klasetik defendatzeko, baina estatu burgesak lehen zeukan errepresio-aparatu itxuraz «apolitikoak» jadanik ez dio behar adina segurtatzen indarkeria horretaz baliatu ahal izatea. Hori ikusita, burgesiak urratsa egin du, eta proletarioen aurka klase-borrokan aritzeko talde berezi batzuk eratu: hain justu faxismoak eman dizkio tropa horiek. Nahiz eta faxismoak barnean dituen bere jatorriarekin eta hura sostengatzen duten indarrekin lotuta dauden korrante iraultzaile batzuk —kapitalismoaren eta haren estatuaren kontra bihur daitezkeen korrante batzuk,

hain zuzen—, bere bilakabideak kontrairaultzarako indar arriskutsu bihurtzera darama. Hori argi geratu da faxismoa garaile atera den herrialdean: Italian.

Faxismoak, ezbairik gabe, ezaugarri jakin batzuk ditu herrialde bakoitzean, tokian tokiko inguruabar historikoen arabera; baina, leku guztietan, muinean uztarturik dauzka indarkeria terrorista bortitz bat eta fraseologia iraultzaile engainagarri bat, eta, hala, demagogiaz, bat egiten du produkzioan aritzen diren masa zabalaren beharrek eta aldartearekin. Gaur arte, Italian garatu da gehien. Herrialde hartan, Alderdi Sozialistaren eta sindikatu-buru erreformisten pasibotasunak ireki zion atea faxismoari; gero, haren hizkera iraultzaileak indar proletario askoren babesa erakarri zuen, eta indar haiexek ahalbidetu zuten faxismoa garaile ateratzea.

Italian faxismoa horrela garatu izanak argi erakusten du nola alderdia eta sindikatuak ez ziren kapaz izan langileek 1920an fabrikak okupatu izana baliatzeko eta proletarioen klase-borroka suspertzeko. Faxisten garaipenak indarkeriaz oztopatzen du langileen edozein mugimendu, baita soldata hobetzeko egin izan diren eskari soil eta apolitikoak ere. Faxistek Italian lortutako garaipena, gainera, akuilua izan da beste herrialde batzuetako burgesiarentzat, proletarioak molde berean azpiratuta edukitzeko. Alegia, Italiako anaien patua mehatxu da mundu guztiko langile-klasearentzat.

Hala eta guztiz ere, faxismoak Italian izan duen bilakabideak beste zerbait ere utzi du agerian: kontraesanek betea dagoela, eta barnean elementu sendo batzuk dituela bere dislokazio eta desegite ideologiko eta politikoaren erakusgarri direnak. Haren helburua da lehengo estatu burges «demokratikoa» berregin eta

indarkerian oinarritutako estatu faxista bat sortzea, baina, hor, gatazkak sortzen dira lehengo burokrazia-
ren eta burokrazia faxista berriaren artean; armada
iraunkorreko ofizial-kidegoen eta milizia berrietako
buruzagien artean; faxistek ekonomian eta estatuan
ezarritako politika biolentoen eta oraindik hor dirau-
ten burges liberal eta demokrata batzuen ideologiaren
artean; monarkikoen eta errepublikanoen artean; be-
netako faxisten —alkandora-beltzen— eta alderdirako
eta haren miliziarako errekrutatutako nazionalisten
artean; faxisten jatorrizko programaren —masak en-
gainatuz garaipena lortu zuen programa haren— eta
faxisten gaur egungo politiken artean —zeinek in-
dustriako kapitalisten interesen alde egiten baitute,
industria astunekoan alde bereziki, hura modu artifi-
zialean sustatuz—.

Gatazka horien eta beste zenbaiten atzean,
ordea, geruza sozial kapitalisten arteko gatazka eko-
nomiko eta sozial gaindiezin eta konponezinak daude:
alde batetik, burgesia handia, eta, bestetik, burgesia
txikia eta ertaina —intelektualak eta laborari txikiak,
besteak beste—. Eta, oroz gain, gatazka ekonomiko eta
sozial guztietan gatazkena dago: burgesiaren eta prole-
tariotzaren arteko klase-gatazka.

Faxismoaren kiebra ideologikoak azalera ekarri
ditu gatazka horiek, faxistak ez direlako betetzen ari
beren programan ezarria zutena. Talde armatu anto-
latuek eta haien terrore eskrupulurik gabeak balioko
dute, beharbada, halako gatazkak behin-behinean
atzeratzeko, baina, azkenean, desadostasun horiek in-
dar armatuetan aurkituko dute adierazpidea, faxismoa
zaitzteraino.

Proletarioen abangoardia iraultzailea ezin da
egonean geratu faxismoa nola desegiten den begira.

Haren eginkizun historikoa, kontrara, prozesu hori ohartuki eta aktiboki azkartu eta sustatzea da. Faxismoaren barruan, izan ere, badira indar batzuk nora jo ez dakitenak eta ohartu gabe ere iraultzaileak direnak, eta horiek denak proletarioen klase-borrokara bideratu behar dira, burgesiaren klase-autoritatearen eta esplotazio biolentoaren kontra egin dezaten. Faxismoaren aurkako garaipen militarra prestatzeko, hura ideologikoki eta politikoki gainditu beharra dago.

Langile-klasearen abangoardia ohartuki iraultzaileak, beraz, betebeharra du hala Italian gailendu den faxismoa nola munduan hazten ari dena borrokatzeko. Faxismoa desarmatu eta gainditu behar du arlo politikoan, eta langileak antolatu behar ditu autodefentsa sendo eta oparoan jardun daitezkeen faxismoaren ekinaldi biolentoen kontra. Horretarako, eginkizun hauek proposatzen dira:

I

Herrialde bakoitzean egitura berezi bat sortu behar da, ikuspegi orotako langile-alderdiz eta -erakundez osatua, faxismoaren kontrako borroka gidatzeko. Hona hemen egitura horren eginkizunak:

1. Herrialde bakoitzeko mugimendu faxistaren inguruko informazioa biltzea.
2. Langile-klasea modu sistematikoan heztea mugimendu faxistaren klase-etsaitasunaren inguruan, prentsa-artikuluaren, panfletoen, posterren, batzarren eta abarren bitartez.
3. Proletario bihurtu berri direnei eta proletario bihurtzeko arriskuan daudenei modu sistematikoan irakastea zein den beren kondizioa eta nola laguntzen dion faxismoak kapitalismo handiari.

4. Langile-klasearen defentsa-borrokak antolatzea autodefentsa-taldeak eratuz eta armatuz. Kontuan harturik faxistek gazteengan ardaztu dutela beren propaganda eta gazte langileak batasun-frontera ekarri behar direla, hamazazpi urtetik gorako gazteak fabriketako borroka-talde arruntetarako errekrutatu behar dira. Langileen kontrol-batzordeak ere antolatu behar dira talde faxisten eta haien armen garrarioa eragozteko. Errukirik gabe zapaldu behar dira faxistek langileak laborritzeko eta haien klase-ekinaldiak oztopatzeko egiten dituzten saiakerak.
5. Ikuskera orotako langileak erakarri behar dira borroka honetara. Langileen alderdi eta sindikatu guztiak eta proletarioen erakunde masibo guztiak deitu behar dira faxismoaren kontrako defentsa bateratura.
6. Faxismoaren aurka egin beharra dago hala parlamentuan nola instituzio publiko guztietan. Irmo azpimarratu behar da faxismoa inperialista eta guztiz chauvinista dela berez, eta horrek areagotu egiten duela nazioarteko gerrak pizteko arriskua.

II

Indar faxistak nazioartean antolatzen ari dira, eta, beraz, faxismoaren kontrako langile-borroka ere mundu osoan antolatu beharra dago. Horretarako, ezinbestekoa da nazioarteko langile-batzorde bat sortzea. Haren eginkizuna izango da leku bakoitzeko esperientzien berri ematea elkarri eta nazioarteko ekinaldiak antolatzea, bereziki Italiako faxismoaren eta

hark kanpoan dituen ordezkarien kontra. Borroka horretan, neurri hauek hartu beharko dira:

1. Nazioarteko heziketa-kanpaina bat abiatu, egunkarietan artikulatuak argitaratuz, panfletoak eta posterrak ateraz eta mitin masiboak antolatuz, azaltzeko Italiako faxisten buruzagitza langileen etsai porrokatua dela eta modu sistematikoan suntsitzen ari dela langileen erakunde eta instituzio guztiak.
2. Nazioartean mitin eta manifestazio masiboak antolatu faxismoaren eta Italiako faxismoak kanpoan dituen ordezkarien kontra.
3. Parlamentuan borrokatu. Exijitu parlamentuak, haren barruko langile-sektoreek eta nazioarteko langile-erakundeek zenbait batzorde bidal ditzatela Italiara, hango langile-klasea zer baldintzatan dagoen ikertzeko.
4. Borroka egin berehala aske utz ditzaten atxilotuta edo preso dauzkaten komunistak, sozialistak eta alderdi jakin bakar batekoak ere ez diren langileak.
5. Nazioarteko boikot bat antolatu langile guztiek Italiaren kontra egin dezaten. Uko egin Italiara ikatza bidaltzeari. Garraio-langile guztiek uko egin beharko diote Italiara doazen eta Italiatik datozen produktuak kargatzeari eta ontziratzeari, eta abar. Horretarako, meatzarien, itsasgizonen, trenbideko langileen eta arlo guztietako garraio-langileen batzorde internazional bat sortu.
6. Italiako langile jazarriei laguntza materiala eta morala eman, dirua bilduz, iheslariei bizitokia emanaz, kanpoan lan-kontuetan lagunduz eta abar. Horretarako, Nazioarteko Sorospen Gorria

hedatu.²⁸ Laguntza-lan horretan langileen kooperatibak ere sartu.

Langileei ohartarazi behar zaie Italiako langile-klasearen patua beraiena ere izango dela ez baldin badute klase-kontzientzia apalagoko indarren eragina geldiarazten agintean den klasearen kontrako borroka iraultzaile kementsuan engaiatuz. Langileen erakundeek, beraz, indar handia erakutsi behar dute kapitalismoari erasotzeko orduan, produkzioan dabiltzan masa zabalak esplotaziotik, zapalketatik eta lukurreriatik babesteko. Horrela, borroka masibo antolatu eta serio bat jarriko dute faxismoaren lelo sasi-iraultzaile eta demagogikoen aurrez aurre. Horrez gainera, norbere herrialdean faxismoa antolatzeko egiten diren lehen saialdiak ere porrokatu behar dituzte langileen erakundeek, gogoan izanik faxismoari hala Italian nola nazioartean aurre egiteko modurik onena dela norberaren herrialdean bertan sutsu borrokatzea haren kontra.

28 Nazioarteko Sorospen Gorria 1922aren bukaeran eratu zuen Kominternek, eta mundu osoko klase- eta gerra-presok defendatzen zituen. Clara Zetkin izan zuen presidente 1925etik aurrera.

HIRU

FAXISMOAREN KONTRAKO FRANKFURTEKO KONFERENTZIA

Sar-hitza

1923ko martxoaren 17tik 20ra, faxismoaren eta gerraren kontrako nazioarteko konferentzia bat egin zuten Frankfurt am Mainen, Alemanian. Frantziako eta Belgikako tropek Ruhr inbaditu eta okupatu berri zuten, 1923ko urtarrilean.

Renania-Westfaliako fabriketako batzordeek egin zuten lehen urratsa, langile-erakunde guztiei parte hartzeko deia eginda, eta Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboak berehala onartu zuen gonbita.

250 bat ordezkari bildu ziren: besteak beste, Alemaniakoak, Frantziakoak, Italiakoak, Britainia Handikoak, Sobietar Errusiakoak, Herbehereetakoak, Txekoslovakiakoak, Poloniakoak, Austriakoak, Bulgariakoak, Indiakoak eta Suitzakoak. Batasun-fronte bat osatzeko saialditzat hartu zuten, alderdi komunista zenbaitetako ordezkariak ere joan ziren, baita sindikatu eta langile-organizazio batzuetakoak ere. Nahiz eta SPD Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako eta USPD

Alderdi Sozialdemokrata Independenteko buruzagiek uko egin zioten parte hartzeari, alderdi horien tokiko talde batzuen delegatuak bai, joan ziren konferentzia-
ra. Orobat bildu ziren han Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren, Gazte Komunisten Internazionalaren eta Sindikatuen Internazional Gorriaren zenbait ordezkari.

Konferentzian, eginkizun nabarmena izan zuen Faxismoa Borrokatzeko Behin-behineko Batzorde Internazionalak. 1923ko urtarrilean sortu zen, Kominternen ekimenez, eta munduko proletarioak deitu zituen faxismoaren kontra baturik ekitera. Bigarren Internazionalari, Munduko Federazio Sindikal sozialdemokratari eta talde sindikalistei eskaria egin zien ahalegin hartara batu zitezten. Zetkin zen behin-behineko batzorde hartako presidentea, eta, horregatik, funtsezko rola izan zuen Frankfurteko konferentzian; hark idatzi zuen faxismoaren kontrako borrokari buruzko txosten nagusia.

Batzarraren bukaeran, Frankfurteko konferentziak 21 kide hautatu zituen Gerraren eta Faxismoaren Kontra Ekiteko Nazioarteko Batzorderako, eta Zetkin bera eta Henri Barbusse idazle eta komunista frantziarra izendatu zituzten buru.

Segidan datorrena Zetkinen konferentziarako egindako txostenaren laburpen bat da, garai hartan Kominternen prentsan argitaratua eta gero Maialen Berasategik itzulia. Txostenaren amaieran, faxismoa borrokatzeko onartu zuten ebazpena dago.

Faxismoari buruzko txostena

Ruhrren okupazioak faxisten mehatxua hauspotu du, eta mehatxu hori berbera da langile guztientzat, izan erakunde sozialdemokrata otzanen jarraitzaileak,

izan erakunde komunista gaizto-famakoek jarraitzailak. Faxismoak arriskua dakar munduko proletarioak beste mundu-gerra batera eramateko: mundu-gerra bat, gainera, aurreko mundu-gerra inperialista baino are handiagoa eta basatiagoa izango litzatekeena, orduko basakeria, doilorkeria eta krimen guztiak gaindituko lituzkeena. Baina, hori alde batera utzita ere, faxismoaren lelo nazionalistek zatitu eta paralizatu egiten dute langile-klasea. Faxismoa, beraz, mehatxua da nazioartean borrokan ari den proletariotzarentzat, eta hain justu proletariotza horrek baino ez du behar adinako botererik Frantziako meatzaritzako eta altzairu-industriako erraldoiak ez ezik Alemaniako eta mundu osoko ikatzaren eta finantzen magnateak ere garaitzeko.

Gatazka horretan garaile ateratzeko, ezinbestekoa da argi ulertzea zertan den faxismoa. Burkide batzuek modu sinplistegian epaitzen dute, terrore zuriaren pareko fenomeno bat balitz bezala, burgesiak borrokarako duen indarraren adierazpide bat; Horthyren terrorea eta faxismoa, izan ere, antzekoak dira axaletik begiraturaz gero, baina, funtsean, fenomeno ezberdinak dira. Hungarian, proletarioak kapitalismoa eraisten saiatu ziren kontseilu-errepublika bat eratuz, eta saialdi irmo eta —esan beharra dago— ez-loriagabe hari erantzuteko sortu zen terrore zuria. Iraultza deuseztatu zutenean, Junkerrek eta militarista gutxi batzuek beren tirania ezarri zuten nekazaritza jarduera nagusi duen herrialde horretan. Baina herrialde industrial modernoetako faxismoa guztiz bestelakoa da: mugimendu masibo zabal bat, beretuak dituen burges txikiak eta lursail txikietakoa nekazariak ez ezik hezkuntza apaleko proletarioak ere.

Kapitalismoaren gainbehera ekonomikoaren eta estatu burgesarren desintegrazioaren adierazgarria da faxismoa.

Baina nola lortu zuen faxismoak horrela garatzea eta Italiako langileen mugimenduari gaina hartzeko moduko mugimendu masibo bihurtzea? Bada, gizarte burgesa desegitearen ondorioz baino ez zen posible izan hori. Burges txiki eta intelektual askok eta askok galdu egin dute gerra aurretik zeukaten bizimodua; proletario bihurtu bakarrik ez: pobretu egin dituzte. Ekonomia burgesak ezin izan zien segurtasuna bermatu proletario-geruza horiei, eta lunpen-proletario bilakatu zituen. Haiei gehi diezazkiekegu, gainera, funtzionarioak eta langile publikoak ere, porrot egiteko arriskuan den estatu batek nekez berma baitezake haien segurtasuna. Bere garaian estatu burgesarren babesle nagusi izan ziren haiek partez ezaxola daude gaur egun, eta partez gobernu burgesarrekin etsaituta. Faxisten leloak, orain, lehenago lelo sozialistetan sinesten zuten askoren babesa bereganatzen ari dira, hau da, gauzak argi-argi izan gabe ere senez kapital handiaren kontra egon eta kapitalismoa bridatuz demokraziarako bidean aurrera egingo zelako esperantza zuten horien babesa. Alderdi erreformistek garraski galarazi zieten esperantza hura; azken batean, gaur egun, gizarte burgesean bertan ere klase-borroka iraultzailearen bidez baino ez daiteke erdietsi erreformaren bat. Orain multzo horren parte dira lana galdu duten zenbait funtzionario ere, gerra-garaian neurritz gain sortu baitziren halako lanpostuak. Laburbilduz: erakunde faxistak politikoki *etxegabetuen aterpe* bihurtzen ari dira.

Haien programa politikoari erreparatuta, zentzua du horrek. Gaur egungo estatua entitate nolabait irendu batek ordezkaturako omen du, alderdien eta kla-

seen gainetik egongo omen den estatu batek. Baina faxismoaren programa aldatuz-aldatuz doa, ez soilik herrialde batetik bestera, baizik eta baita herrialde bakoitzean ere. Faxismoari ez dio bidea zelaitu gerra galdu izanaren hondamen larriak bakarrik, Alemanian gertatu den bezala; horren erakusgarri da faxismoa Italian nagusitu izana. Mussolinik 1919ko martxoan eratu zituen bere lehen organizazioak, programa argi eta garbi errepublikano bat osaturik, zeinak promesik bikainenak egin baitzizkien burgesiari eta burges txikiari, langileari eta nekazariei, den-denei. Egiaz, ordea, programa hartako printzipio bakar bati eutsi zaio indarrean lehen egun hartatik hona: *langileen antolakunde sozialisten kontrako etsaitasun gordinari*.

Italiako buruzagi Giolittik —zeina lepomozteko eskatzen baitzuen Mussolinik—, nahi izatera, erraz bridatu ahal izango zuen mugimendua, baina nahiago izan zuen hura burgesiaren zerbitzuan jarri. Faxisten alde jartzen ari ziren nekazariak bazekiten jarrera irmo bat hartu behar zutela Mussoliniren errepublikanismoari zegokionez. Nekazaritza-eremuko kapitalak lehengo esklabotza-harreman sozialak berrezarri nahi zituen, eta industria-eremuko kapitalak, berriz, estatu industrial moderno bat eratu. Bada, bien arteko antagonismo hura oraindik ere bizirik dago alderdian. Organizazio faxistei, gehienbat, krisi ekonomikoaren ondorioek eman zieten modua hazi ziren bezala hazteko, nahiz eta 1920ko maiatzean ez zituzten 4 000 boto baizik bildu beren gotorlekuan, Milanen. Zigor-espedizioak antolatu zituzten; sindikatuen eta kooperatiben egoitzak erre eta txikitu; langile-mugimenduko zenbait buruzagi erail. Boterea hartu zutenean, 300 000 gizon omen zebiltzan haien talde militarretan; gaur egun, berriz, kalkuluen arabera, mi-

lioierdi faxista daude. Gainera, klase-borroka ukatzen zuten elkarte nazional korporatiboak eratu zituzten: hots, ekonomia-antolakunde batzuk lan-ildo jakin batean elkartu zituztenak orotariko langileak, ugazabak eta erdi-mailako ugazabak. Hala, klase-kontzientzia zuten langileak deuseztaturik —bortizkeria odoltsuz, gosearen akuiluz, jendea lanetik eta etxetik kanporatuz—, organizazio faxistek milioierdi jarraitzaile lortu zituzten, nahiz eta denak ez diren, inondik ere, uste osoko faxistak. Mussolini, beste pauso bat eman, eta sindikatu «libreak» erosten saiatu zen, *gubernuan parte hartzea eskainiz*.

Eskaintza lotsagarri hark porrot egin zuen, baina ez sindikatuen merituz, baizik faxisten finantzariak, hala industria-eremukoak nola nekazaritza-eremukoak, kontra agertu zirelako.

Eta hori dena arrazoi batek egin zuen posible: Italiako Alderdi Sozialistak ez zuela ulertu langileen masak batu behar zituela, eta borrokarako behar adinako kemena bilduko zuen botere irmo bihurtu. Indarrari indarrez aurre egin beharrean, Alderdi Sozialistak sermoi moralez eta melodia eztiz hartu nahi izan zion gaina faxismoari. Horregatik, herrialde guztietako proletarioentzat zeharo funtsezkoa da Italiako eredutik ikasbidea ateratzea: *ez duda-mudarik, ez atzerapausorik. Hasiera-hasieratik kemenez ekin behar diogu faxismoaren kontrako borrokari*.

Italiako faxismoa hasia da bere sarea Alemania-ra hedatzen: badu organizazio bat Berlinen. Hitlerren taldeak nagusi dira Bavarian, eta dagoeneko estatu faxista bilakatzen ari dira hura. Zer da, ba, preso politikoei ematen dieten tratu doilor hori, terrore faxista ez bada? Bavariako faxisten programan, aspertzeraingo errepikatzen dute «juduak txikitu» esapidea. Ipar

Alemaniko antolakundeen programa, berriz, lelo sasi-iraultzailez josia dago, baina zehaztu gabe zer neurri hartuko dituzten lelo horiek betetzeko, eta dena ere balio nazionalen altzairuzko armadurak estalirik.

Itzulingururik gabe egin behar diogu aurre ideologia nazional horri. Oraindik ere gure egiten ditugu «proletarioak ez du aberrik» hitzak, zeren aberria aberri bihurtzen duen guztia esplotazio kapitalistaren ondorea baita, are eguzkiaren argia bera ere. Proletarioak, aitzitik, aberastasun materialari eta kulturalari lotuta daude: aberastasun bat belaunaldiz belaunaldi gaurdaino iritsia eta ondorengoei proletarioek baino helarazi ezin dietena. Horrexegatik sortuko du proletariotzak bere aberria bere ahaleginez, bere gobernuia eratuz eta bere burua nazio bihurtuz.

Hel diezaiegun orain ondorio praktikoei. Herrialde guztietan, alderdi guztietako proletarioz osatutako batzordeak antolatu behar dira faxismoa modu sistematikoan borrokatzeko. Baina lehen araua hauxe da: *langileen autodefentsa, indarrari indarrez aurre egiteko.*

Fabriketan autodefentsa-taldeak antolatzeari ekin behar diogu, baita kontrol-batzordeak eratzeari ere, armen eta tropen garraioa ikuskatu eta eragotz dezaten. Langileak armatzea, hain zuzen, garrantzitsua da faxismoaren kontrako borrokarako ez ezik baita kapitalismoarekin oro har dugun gatazkarako ere. Prentsa burgesaren aldarriek argi erakusten dutenez, haiek ederki asko ulertzen dute *armak langile-klasearen esku jartzeak burgesia desarmatzea, menderatzea dakarrela.*

Faxismoari eta oroz gain Italiako gobernu faxistari nazioartean buru egiteko, *nazioarteko ekintza-batzorde bat* behar dugu. Batzorde horrek materiala bildu behar du, propaganda zabaldu, eta, batez ere, ahalegina egin faxistek kartzelatutako borrokalari iraultzaile guztiak

berehala askatzeko —azken asteetan zortzi bat mila langile sartu dituzte espetxeko lau hormen artean—. Eta, horrez gainera, nazioarteko batzorde horrek burutan atera behar du batzorde nazionalek hasitako lana: batik bat, *Italia faxistari boikota egitea*.

Bestalde, izugarri garrantzitsua izango da Britainia Handiko eta Estatu Batuetako inportazioak galaraztea ere, horiek gabe Italiak ezin baitu aurrera egin. Italiako faxismoa borrokatzeko modurik eraginkorrena, dena den, herrialde bakoitzean faxismoa borrokatzea da oraindik ere. Horretarako, nonahiko langileek borrokarako indarrak batu behar dituzte. Errusian, adibidez, terrore zuriaren izugarrikeria guztietatik ernatu da proletariotza, bere etsai guztiak garaituta; eta hori lortu badute, mendiak berak ere mugitzeko kapaz den uste sendo bat dutelako lortu dute, hots, beraien boterean tinko sinesten dutelako. Alemaniako proletarioek ere irmo heldu behar diote uste horri: orduan bakarrik lortuko dute borrokatzeko eta irabazteko behar duten kemena. (*Txalo-zaparrada*.)

Zenbait ohar, laburbilgarri

Frantziako estatu burgesa aski egonkorra da. Horren motiboa da hango kapitalismoa ez dagoela oso garatuta eta, horregatik, klaseen arteko kontraktasunak ez direla oraindik muturrera iritsi. Frantziak Europan inperialismoaren bidetik gora egingo balu, hori besterik litzateke. Konferentzia hau ezin da guztiz bat etorri gure burkide italiarrak [Combiancchik] iradoki duenarekin. Marxismoa ez dugu ordezkatu behar «begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain» printzipio biblikoarekin. Terrore indibidualak ezin du lorarazi proletarioek beren buruarengan duten konfiantza: borroka masibo antolatua dugu armarik

eraginkorra. Faxismoa, indarrez ez ezik, politikoki ere suntsitu beharra dugu. Egin dezagun aurrera kapitalaren eraso orokorraren eta terrore faxistaren kontrako borrokan, hartara langileen gobernu bat eta, are, proletarioen diktadura bat eratzeko, horrela baino ezingo baita bermatu proletarioak kontrairaultza-molde orotatik askatuko direla.²⁹

(Txaloak ozen.)

Faxismoaren kontrako borrokaren gaineko ebazpena

Beste eginkizun bat ere badu langile-klaseak ezinbestean: Italian garaile atera den faxismoa eta mundu osoan antolatzen ari den faxismoa borrokatzea. Politikoki garaitu behar du faxismoa, eta bere burua faxisten indarkeriatik defendatzeko baliabide eraginkorrak sortu. Horretarako, neurri hauek hartu behar dira:

1. Joera guztietako langile-alderdiek eta -organizazioek talde berezi bat eratu behar dute herrialde bakoitzean, faxismoaren kontrako borroka gidatzeko. Hona hemen talde horren eginbeharrak:
 - a) Beren herrialdeko mugimendu faxistak zer ezaugarri dituen bildu.
 - b) Langile-klasea modu sistematikoan hezi mugimendu faxistaren klase-etsaitasunaren inguruan, egunkarietan artikulua argitaratuz, panfletoak eta posterrak eginenez, mitinak antolatuz eta abar.
 - c) Langile-klasekoen autodefentsa antolatu, autodefentsa-tropearako kideak

²⁹ *Proletarioen diktadura* terminoak zera esan nahi du: langileek beren gain hartzea aginte demokratiko bat, beren borondatea inposatuz klase esplotatzailearen erresistentzia biolentoari.

bilatuz eta tropa horiek armatuz. Langileen kontrol-batzordeak antolatu, talde faxisten eta haien armen garraioa eragozteko. Errukirik gabe deuseztatu faxistek langileak laborritzeko egiten dituzten saialdi guztiak, baita langileen klase-borondatearen adierazpidea oztopatzeko egiten dituztenak ere.

- d) Langile guztiak borrokara batu, edozein alderditakoak direla ere. Langileen alderdi eta sindikatu guztiak eta proletarioen organizazio masibo guztiak deitu faxismoaren kontra batzera.
 - e) Parlamentuan eta instituzio publiko guztietan faxismoari aurre egin.
 - f) Arreta berezia jarri langile gazteen heziketa antifaxistan, gazteak baitira faxistek errekrutatzen dituzten kide gehienak. Gazteen erakunde iraultzaileek parte hartu behar lukete autodefentsa-organizazio proletario guztien jardunean.
2. Faxismoaren indarrak nazioartean antolatuta daude. Hori dela eta, ezinbestekoa da haren kontrako borroka ere nazioartean antolatzea. Horretarako, langile-batzorde internazional bat eratu behar da, eta haren esku utziko da, elkarri toki bakoitzeko esperientzien berri emateko eginkizuna ez ezik, oroz gain nazioarteko borroka antolatzeko lana ere, borroka hori nagusiki Italiako faxismoaren kontra gidatzeko. Hauek dira borroka horren elementu nagusiak:
- a) Nazioarteko azalpen-kanpaina bat abiatzea, egunkarien, panfletoen, irudien, mitin masiboen eta abarren bidez, era-

- kusteko nola Italiako aginte faxista guztiz dagoen langile-klasearen kontra eta nola ari den modu sistematikoan suntsitzen lan-antolakunde eta -instituzio guztiak.
- b) Nazioarteko mitin masiboak eta manifestazioak antolatzea faxismoaren kontra, Italiako estatu faxistak atzerrian dituen ordezkarien kontra eta abar.
 - c) Parlamentuak baliatzea; hots, langileen nazioarteko erakundeak eta parlamentuak deitzea —bereziki parlamentuetako langile-sektoreak— Italiara batzordeak bidal ditzaten, han langile-klasea nola dagoen aztertzeko.
 - d) Borrokan aritutako proletario iraultzaile espetxeratu guztiak berehala askatzeko borrokatzea.
3. Italiako langile-klase jazarriari babes materiala eta morala eman behar zaio, dirua bilduz, iheslarietara biziak bilatuz, kanpoan lan-kontuetan lagunduz eta abar. Nazioarteko Sorospen Gorria areago garatu beharra dago horretarako. Langileen kooperatibei laguntza eskatu behar litzaieke.
- a) Nazioarteko ekintza-batzordearen lana da aztertzea zer aukera dauden gobernu faxistari boikot morala, politikoa eta materiala egiteko.
 - b) Konferentziak nazioarteko ekintza-batzordearen esku uzten du harremanetan jartzea Faxismoa Borrokatzeko Behin-behineko Batzorde Internazionalarekin eta hark eraturako taldeekin, behin betiko batzorde bat eratzeko.

Ezinbestekoa da langileak konbentzitzea Italia-ko langile-klasearen patua beraiena ere izango dela ez baldin badira engaiatzen agintean den klasearen kontrako borroka iraultzaile kementsuan, faxismoak ez ditzan klase-kontzientzia apalagoko elementuak errekrutatu. Langileen erakundeek, beraz, eman ahal guztian egin behar dute aurrera kapitalaren kontra, langileen masa zabalak esplotaziotik, zapalketatik eta estortsiotik babesteko. Modu eraginkorrean antolatutako borroka masibo baten bidez egin behar diete aurre faxismoaren lelo demagogiko sasi-iraultzailei. Are gehiago: egin ahalak egin behar dituzte beren herrialdean faxismoa antolatzeko egiten diren lehen saialdiak oztopatzeko.

LAU

ZETKINEN DEIA, NAZISMOAREN KONTRA BATASUN-FRONTE BAT ERATZEKO³⁰

Clara Zetkinek faxismoaren gainean egindako txosten eta ebazpen haiek onartuak izan eta hamabi hilabetera, 1924ko ekain-uztailetan, Kominternen Nazioarteko V. Kongresuak alde behera utzi zuen posizio hura.

Hurrengo urteetan, Iosiv Stalin buru zuen aparatu burokratikoak gero eta gehiago hartu zuen mendean Internazionala, eta, bitarte hartan, behin baino gehiagotan aldatu zen faxismoaren eta batasun-frontearen inguruko ikuspegia, baina sekula ez zen izan 1923ko berbera. Aurrerago, 1928an, Kominternek jarrera sektario bat hartu zuen, printzipio gisa harturik inolako batasun antifaxistarik ez eratzea langileen mugimenduko ildo sozialdemokratekin eta ez-komunistekin, ildo haiek «sozialfaxista» izendatuta. Bada, ezezko haren eta SPD Alderdi Sozialdemokratak ere elkarrekin ekiteari uko egin izanaren ondorioz, 1933ko urtarrilean boterea hartzeko atea zabaldu zitzaion Hitlerri Alemanian.

30 John Riddell.

Gaitzak gero eta erasanago, eta bista gero eta lausoago, baina, hala eta guztiz, Zetkin Kominterneko kide aktibo izan zen hurrengo urteetan ere. Internazionalako buruek, ordea, galarazi egin zioten jendaurrean azaltzea zer ikuspegi zuen faxismoaren eta batasun-frontearen inguruan. Hala ere, aurkitu zuen biderik auzi haietan ados ez zegoela adierazteko. 1932ko abuztuan, adibidez, 1923an faxismoari buruz egin zuen txostenaren mamia behintzat esplikatzeko lortu zuen hitzaldi batean, Alemaniako Reichstagen —parlamentuan—. Handik urtebetera hil zen, 75 urte zituela, eta ordurako bera zen, Internazional Komunistako beste lider gutxi batzuekin batera, artean Leninen Komintern haren oinarriari eusten saiatzen ari ziren bakarretako bat.

Erabateko aldaketa langileen batasunean

Kominternen 1924ko V. Kongresuan, haren presidente Grigori Zinovievek irakurri zuen hasierako txostena, eta bazter utzi zuen Zetkinen faxismoaren nolakoari eta dinamikari buruz egindako analisia, aldarrikatuz sozialdemokrazia bera estu loturik zegoela langileen kontrako mugimendu harekin. «Alderdi Sozialdemokrata faxismoaren adar bat bihurtu da», esan zuen. «Faxistak dira burgesiaren eskuineko eskua, eta sozialdemokratak ezkerrekoa».³¹ Jarrera ultraezkertiar hark ez zuen biderik ematen langile komunistek eta sozialdemokratek batera ekiteko; alegia, 1921ean eta 1922an Italiako faxismoa boterera iritsi zenean erresistentzia hebaundu zuen hanka-sartze berbera egin zuten.

Zinovievek, orobat, kritikatu egin zuen alderdi komunistak langileen ekintza-batasunaren kausa sus-

31 *Protokoll Fünfter Kongress der Kommunistischen Internationale* (Hanburgo: Carl Hoym Nachf., 1924), 66-67. or.

tatzen saiatu izana sozialdemokratei erronka joz eta, egokitzen jotzen zutenean, haien buruzagiekin negoziatuz; jarrera hura Kominternen IV. Kongresuak babestua zuen, 1922an, batasun-fronte bat eratzeko politiketarako funtsezkoa zelakoan. Baina Zinovievek, horrez gainera, birdefinitu egin zuen Kominternek langileen eta laborarien gobernu bat eratzeko egindako deia bera, eta, hala, ezinezko bihurtu zen sozialdemokratekin ezekin gobernu-koalizio osatzea.

Zetkinnek eta Karl Radekek, Kominterneko beste buru batek, horren guztiaren kontra egin zuten, baina, hala ere, Zinovieven ideiak onetsiak izan ziren 1924ko kongresuan.

Estalinismoaren goraldia

Kominternen politika horrela irauli izanaren sakoneko arrazoa hauxe izan zen: Errusiako Alderdi Komunistan ildo burokratiko pribilegiatu eta buruzaleak gora egin zuela eta, ondorioz, alderdiko buruzagitzak fakziotan banatu zela. 1923an, Ezkerreko Oposizioak, Leon Trotskik gidaturik eta Radekek babesturik, berriz ere ekin zion Leninek 1922an abiarazitako borroka antiburokratikoari.³² Izan ere, 1923ko martxoan, Leninek jardun politikoa eten behar izan zuen bihotzeko baten ondorioz —1924ko urtarrilean hil zen—, eta, hura ondoezik zegoela, Zinovievek, Lev Kamenevek eta Iosiv Stalinekin bloke bat osatu zuten Al-

32 1922aren bukaeraz geroztik, Leninek borroka zabal bati ekin zion sobietar buruzagitzaren barnean, zenbait auzi zirela-eta: besteak beste, auzi nazionala, atzerriko merkataritzaren monopolioaren defentsa eta laborarietako aliantza. Auzi haietako askoren erroan Alderdi Komunistaren burokratizazio gero eta handiagoa zegoen. Stalin zen orduan alderdiko idazkari nagusia. Borroka hura gidatzeko, Leninek bloke bat osatu zuen Trotskirekin, hura bultzatuz auzi haietan adostuak zituzten erabakien alde jardutera alderdiaren buruzagitzan. Horrez gainera, eskatu zuen len ziezaitela Stalini idazkari nagusiaren ardura.

derdi Komunista kontrolpean hartu eta Trotskiri aurre egiteko. Hala, 1923aren amaieran, Kominterneko buruzagitza zentraletik bota zituzten bai Trotski eta bai Radek.³³

Zinovievek, hasieran, zalantza izan zuen batasun-frontearen politikaren inguruan,³⁴ baina gero, 1924an, ultraezkerrera biratuz mamitu zuen bere autoritatea, bereziki Alemaniari zegozkion auzietan. Lenin hilik eta Trotski eta Radek bazterturik, Kominternen buruzagitza zabalagoan batasun-fronterako politikaren alde zeuden buruetatik Zetkin bakarrik geratu zen.

Internazional Komunistaren V. Kongresuan, eztabaidaren ardatz nagusietako bat izan zen balantzea egitea KPD Alemaniako Alderdi Komunistak herrialde hartako 1923ko langile-altxamendu masiboan parte hartu izanaren ondorioen inguruan, zeren Kominterneko buruzagitza nagusiak uste baitzuen altxamendu hark proletarioen iraultza oparo bat ekarri ahal izango zukeela berez. Egia da borroka gogorrak izan zirela zenbait hilabetez, baina, urtea amaitzerako, atzera ezarri zuten aginpide kapitalista Alemanian, Alderdi Komunista halabeharrez eta modu lotsagarrian erretiraturik. Alderdiaren Errusiako adarrean ere eztabaidatu zuten zergatik egin ote zuten porrot. Trotskik eta Ezkerreko Oposizioak Kominternen Batzorde Exekutiboari leporatu zioten beranduegi ohartu zela zeinen aproposa

33 Trotskik polemika haien inguruan zer pentsatzen zuen jakiteko, ikus: Leon Trotski, *The Third International After Lenin* (New York: Pathfinder Press, 1996), 2. parte, 4. atala, 107-115. or.

34 Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboak 1923an egindako bilkurarako idatzi zuen txostenean, Zinovievek zera aitortu zuen batasun-frontearen politikaren inguruan: «Garai hartan, egia da, banuen errezelorik». In: Mike Taber, ed., *The Communist International at a Crossroads: Plenums of the Communist International Executive Committee, 1922-1923* (Historical Materialism Book Series, Leiden: Brill, 2017).

zen abagune hura iraultza egiteko. Zinovievek, berriz, ahalegina egin zuen Alemaniako alderdiaren buruzagi nagusien gain uzteko erantzukizuna, Heinrich Brandlerren eta August Thalheimerren gain alegia, zeinak, Zetkin bezalaxe, faxismoaren kontra batasun-fronte zabal bat eratzearen alde baitzeuden irmo.

1924an, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboak, Zinovieven agindupean, Alemaniako ultraezkerrari eman zion babes, Ruth Fischer gidari zuen ildoari hain zuzen, eta orobat babestu zuen batasun-fronte bat eratzeke ekinaldietatik urruntzea. Aldi berean, Batzorde Exekutibo hark bere alderdi guztiak behartu zituen Errusiako alderdian Zinovievek, Kame-nevek eta Stalinek osatutako *troikaren* alde lerratzer. Zetkinnek ez zuen ezer esan Errusiako gatazka hartan, eta uko egin zion *troika* hura babesteari, baina Alemanian batasun-frontearen gainean egin zen eztabaidan bai, han itzulingururik gabe mintzatu zen.

Zetkin V. Kongresuan

Zetkinnek eta Radekek, bi-biek hartu zuten hitza V. Kongresuan, gogor buru egiteko Zinovievek proposatua zuenari, hots, Kominternek batasun-frontearen eta beste auzi batzuen inguruan hartutako jarrerak iraultzeari. Bi orduko hitzaldia egin zuen Zetkinnek, eta Alemaniako porrotaz aritu zen gehienbat. Sutsu kritikatu zuen Alemaniako adarraren buruzagitza, baina orobat nabarmendu zuen Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboak ere izan zuela erantzukizunik. Horrez gain, azaldu zuen 1923ko udazkenean Alemaniako langile-klasea ez zegoela prest botere-borroka erabakigarri hartan engaiatzeko.

Hitzaldiaren azken ordu erdian, berriz, batasun-fronteaz mintzatu zen: hots, faxismoaren inguruan

zeukaten desadostasunaren muin-muineko auziaz. Batasun-fronte baterako ahalegina egiteko baldintza funtsezkoa, esplikatu zuenez, Alderdi Komunista batuta egotea eta independentea izatea zen, eta masekin lotura estua izatea. Marko hura ezarrita, lider sozialdemokratekin negoziatzea egokia izango zen zenbaitetan, ez «haiei ohore egiteko», baizik, betiere, «ekiteko presio handiagoa» izan zezaten, eta «haien jarraitzaile are gehiago erakartzeko» beren aldera. Zetkinen hitzetan, ordezkariak ez zieten printzipio gisa uko egin behar buruzagien arteko bilere; aitzitik, tinko bete behar zituzten 1922ko IV. Kongresuan auzi haiez zen bezainbatean hartutako erabakiak, gerora egin ziren interpretazioekin nahastu gabe.³⁵ Baina azkenean, Zetkinen aldarria gorabehera, V. Kongresuak Zinovieven proposamenak onetsi zituen.

Kongresu hartan zorrotz kritikatu zuten Zetkin, baina, jendaurrean, Kominternek hura goستن jarraitu zuen hurrengo urteetan ere, intransigentzia iraultzailearen sinbolo gisa. Harrezkero, agur-mezu eta aldarrikapen zeremonial tankerako asko idatzi zituen, baina galarazi egin zioten gai polemikoez jendaurrean ezer esatea eta idaztea. *Die Kommunistische Fraueninternationale* ere, Zetkin buru zuen agerkaria, itxi egin zuten 1925ean.

Bere azken hamar urteak larri gaixo eman zituen Zetkinen. Luzaro egon behar izaten zuen Moskutik kanpo, tratamendua hartzeko, eta, haren biografo Tânia Puschneraten hitzetan, bolada haiek berrogeialdi gisa aprobeztatzen zituzten besteek, hura ekitaldi politiko garrantzitsuetatik aldentuta edukitzeko.³⁶

35 *Protokoll Fünfter Kongress der Kommunistischen Internationale*, 335-339. or. IV. Kongresuari dagozkionetarako, ikus: *Toward the United Front, Proceedings of the Fourth Congress of the Communist International*.

36 Tânia Puschnerat, *Clara Zetkin: Bürgerlichkeit und Marxismus* (Essen:

Baturik borrokatzearen alde

1925ean, Zinovievek hautsi egin zituen Staline-kikoak, eta oposiziora pasatu zen; hurrengo urtean, beraz, Trotskiri, Kamenevi eta Radeki batu zitzairen, Oposizio Batuan. Talde hark buru egin zion Stalinek Sobietar Batasunaren gain zeukan kontrol burokratiko gero eta estuagoari, eta gerora ere, Stalinek «ikuspegi internazionalistari uko egin zionean sozialismoa herrialde bakarrean» eratzeko aitzakian, horren kontra azaldu zen. 1926aren bukaeran, bere postutik kendu zuten Ruth Fischer, KPD Alemaniako alderdiko burua eta Zinovievekin lerratua. Horren ondoren, Zetkinek librexego jardun ahal izan zuen berriz Kominternen buruzagitzan, eta, 1927an, KPDko Batzorde Zentraleko kide bihurtu zen berriro, baina handik bi urtera erretiratu zuten atzera.

1927ko urrian, Zetkinek idazki sutu bat bidali zion KPDko Batzorde Zentralari, 1921etik 1923ra batasun-frontearen alde beste zenbaitekin batera garatu zituen politikak defendatzeko. Testu hartan, alderdiari eskatu zion proposa zezala Hanburgoko estatu federal alemanean gobernu sozialdemokrata bati baldintzapean babesa ematea, langileen interesen aldeko neurriak hartzeko programa bat adosteko, estatu hartako parlamentuan KPDk eta SPDk baturik gehiengoak zeukatenez gero. Zetkinek, gutun hartan, argi defendatu zuen KPDk 1923an Saxoniako estatu alemanean SPDren eta KPDren arteko gobernu bat eratu izana —luze iraun ez bazuen ere—, zeinari zorrotz eraso baitzioten bere garaian KPDk berak eta Internazionalak.

«Ederki dakigu masa zabalek ez daukatela oso argi zer lor lezakeen halako gobernu batek», idatzi zuen, «baina hori are motibo pisuzkoagoa da halako

Klartext, 2003), 296. or.

gobernu bat eratzeko». Hala egin ezean, Zetkinen ustez, SPDko liderrek errazago uko egingo zioten KPDren babesaz gobernatzeari, eta orduan alderdi argi eta garbi burgesekin osatuko zuten koalizioa, 1919tik 1933ra Weimarko Errepublikaren garaian oro har egin zuten bezala.³⁷

Ordu hartan, Kominterneko garai hartako presidente Nikolai Bukharinen alde jarri zen Zetkin. Hain zuzen, Bukharinek eta Stalinekin Oposizio Batuaren kontra abiarazitako jazarpen zorrotza babestu zuen Zetkinen, hainbestearino ezen ontzat jo baitzuen 1927ko azaroan Trotski Alderdi Komunistatik botatzea. Ez zuen protesta egin oposiziokoan atxilotze masiboaren kontra, ezta haiek Siberian desagerraraztearen kontra ere. Hala, adone eman zien Bukharini luze gabe kontra jarriko zitzaizkion eta Stalinen aginte absolutua sendotuko zuten indar burokratikoak.³⁸

Bira ultraezkerrera

Zetkinen batasun-frontea osatzeko deia egin eta hilabete besterik pasatu ez zela, Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistak izugarritzko bira egin zuen ultraezkerrerantz konbentzio batean. «Hirugarren Aroko» ildo gisa egin zen ezagun. Eskema haren arabera, izan ere, aurreneko aroa Lehen Mundu Gerraren ondoko altxamendu iraultzailea izan zen; bigarrena, berriz, gerora kapitalismoa egonkortu zenekoa; eta hirugarrena, ustez, iraultzak eta kapitalismoaren gainbeherak markatuko zuten. Ildo hark Stalinen kontrola sendotu zuen, baliagarria izan baitzen Bukharinen babesari azpizana egiteko ez ezik baita Trotskiren eta

37 Zetkinen gutuna irakurri nahi izanez gero, jo hona: www.marxists.org/deutsch/archiv/zetkin/1927/10/zkkpd.html.

38 Puschnerat, 305-306. or.

Ekzerreko Oposizioaren alde zeudenak garaitu eta isilarazteko ere. Ildo berri hark abiarazitako prozesuak berekin zekarren nekazaritza bortxaz kolektibizatzea, industrializazioa arrapaladan gauzatzea, eta burokrazia estalinistak Sobietar Batasunaren gainean zeukan kontrola inoiz baino gehiago estutzea.

Alemanian, bestalde, ildo hari segitzeak zera esan nahi zuen: Ruth Fischerren aroko politika zorrigaiztokoak berriz piztea eta areagotzea; besteak beste, sozialdemokratekin batasun-fronte bat osatzeko ekinaldiei uko egitea. 1928ko otsailean, Stalinek agerraldi bitxi bat egin zuen Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren bilera batean, KPDko «ildo eskuindarrari» errieta egiteko —hots, Brandler buru zutenei, Zetkinekin zeudenei—, alderdiarentzako arriskurik handiena ildo huraxe zela esanez. Hantxe berretsi zen batasun-fronte baten aldeko politikaren amaiera Kominternen, eta hala eten zen borroka-aliantza antifaxista baterako bidea. Aurrerago, Alemaniako eta Sobietar Batasuneko ordezkariak bilera bat egin zuten Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboarekin —Zetkin kanpoan utzi zuten—, eta KPDko boterea Stalinen ildo berriaren aldeko indarren esku uzteaz jardun zuten.

1928ko martxoan idatzitako eskutitz batean, Zetkinek zeinen atsekabetuta zegoen kontatu zion bere seme Kostjari: «Zalantzan nabil zer egin. (...) Nahigabetuta eta oinazetuta nauka egoera honek». Alemaniako alderdiko buru Wilhelm Piecki ere idatzi zion, esanez ez zitziola batere ondo iruditzen alderdiko politikarako hain hil edo bizikoak ziren auziak «alderdien arteko adostasunen bidez ebaztea», Sobietar Batasuneko al-

derdiak KPDko barne-arazoetan esku sartu izanari aipamen eginez.³⁹

Internazional Komunistaren Batzorde Exekuti-boan Alemaniaren gaineko ebazpena aurkeztu zenean, hurrengo hilean berretsia izateko, Zetkinek bakarrik bozkatu zuen kontra. KPDko buruzagiei bere ikuspegia esplikatu zien gutun konfidentzial batean, baina, inork ez jakin nola, eskutitz hura filtratu eta publikatu egin zen hurrengo urtean, komunista ez zen egunkari aleman batean.⁴⁰

Hurrengo hilabeteetan, fakzioen arteko barne-borroka bat piztu zen Errusiako alderdiko buruzagitzan —1925ean *Batasun Osoko Alderdi Komunista* izendatu zuten alderdia (Boltxebikeak)—. Stalinen fakzioak, hala nazioartean nola Sobietar Batasunean ultraezkerrera lerraturik, buru egin zien Bukharinen «eskuineko oposiziogileei».

1929ko uztailaren 3an, Moskuko *Pravda* egunkariak Zetkinen artikulua bat plazaratu zuen, 1923an faxismoaz idatzi zuen txosteneko gai nagusi batzuk biltzen zituena. Hurrengo hilabeterako, izan ere, Kominternen kongresu bat zegoen antolatuta, eta ordurako programa-zirriborroa prestatuta zegoen, Bukharin zela egile nagusi, eta Zetkinen programa hari kritika egiteko bidali zuen artikulua egunkarira. Besteak beste, programa-zirriborro haren «klasea-klasearen-kontra» ikuspegi eskematikoa salatu zuen, eta nabarmendu Kominternek «langile guztiak eta klase eta jende zapaldu guztiak» batu behar zituela. Gaitzetsi egin zuen proletariotzaren eta burgesiaren arteko geruzei —bereziki hezienei, «intelektualei»— behar

39 Gilbert Badia, *Clara Zetkin, féministe sans frontières* (Paris: Les Éditions Ouvrières, 1993), 276-278. or.

40 *Ibid.*, 278. Zetkinen gutuna irakurtzeko, ikus: *Beiträge zur Geschichte der Arbeiterbewegung*, 6 (1991), 787-788. or.

adinako arretarik ez jartzea programaren zirriborroan, eta, haren hitzetan, testuan zabar jorratzen zen «arrazionalizazio» kapitalistaren eragina —mekanizazio gero eta handiagoa eta ekoizle eta merkatari txikien ordezkapena—, zeina krisira eramaten ari baitzen menpeko geruza sozial guztiak. Bestalde, azpimarratu zuen programatik kanpo geratuak zirela emakumeen aldeko eskariak, eta, gainera, emakume langile eta laborariei soilik aitortzen zitzaizela klase-borrokarako indarra. Zetkinen artikulua hura Kominterneko nazioarteko ekintzaileen artean ere hedatu zen, alemanezko bertsioan.⁴¹

Kominternen VI. Kongresuan, 1928ko uztail-abuztuetan, han izan Zetkin, baina, lehen aldiz, ez zuen hitzik egin. Korridoreetan, Stalinen aldezaileek Bukharinen eta haren nazioarteko babesleen kontra jardun zuten, eta, beraz, baita Zetkinen kontra ere.

KPDko gatazkak 1928ko abenduaren 19an jo zuen goia, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren saio historiko batean, non Zetkinen zuzen-zuzenean aurre egin baitzion Stalini. Izan ere, Stalinen indarrek KPDren «ildo eskuindarra» kanporatzeko exijitu zuten, eta Zetkinen, orduan, eskatu zuen atzeratu zezatela ekintza diziplinario oro harik eta KPDk bere eztabaida eta kongresu demokratikoak egin arte. Saio hartan, Béla Kunek, Alemanian 1921ean izandako «Martxoko Ekinaldi» ultraezkertiar zorigaitzokoa prestatu zutenetako batek, «eskuindarra» izatea leporatu zion Zetkini, garai hartan berak zehaztutako ildoaren kontra egiteagatik. Zetkinen

41 Zetkinen testua, 3 500 hitzekoa, hemen argitaratu zen: *Internationale Presse-Korrespondenz*, 8. lib., 64. zk., 1.172-1.173. or. eta 65. zk., 1.189-1.190. or. Programa-zirriborro hari egindako oso bestelako kritika bat irakurri nahi izatera, ikus: Leon Trotski, *The Third International After Lenin*.

erantzun zion Leninekin bat egin zuela, hain zuzen, nazioarteko kongresua Kunen ikuskera ultraezkertiarren aurka biltzeko. Alferrik, ordea: osoko bilkurak Kunen alde ebatzi zuen. Eta, hala, nahiz eta Zetkinek, Jules Humbert-Drozek eta Angelo Tascak aurka bozkatu, KPDko «eskuina» kanporatzea erabaki zuten, eta Alemaniako alderdia uztera behartu zituzten 6 000 disidente.⁴²

Stalinen eta Bukharinen arteko haustura agerikoak bere hartan segitu zuen hurrengo hilabeteetan ere. Bukharinen fakzioa desegin egin zen; Bukharinek berak eta beste buruzagi «eskuindar oposizio-gile» batzuek amore eman zuten, eta ustez egindako hanka-sartzeak aitortu. Orduan, Bukharinen jarraitzaile aleman kanporatuek beste mugimendu bat sortu zuten, eta *Alemaniako Alderdi Komunista (Oposizioa)* izena jarri zioten: KPD(O).

Pribatuan, Zetkinek garrantz idatzi zuen Komintern eraldatua zela eta orain mekanismo huts bat bihurtua zela, «mutur batetik buruzagi errusiar-hiztunak xurgatu eta beste muturretik kanporatzen» zituena, «beste hizkuntza batzuetara itzulita».⁴³ Hala ere, artean sinetsita zegoen komunistek Internazionala erreformatzeko lan egin behar zutela, bere lagunek KPD(O)rekin egin bezala, baita Leon Trotski ordurako erbestera eta haren burkideek ere Ezkerreko Oposizio Internazionalarekin. Zetkinen iritziz, ikuspegi horri eta Sobietar Batasunari leial izateko, berak Internazionalan geratu behar zuen, auzi erabakigarrietan

42 Puschnerat, 364-366. or. Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren prozedura guztiak, hemen: Tânia Ünlüdag, «Die Tragödie einer Kämpferin für die Arbeiterbewegung», *IWK* 33 (1997), 337-347. or. 1921ean besteak beste Kun eta Zetkin tartean izan zituen polemikaren berri jakiteko, ikus: *To the Masses: Proceedings of the Third Congress of the Communist International*.

43 Puschnerat, 370. or.

isilik geratu behar bazuen ere. Stalinek, berriz, nahiz eta Zetkinen desafio etengabea gainean izan, ezbairik gabe uste zuen Zetkin kide izaten segitzea baino arrisku-suagoa izango zela hura kanporatzea.

1929ko urritik 1930eko martxora bitartean, Zetkinek memorandum oso bat idatzi zuen KPDren krisiari buruz, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboarentzat.⁴⁴ Alemaniako alderdiaren politika okerra aztertu, eta ebatzi zuen Komintern osoaren krisi orokorrako baten sintoma bat izan zela. Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren 1928ko abenduko osoko bilkuran bezala, Zetkinek konparazioa egin zuen alderdiaren ultraezkerrerako joeraren eta 1921ean Batzorde Exekutiboko lider nagusi batzuek bolada labur batez onartu zuten «erasoaren teoria» ospetsuaren artean, zeinak emaitza ezin tamalgariagoa izan baitzuen.⁴⁵ Oker hura arintzea izan zen 1921eko Kominternen III. Kongresuaren lorpen gailena; izan ere, Leninen, Trotskiren eta Zetkinen beraren ahaleginez erdietsitako garaipen haren ondorioz, Kominternek batasun-frontearen aldeko politika bat onetsi zuen hurrengo urtean.

Zetkinek, memorandum hartan, Sobietar Bata-suneko alderdiaren suntsitzaitetasuna gaitzetsi zuen; haren hitzetan, alderdi hura ez zen jada Internazionalaren «gidari»: Internazionalari «agindu» besterik ez zuen egiten. Eta, lehen eta azken aldiz, Zetkinek erronka jo zien Stalinen buruzagitzak Sobietar Batasunean ezarritako politikiei, eskatuz eskuragarri jar zezatela

44 *Ibid.*, 370-372, 377, 380. or.

45 «Erasoaren teoria» KPDko buruzagi gehienek sustatu zuten, 1921eko «Martxoko Ekinaldi» abenturazkoaren bidetik, ekintza hura abiarazteko politikak zuzitzeko eta haiekin aurrera segitzea proposatzeko. Teoria hark, hain zuzen, komunistak deitzen zituen beren leloak erradikalago bihurtzera eta gutxiengoaren bidez zenbait ekintza egitera, duda-mudan zebiltzan langileak ekitera bultzatzeko.

Sobietar Batasuneko alderdiaren eta estatuaren bilakabideari buruzko «material dokumental zabala». Izan ere, Kominternen parte ziren alderdiek, Zetkinen arabera, «betebeharra eta eskubidea» zuten «Sobietar Batasunaren arazozen berri izateko, Errusiako alderdiarenganako anaitasunez».

Desadostasun-adierazpenak

Zetkin Maxim semeari kexatu izan zitzaion zeinen zorrotz zentsuratzen zizkioten idazkiak, eta zeinen maiz ezabatzen. Zioenez, bere izena bera ere aipaezina zen jadanik. Eta, hala eta guztiz ere, haren ideiek bide egin zuten aldez edo moldez, eta jende gehiagorengana iritsi.

1929an, behin eta berriz atzeratua izan ondoren, halako batean plazara atera zen haren *Erinnerungen an Lenin* obra. Panfleto hartan, xehe-xehe kontatu zuen nola aritu zen elkarlanean Leninekin III. Kongresuan, batasun-frontearen aldeko politiketarako funtsezkoak ziren auzien inguruan.⁴⁶

Noizean behin, KPD(O)ko buruzagiak bisitan joaten zitzaizkion; besteak beste, Paul Frölich. Zetkin bat zetorren harekin zenbait gauzatan: batasun-fronte bat eratu behar zela, sindikatuak ere batu behar zirela, alderdiaren barnean demokrazia behar zela, eta Komintern eraberritu beharra zegoela. KPD(O)k, hain justu ere, Zetkinen bere jarrera kontrakoa adierazteko idatzitako lau testu pribatu atera zituen argitara, eta Zetkinen ez zuen batere protestarik egin.⁴⁷ Bestalde, Zetkin gutun-trukean aritzen zen KPDrekin etsaituak

46 Zetkinen III. Kongresuan Leninekin izan zituen elkarrizketen kronika hemen dago eskuragarri: *To the Masses*, 1 137-1 148. or. Zetkinen *Erinnerungen an Lenin* obraren ingelesezko itzulpen *Reminiscences of Lenin*, berriz, Marxists Internet Archive webgunean dago.

47 Puschnerat, 381. or.

ziren aspaldiko lagunekin, tartean Georg Ledebour. Margarete Wengels zendu zenean —gerra-garaiko borroka iraultzailean Zetkinen burkide izandako bat, gerora SPDra itzuli zena—, hil-oharra idatzi zion Zetkinetik, eta KPDrera ez zen langile-egunkari batean argitaratu zen.⁴⁸

Sobietar Batasunaren lorpenak goretsi zituen arren, Zetkin ez zen aritu, beste batzuk bezala, sobietar diktadoreari etengabe losintxaka.⁴⁹ Bukharini Moskura bidali zion mezu pribatu batean, argi esan zion guttiz arbuiazen zuela sobietar agintaria, eta, are, aholku eman zion ez uzteko Stalini bera nahieran aginduka erabiltzen. Garai hartako hizkera sexista erabiliz, honela deskribatu zuen Stalin: «emakume bat burutik egina, gizonezko prakak jantzita».⁵⁰

1929an, errusiar émigréek eta SPDren prentsak zenbait zurrumurru zabaldu zituzten autoritate komunistak Zetkinen atzetik ibili ote ziren Moskun. KPDrera egunkari nagusiak, *Die Rote Fahne* izenekoak, bitan hautsi zuen Zetkinen inguruan zegoen isiltasuna, Zetkinetik artikulu haiek ukatzeko idatzitako testu batzuk argitaratuz. Idatzi zuen bigarren deklarazioaren amaierak zur eta lur utziko zituen editoreak, seguru: «Taktiken eta oinarrien inguruan dudak ikuspegia, jakina denez, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren gehiengoaren iritzia kontratarrean doa».⁵¹

Kominternen degerenazioaz jabeturik ere, Zetkin tentuz eta abil moldatu zen toleratzeko moduko

48 *Ibid.*, 378. or.

49 Bada salbuespen bat. 1932an, Zetkinetik ontzat jo zuen berak idatzitako zorion-mezu bati editoreak egindako ohar bat, eta, hala, mezu hartan esan zuen Stalin «buruzagi aparta eta bikaina» zela. Ikus Puschnerat, 384. or.

50 Badia, 288-289. or., Puschnerat, 374. or.

51 Puschnerat, 376. or.

disidentetzat har zezaten. 1929an eta 1930ean egin zuen memorandumean, promes hau egin zuen: «Hirutan, lautan hautsiko dut alderdi-diziplina baldin eta horrek iraultzari laguntzen badio». Baina, 1931n adibidez, Stalinek Rosa Luxemburgen memoria laidoztatu zuenean, eskutitz pribatuetan baino ez zen zabaldu nola protesta egin zuen Zetkinek bere aspaldiko lagun eta kamarada izandakoa horrela iraintzeagatik.⁵²

«Sufrimendurik handiena», kontatu zion garai hartako lagun bati, «galdera honi erantzun beharrak eragiten dit: zer da egia? Zer ardura dut nik proletarioen iraultzan? Ozen hitz egin beharko nuke, ala isilik geratu?». Huraxe izan zuen Alderdi Komunistako kide izatearen ordaina: heintxo batean baino ezin izan zuela adierazi zer pentsatzen zuen.⁵³

Aukera bat baliatuz

Zetkinek ahal izan zuen guztietan segitu zuen plazaratzen 1923an faxismoaren gainean egin zuen analisiaren txatalak: besteak beste, 1932ko marxoxan KPDren buru Wilhelm Piecki alderdi horren politikaren inguruan bidali zion kritika batean, baita ekainean konferentzia antifaxista baterako argitaratu zuen sar-hitzean ere.⁵⁴ KPDk 1931n abortatzeko aukera librearen alde egin zuen kanpaina baten hasieran, berriz, SPDko emakumeekin bat egiteko deia egin zuen jendaurrean.⁵⁵

1932ko abuztuan, Zetkinek beste aukera bat baliatu zuen faxismoaren aurka batasun-fronte bat eratu

52 Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboaren 1926ko martxoko osoko bilkuran ere, Alemaniako alderdian egindako antzeko eraso batzuetatik defendatu zuen Zetkinek Luxemburg. Orduko hartan, bilkurako aktan argitaratu zen Zetkinen hitzaldia.

53 Puschnerat, 377. or.; Badia, 282, 290. or.

54 Badia, 300-301. or.

55 *Ibid.*, 264. or.

beharraz aritzeko publiko nazional baten aurrean. Dena den, orduan ere esan gabe utzi behar izan zituen zenbait gauza, hala nola SPDra hurbildu beharra zegoe-la faxismoa baturik borrokatu ahal izateko. Testuaren azken bertsoian, are, ezabatu egin zituzten zenbait pasarte, nabarmentzen zutenak norainoko ardura zuen alderdiak masak altzarazteko orduan. Hala eta guztiz ere, sinetsirik gutxienez pentsatzen zuenaren muina adierazi ahalko zuela, Zetkinnek irrikaz baliatu zuen aukera hura.

Garai latz batean egokitu zitzaion hitzaldia ematea.

1929an hasitako depresio globalak gogor joa zuen Alemania. Langileen alderdiak borroka fratrizidetan murgilduak egonik, Hitlerren nazionalsozialistak, zeinak ahulduta baitzebiltzan 1923tik, ziztuan indartu ziren, Alemaniako alderdirik handiena bilakatzeraino: 1928an, botoen % 2,6 bildu zituzten naziek; 1930ean, berriz, % 18,3, eta, 1932rako, % 37,4. 1932ko uztaileko bozketan, Zetkin berriz ere hautatu zuten Reichstage-rako —1920tik zen diputatu—. 74 urte zituen ordurako, eta Alemaniako parlamentuko kiderik zaharrena zen; horregatik, aukera eman zioten ganberaren lehen saio-ko sarrera-hitzaldi formala egiteko.

Nazien prentsa Zetkinen kontrako mehatxu gaiztoz bete zen, esanez «judu komunista bat» zela, «puta» (Goebbels) eta «traidorea». KPDrak ere mehatxumezu bat bidali zuten, Reichstagen eraso egingo ziotela Zetkini. Baina, hala eta guztiz ere, bere alderdiko Batzorde Zentralak galdetu zionean ea berak emango zion hasiera Reichstageko saioari, ohiko desfioz erantzun zien: «Joango naiz, bai, hilik edo bizirik». Gordean eraman zuten Berlinera, eta etxe seguru batean ezku-

tatu. Haren biografo Gilbert Badiak honela deskribatu zituen Reichstageko ondorengo gertakari latzak:

«Clara Zetkin ahul zegoen oso; konortea galdu ohi zuen tarteka, eta ia itsu zegoen. 1930eko abuztuan, ganbera SAre eta SSren uniformea jantzitako diputatu naziz josi aurretik, bi diputatu komunistak hizlariaren oholtzara igotzen lagundu zioten andre zaharrari. Hizketan hasi zenean, ia entzun ere ez zitzaion egiten, baina, pixkanaka, indarrez eta pasioz ozendu zitzaion ahotsa».⁵⁶

Hitzaldiaren bukaeran, berriz ere azpimarratu zuen aspalditik isilarazia zioten aldarriaren funtsa: premia larria zegoela faxismoari baturik aurre egiteko.

Zetkinen Reichstagen 1932an faxismoaren inguruan egindako hitzaldia (zenbait pasarte)

Oraintxe, langile guztien batasun-fronte bat eratzea dugu premiarik larriena, faxismoari atzera eragiteko. Bereizten eta kateatzen gaituzten desadostasun guztiek —izan politikoak, sindikalak, erlijiosoak edo ideologikoak— amore eman behar diete premia historiko larri horri.

Mehatxupearan bizi diren guztiek, sufritzen ari diren guztiek, libertatea desio duten guztiek bat egin behar dute faxismoaren kontrako batasun-fronte horrekin eta haren gobernu-ordezkariekin. Langileek tinko egin behar dute faxismoaren aurka: hori beharrezkoa eta funtsezkoa da batasun-fronte bat eratuko badugu krisi ekonomikoaren, gerra inperialistaren eta haren kausen, eta ekoizmolde kapitalistaren kontra.

Alemanian milioika langile altxatu dira, gizon zein emakume, gosearen, gabeziaren, erailketa faxis-

⁵⁶ *Ibid.*, 302-303. or.

ten eta gerra inperialistaren aurka, eta mundu osoan produkzioan dabiltzanen patu hilezkorren adierazgarria da hori. Nazioarteko patu komun hori berbera da denontzat, eta kapitalismoaren agintepean dauden eremu guztietako langile guztiek borroka egingo duten komunitate guztiz sendo bat eratuz mamitu beharra dago. Komunitate horretan, langileek orobat elkartu behar dute abangoardian dituztenekin: Sobietar Batasuneko anai-arreba askatuekin, alegia. Atzerriko hainbat herrialdetan pizten ari diren greba eta altxamenduen txinparta biziak argi erakusten diete Alemanian borrokan ari direnei ez daudela bakarrik. Han eta hemen hasiak dira hala desheredatuak nola garaituak boterea bereganatzeko borrokan.

Alemanian bertan, milioika emakume daude oraindik sexu-esklabotzaren kateetara lotuta, hots, klase-esklabotzaren aldaerarik zapaltzaileenera, eta ez dute geratu behar Alemanian osatzen ari den langile-fronte batutik kanpo.

Libre loratu eta heldu nahi duten gazteek ere lehen lerroan borrokatu behar dute, oraintxe ez baitezakete espero izan hilotzen obediencia militarra besterik, nahitaezko lanaren esplotazioa besterik.

Lan intelektualean ari direnen trebetasunak eta borondatea ongizate sozialaren eta kulturaren elikagai dira, baina adierazpiderik ez dute aurkitzen gaur egungo ordena burges honetan; horrexegatik, haiek ere batu behar dute batasun-frontera.

Borrokarako batasun-fronte horrek barnean hartu behar ditu soldata edo lan-sarien menpe dauden guztiak eta kapitalari zergak ordaindu beharra dutenak, aldi berean baitira kapitalismoaren sostengu eta kapitalismoaren biktima.

Ohorezko kide gisa dagokidan eginkizuna betez, hasiera ematen diot Reichstageko lan-saio honi, esperantza izanik ezen, ezinduta egonik ere, izango dudala Sobietar Alemaniako langile-kontseiluen lehen kongresuan ohorezko kide gisa sar-hitza irakurtzeko zoria.⁵⁷

57 Pasarte horiek jatorrizko hizkuntzan: www.marxists.org/deutsch/archiv/zetkin/1932/08/alterspraes.html. Zetkinek Reichstagen irakurri zuen hitzaldia osorik irakurtzeko, berriz, ikus: Mike Jones eta Ben Lewis, ed., *Clara Zetkin: Letters and Writings* (Londres: Merlin Press, 2015), 169-173. or.; eta: Philip S. Foner, ed., *Clara Zetkin: Selected Writings* (Chicago: Haymarket Books, 2015), 170-175. or.

PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK

Baldesi, Gino (1879-1934)

1918an Italiako CGL sindikatu-federazioko idazkariorde izendatu zuten. 1920an eta 1921ean, berriz, PSI Alderdi Sozialistako ildo erreformistako eta sindikatuetakoko buruzagi izan zen. 1922ko urrian PSI utzi zuen, indar erreformistekin batera, eta PSU Alderdi Sozialista Unitarioko kide egin zen. CGLko sindikatuak eta faxistak bat etor zitezen saiatu zen, alferrik saiatu ere. 1927an erretiratu zen politikatik.

Barbusse, Henri (1873-1935)

Nobelagile frantziarra. Lehen Mundu Gerran Frantziako armadan izandako esperientziez idatzi zuen. 1923an Alderdi Komunistan sartu zen. Frankfurteko 1923ko martxoko konferentzian, gerraren eta faxismoaren kontra osatutako Nazioarteko Ekintza Batzordeko burua izan zen.

Bauer, Otto (1881-1938)

Austriako sozialdemokraziako liderra eta teorialaria izan zen, eta mugimendu haren atal parlamentarioko idazkaria 1907tik 1914ra. 1914tik 1917ra Errusian izan zen, gerrako preso. 1918an eta 1919an, berriz, Austriako atzerri-ministro aritu zen. Urriko Iraultzaren eta Kominternen kontra zegoen. 1921etik 1923ra Bi eta Erdi Internazionalako buruzagia izan zen, eta 1923tik aurrera, Langileen eta Sozialisten Internazionalako Bulegoko eta Batzorde Exekutiboko kidea. 1934an erbestera joan behar izan zuen.

Bi eta Erdi Internazionala

Komunistek horrela esaten zioten Alderdi Sozialisten Nazioarteko Langile Batasunari, Vienako Batasunari alegia; zentroko alderdi sozialdemokraten aliantza bat zen, 1921eko otsailean eratu. Bigarren Internazionalarekin bat egin zuen 1923an, eta Langileen eta Sozialisten Internazionala eratu zen horrela.

Bigarren Internazionala

1889an eratu zuten, langileen alderdien nazioarteko elkarte gisa. Lehen Mundu Gerra piztean, desegin egin zen. 1919an, kapitalismoaren aldeko ildo eskuindarra berriz eratu zen, *Bernako Internazional* izena hartuta. 1923an, Bi eta Erdi Internazional zentristarekin bat eginik, Langileen eta Sozialisten Internazionala bihurtu zen.

Brandler, Heinrich (1881-1967)

1902an SPDn sartu zen. 1914tik aurrera Chemnitzeko langile-mugimenduko figura gailena izan zen. Espartakisten Ligako lehen kideetako bat ere izan zen, eta Alemaniako Alderdi Komunistaren funda-

tzaileetako bat. 1921etik 1923ra, Alderdi Komunistako buruzagi izan zen, eta zigortu egin zuten. Urte hartan bertan Alemaniako langileen porrotaren pagaburu egin zuten, eta 1929an, «eskuindartzat» jota, kanporatu egin zuten. Urte hartatik 1933ra, KPD(O) Alderdi Komunista (Oposizioa) delakoren buruzagi izan zen, eta alderdi haren oinordeko bihurtu zen taldean ere, Arbeiterpolitik izenekoan, modu aktiboan jardun zuen 1949tik aurrera.

Bukharin, Nikolai (1888-1938)

1906an Errusiako Boltxebikeen kide egin zen, eta 1911tik 1917ra erbestean izan zen. 1917tik 1930era Boltxebikeen Batzorde Zentraleko kide izan zen, eta 1919tik aurrera, Kominterneko buruzagi nagusietako bat. 1926tik 1929ra, berriz, Kominterneko presidente. Bortxazko kolektibizazio estalinistaren aurka egin zuen, eta Sobietar Alderdi Komunistako Eskuineko Oposizioko buru izan zen 1928an, baina, 1929an, bere buruzagi-postuetatik kendu zuten. Stalini amore eman, eta bere ikuspegiei uko egin zien. Stalinen sasiepaiketa batean epaitu eta exekutatu egin zuten, 1938an.

D'Aragona, Ludovico (1876-1961)

1892an PSIn sartu zen. Italiako metalgintzako langileen sindikatu bat sortu zuen, beste zenbaitekin batera. 1918tik 1925era, berriz, CGL sindikatu-federazioko idazkari nagusi izan zen, eta Alderdi Sozialistako diputatu 1919tik 1924ra. 1921ean Alderdi Komunista sortzearen aurka egin zuen, eta Alderdi Sozialistan geratu zen. Handik urtebetera PSU Alderdi Sozialista Unitarioan sartu zen, eta 1946tik 1951ra gobernuko ministro izan zen.

Ebert, Friedrich (1871-1925)

1889an SPDn sartu zen, eta alderdi horretako batzorde exekutiboko kide izan zen 1905etik 1919ra. 1913an Bebel ordezkatu zuen alderdiko presidentekide gisa. Lehen Mundu Gerran Alemaniaren gerra-ekinaldia babestu zuen. 1918ko iraultzatik sortutako behin-behineko gobernuko buruzagi gisa, monarkikoekin bat egin zuen 1919ko eta 1920ko langileen altxamenduak azpiratzeko. Alemaniako presidente izan zen 1919tik 1925era.

Fischer, Ruth (1895-1961)

Austriako Alderdi Komunistaren fundatzaileetako bat izan zen, 1918an. 1919an, Berlinera joan zen. Alemaniako Alderdi Komunistan ezkerreko oposizio-burua izan zen, eta 1924an alderdi zentraleko lider bihurtu zen. Ondoren, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboak esku hartu, eta Alemaniako Alderdi Komunistako buruzagitzatik kendu zuten 1925ean. Hurrengo urtean, Oposizio Batua babestu zuen, Sobietar Alderdi Komunistan Trotskik eta Zinovievek gidatu zutena, eta Alemaniako Alderdi Komunistatik bota zuten. 1928an, berriz, Leninbunde edo Leninen Ligaren fundatzaileetako bat izan zen, eta 1933tik 1936ra Trotskirekin elkarlanean aritu zen. 1933tik aurrera erbestean bizi izan zen, Frantzian eta Estatu Batuetan.

Frölich, Paul (1884-1953)

1902an SPDn sartu zen. Alderdiaren zenbait egunkaritan kazetari aritu zen, Leipzigen, Hanburgon eta Bremenen. Lehen Mundu Gerran Zimmerwaldeko ezkerria babestu zuen. Alemaniako Komunita Internazionalen buru izan zen (IKD), eta IKD Alderdi

Komunistaren parte bilakatu zen 1918an, alderdi hura eratzeko kongresuan. 1919an, Bavariako Sobietar Errepublikan parte hartu zuen, eta Batzorde Zentraleko kide izan zen 1919tik 1923ra. 1928an, Alderdi Komunistatik bota zuten, eta Alderdi Komunista (Oposizioa) alderdira batu zen; aurrerago, Langileen Alderdi Sozialistara (SAP).

Giolitti, Giovanni (1842-1928)

Italiako lehen ministro izan zen bost aldiz, 1892tik 1921era. Urte hartan, faxisten eraso biolentoak onartu zituen, eta, hasieran, faxisten erregimena babestu ere bai, 1922tik 1924ra.

Groener, Wilhelm (1867-1939).

Alemaniano jeneral izan zen Lehen Mundu Gerran. 1918-1919ko iraultzan, langile iraultzaileak zapaltzen lagundu zuen. Garraio-ministro izan zen 1920tik 1923ra, defentsakoa 1928tik 1932ra, eta barne-ministro 1931tik 1932ra.

Hitler, Adolf (1889-1945)

1921ean Langile Nazionalsozialisten Alderdi-ko (Nazien Alderdiko) buru bihurtu zen, eta kantziler 1933ko urtarrilean. Alemaniako diktadore izan zen hil arte.

Horthy, Miklós (1868-1957)

Lehen Mundu Gerran Austria-Hungariako itsas komandante aritu zen. 1919an, Hungariako sobietar errepublika deuseztatu zuten indar kontrairaultzaileen buruzagia izan zen, eta *terrore zuri* delakoa eragin zuen. Hungariako agintari eta diktadore izan zen 1920tik 1944ra.

Humbert-Droz, Jules (1891-1971)

1911n Suitzako SDPn sartu zen. Lehen Mundu Gerran internazionalista izan zen. 1921ean Alderdi Komunistaren sorreran parte hartu zuen, eta urte hartantxe Internazional Sozialistaren Batzorde Exekutiborako hautatu zuten. 1920ko hamarkadaren amaieran Bukharinen alde jarri zen, eta 1928an Kominternen zituen postuetatik kendu zuten. Stalinen buruzagitzaren kontra egon zen 1935era arte. Urte hartatik 1941era, Suitzako Alderdi Komunistako buru izan zen, baina bota egin zuten 1943an. SDPra batu zen, eta alderdi horretako idazkari aritu 1947tik 1958ra. 1959tik aurrera, Alderdi Sozialista disidenteko lider izan zen. Azken urteetan, Aljeriako askapen-borrokak eta gerraren kontrako ekintzaileak babestu zituen.

Kamenev, Lev (1883-1936)

1901ean Errusiako Alderdi Sozialdemokratara batu zen. 1903an, berriz, boltxebike egin zen. Atxilotu egin zuten, eta Siberian erbesteratua egon zen 1914tik 1917ra, eta Petrograden 1917an. Batzorde Zentralerako hautatu zuten urte berean, eta Moskuko sobieteko presidente 1918an. Errusiako Alderdi Komunistaren politburoko kide izan zen. 1923tik 1925era, Stalinekin eta Zinovievekin aliatu zen Trotskiren kontra. 1926an eta 1927an, berriz, oposizio batuko kide izan zen Trotskirekin. 1927an bota egin zuten, baina atzera egin eta berriro hartu zuten 1928an. 1932an berriz ere kanporatu zuten. Moskuko I. Epaketan, hiltzera kondenatu eta exekutatu egin zuten.

Ledebour, Georg (1850-1947)

1891n SPDra batu zen, eta 1900etik 1918ra Reichstageko kide izan zen. 1914a baino lehen, SPDren

ildo ezkertiarrean ibili zen, eta Lehen Mundu Gerran chauvinismo sozialaren kontra egin zuen. 1917tik 1919ra USPD Alderdi Sozialdemokrata Independenteko presidentekide izan zen. Hurrengo urtean, uko egin zion Kominternen afiliatzeari, eta USPDtik geratzen zen taldean segitu zuen. 1922ko bat-egitean ez zuen SPDn berriz sartu nahi izan, eta 1920ko hamarkadan Liga Sozialista gidatu zuen. 1931n, berriz, SAP Langileen Alderdi Sozialistako kide bihurtu zen, eta 1933an Suitzara ihes egin zuen. Nazien kontra eta mugimendu sozialistan segitu zuen hil arte.

Liebkecht, Karl (1871-1919)

1900ean Alemaniako SPDn sartu zen, eta 1907tik 1910era Gazte Sozialisten Internazionalerako lehen presidentea izan zen. Alemaniako Reichstagen gerrakredituen kontra bozkatu zuen lehena izan zen, 1914ko abenduan. Espartakisten korrontearen fundatzaileetako bat izan zen. Gerraren kontrako propagandagatik, espetxeratu egin zuten 1916an, baina 1918ko iraultzan askatu zuten. Alemaniako Alderdi Komunistaren buruzagi fundatzaileetako bat izan zen, 1918an. Funtzionario eskuindar batzuek erail zuten, Berlingo langileen altxamenduan, 1919ko urtarrilean.

Luxemburg, Rosa (1871-1919)

Poloniarra zen sortzez. SDKPiL Polonia eta Lituaniako Alderdi Sozialdemokrataren fundatzaileetako bat izan zen 1893an. Gero, Alemaniara joan zen bizitzera. SPDren ildo ezkertiarren buru izan zen, ildo eskuindar errebisionistaren kontra, eta 1910etik aurrera Kautski buru zuen *Zentro Marxista* zelakoaren kontra. 1916tik 1918ra espetxeratuta egon zen. Alemaniako Alderdi Komunistaren buruzagi funda-

tzaileetako bat izan zen, 1918ko abenduan. Atxilotu eta erail egin zuten Berlingo langileen altxamenduetan, 1919ko urtarrilean.

Mussolini, Benito (1883-1945)

PSI Italiako Alderdi Sozialistako ildo ezkertiarren buruzagi izan zen, eta *Avantiko editore*. Gerraren aldeko jarrera chauvinista hartu zuen, eta Italiako Alderdi Sozialistatik bota zuten 1915ean. 1919an, mugimendu faxista sortu zuen, eta Italiako diktadore izan zen 1922tik 1943ra. Erresistentziako indarrek exekutatu zuten.

PSI (Italiako Alderdi Sozialista)

1892an eratu zen. Lehen Mundu Gerran Zimmerwaldeko mugimenduan parte hartu zuen, eta 1919an Kominternen sartu zen. Uko egin zion eskuineko ildo erreformista kanporatzeari. Ildo ezkertiarra 1921eko urtarrilean bereizi zen, Livornoko kongresuan, Alderdi Komunista eratzeko. Livornoko kongresuaren aurretik, 200 000 kide ziren; 1921eko urrirako, 112 000, eta handik urtebetera, 65 000 besterik ez. 1922an, Turati eta ildo eskuindarra kanporatu zituen, eta urte hartako urrirako, 32 000 kide zituen. Kominternen aldeko gutxiengoa Alderdi Komunistara batu zen 1924an.

Radek, Karl (1885-1939)

1905. urtearen aurretik Polonia Austriarreko iraultza-mugimenduan ibili zen. Poloniako eta Alemaniako langile-mugimenduko ildo ezkertiarreko buruetako bat izan zen. Leninekin elkarlanean aritu zen, eta Zimmerwaldeko Ezkerra babestu zuen Lehen Mundu Gerran. 1917an boltxebikeei batu zitzaien, eta

1917tik 1924ra haien Batzorde Zentraleko kide izan zen. 1918an eta 1919an boltxebikeen eta sobietarren mandatari izan zen Alemanian. 1920tik 1924ra, berriz, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboko kide izan zen, eta haren presidiumekoa ere bai 1921etik 1924ra. Trotskirekin, Errusiako Alderdi Komunistako Ezkerreko Oposizioko eta Kominterneko lider izan zen 1923tik aurrera. 1927an alderditik kanporatu zuten, eta erbesteratu egin zen. 1929an, amore eman zion Stalini. 1930etik 1936ra sobietar kazetari gailenetako bat bihurtu zen. 1936an atxilotu egin zuten, eta Moskuko epaiketetako batean zigortu, 1937an. Polizia-agente batek hil zuen, kartzelan.

Stalin, Iosiv (1879-1953)

1898an RSDRP Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokratan sartu zen, baina boltxebike bihurtu zen 1903an, eta Batzorde Zentraleko kide 1912an. Urriko Iraultzaren ondoren, auzi nazionaletarako herri-komisario izan zen. 1922an Errusiako Alderdi Komunistako idazkari nagusi izendatu zuten, eta buruzagi aritu zen Alderdi Komunistaren eta Kominternen gainbeheraren garaian. 1930eko urteetan, zenbait purga antolatu zituen, eta, haien bitartez, lider boltxebike gehienak hil.

Stinnes, Hugo (1879-1924)

Industrialari alemana. Inperio ekonomiko zabal bat izan zuen Lehen Mundu Gerraren ondoren, besteak beste ikatzaren eta altzairuaren industrian, baina baita hedabideen, zerbitzu publikoen eta bankuen sektoreetan eta beste zenbaitetan ere. 1918ko iraultzan, sindikatuekin negoziatu zuen kontzesio batzuk egiteko. Gerora, zortzi orduko lanaldiaren eta naziona-

lizazioaren aurka agertu zen. Lotura izan zuen eskuin muturrarekin, eta Versaillesko Itunaren kontra egin zuen.

Tasca, Angelo (1892-1960)

1909an Italiako Alderdi Sozialistaren gazte-taldera batu zen. Alderdi Komunistaren fundatzaileetako bat izan zen, 1921ean. Alderdi Sozialistarekin batera ekitearen alde agertu zen. 1924an, Internazional Sozialistaren Batzorde Exekutiboko kide bihurtu zen. Faxistek atxilotu egin zuten 1923an eta 1926an, eta Frantziara emigratu zuen 1927an. 1929an Alderdi Komunistatik bota zuten Stalinen kontra egoteagatik, eta 1935ean berriro sartu zen Italiako Alderdi Sozialistan. 1945etik aurrera, zenbait liburu idatzi zituen, historia politikoa mintzagai.

Thalheimer, August (1884-1948)

1904an SPDn sartu zen. Lehen Mundu Gerran espartakistekin batera ibili zen. 1918an rol garrantzitsua izan zuen Stuttgarteko iraultzan, eta 1919tik 1924ra Alemaniako Alderdi Komunistako Batzorde Zentraleko kide izan zen. Langileen 1923ko urriko porrotaren erantzuletzat jo zuten, Brandlerrekin batera. 1924tik 1928ra filosofia-irakasle aritu zen, Moskun. Urte hartan bertan, Stalinen ultraezkerreko ildoaren kontra azaldu zen, eta 1929an kanporatu egin zuten, «eskuindartzat» jota. Brandlerrekin batera KPD(O) fundatu zuen. 1933an emigratu egin zuen, eta, 1945etik aurrera, indar aliatuek ez zioten utzi berriz Alemanian sartzen. Kuban hil zen.

Trotsky, Leon (1879-1940)

Ukrainan jaio zen. 1897an mugimendu sozialistara batu zen. RSDRP Errusiako Langileen Alderdi

Sozialdemokratak 1903an egindako kongresuan, menxebikeen alde azaldu zen. Internazionalista zen, eta Zimmerwaldeko mugimendua babestu zuen Lehen Mundu Gerran. 1917an boltxebikeei batu zitzairen, eta Batzorde Zentralerako hautatu zuten urte hartan bertan. Atzerri-gaietako herri-komisario izan zen 1917an eta 1918an, eta gerrakoa 1918tik 1925era. 1923tik aurrera, Errusiako Alderdi Komunistako eta Kominterneko Ezkerreko Oposizioko liderra izan zen, baina kanporatu egin zuten 1927an. 1929an erbesteratu zuten, eta 1933an beste Internazional bat eratuz deitu zuten. Stalinek 1936tik 1938ra egindako sasiepaiketen jomuga nagusia izan zen. 1938an Laugarren Internazionala eratu zuten. Stalinen agente batek erail zuen.

Turati, Filippo (1857-1932)

PSI Italiako Alderdi Sozialista sortu zuten kideetako bat izan zen, 1892an, eta alderdi horren eskuineko ildo erreformistaren buru bihurtu zen. 1896tik 1926ra diputatu aritu zen parlamentuan. Italia Lehen Mundu Gerran sartzearen aurka agertu zen hasieran, baina defentsa nazionalaren alde egin zuen gerra abiatu zenean. Urriko Iraultzaren eta Kominternen kontra zegoen. 1922an PSItik bota zuten, eta PSU alderdi erreformista eratu zuten. 1926an Frantziara emigratu zuten.

USPD (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata Independentea)

SPDko gehiengoko buruekin kritikoak ziren ezkerreko kideek sortu zuten, 1917an. 1920aren amaierarako, 800 000 kide zituen. Gehienek Alderdi Komunistarekin bat egin zuten 1920ko abenduan; gutxienez, berriz, izenari eutsi zioten, harik eta SPDrekin

bat egin zuten arte, 1922ko azaroan. Bat egin zuten garai hartan, 210 000 kide zituen taldeak.

Versaillesko Ituna

1919ko ekainaren 28an indar aliatuek eta Alemaniak sinatutako bake-ituna izan zen. Hitzarmen hartan, besteak beste xedatzen zen Alemaniako lurraldearen % 10 Frantziaren, Belgikaren, Danimarkaren eta Poloniaren esku geratuko zela, eta Alemaniak 33 bilioi dolarren kalte-ordainak pagatuko zizkiela Ententeko botereei (2016ko 461 bilioi dolar adina). Alemaniaren armadari ere mugak jarri zizkion, eta Rhinen mendealdeko lurraldea hamabost urtez Ententeko armadek okupatzeko bidea eman, 1920tik aurrera.

Wengels, Margarete (1856-1931)

1870eko hamarkadan SPDn sartu zen. Lege Antisozialisten garaian aktibo jardun zuen Berlinen, modu klandestinoan. Alemaniako emakume sozialisten mugimenduaren liderretako bat izan zen, eta elkarlan estuan aritu zen Zetkinekin. 1917tik aurrera, USPDko kide izan zen, eta zentroko alderdi hartan geratu zen KPD eratua izan ondoren ere. 1922tik aurrera SPDko kide izan zen.

Zetkin, Clara (1857-1933)

1878an Alemaniako mugimendu sozialistan hasi zen. Bismarcken Lege Antisozialisten garaian, 1882tik 1890era, erbestera joan behar izan zuen. Bigarren Internazionalaren fundatzaileetako bat izan zen, 1889an, eta haren ildo marxistako buruetako bat. Emakumeen emantzipazioaren aldeko eragile ere izan zen. SPDk emakumeentzat ateratzen zuen egunkarian, *Die Gleichheit* delakoan, editore aritu zen 1891tik

1917ra. Rosa Luxemburgen kide hurkoa izan zen SPDko ildo ezkertiarrean, eta emakume sozialisten konferentzia internazionalista bat antolatu zuen 1915ean. 1919an, Alemaniako Alderdi Komunistan sartu zen, baina 1921eko Martxoko Ekinaldiaren garaian alderdi haren ultraezkerreranzko joeraren aurka agertu zen. 1922tik aurrera, Internazional Komunistaren Batzorde Exekutiboko kidea izan zen, eta Emakume Komunisten Mugimenduaren buru 1921etik 1926ra. 1924an eta 1925ean, berriz, «boltxebizatze»-kanpainaren aurka egin zuen, eta Stalinek ultraezkerrerantz egindako biraren aurka ere bai 1928tik aurrera. Alemaniako Alderdi Komunistako eta Kominterneko figura gailena izan zen aurrerantzean ere, eta bizi guztian ez zuen bere pentsaera alde batera utzi. Moskun hil zen.

Zinoviev, Grigori (1883-1936)

1901ean Errusiako Alderdi Sozialdemokratara batu zen. Boltxebikea zen. 1907an Batzorde Zentralerako hautatu zuten. Internazionalista zen, eta Leninekin elkarlanean aritu zen Lehen Mundu Gerran. 1917tik 1926ra Petrogradoko Sobieteko presidente izan zen, eta Kominterneko buru 1919tik 1926ra. Lenin hil ondoren, 1923an eta 1924an, Stalinekin jardun zuen Trotski buruzagitza zentraletik baztertzeko, baina 1925ean, Stalinekin zuen harremana eten zuen. Trotskirekin batera, 1926an eta 1927an, degenerazio burokratikorantz eramanean zuen Oposizio Batua. Urte hartan bertan bota zuten. 1928an, ordea, atzera egin eta berriro onartu zuten, baina ostera ere kanporatu zuten 1932an eta 1934an. Moskuko sasiepaiketetako batean kondenatu zuten, eta tiroz hil.

BIBLIOGRAFIA

- Badia, Gilbert, *Clara Zetkin, féministe sans frontières*. Paris: Éditions Ouvrières, 1993.
- Komintern, *Protokoll Fünfter Kongress der Kommunistischen Internationale*. Hanburgo: Carl Hoym Nachf., 1924.
- VII Congress of the Communist International: Abridged Stenographic Report of Proceedings*. Mosku: Foreign Languages Publishing House, 1939.
- Foner, Philip S., ed., *Clara Zetkin: Selected Writings*. Chicago: Haymarket Books, 2015.
- Jones, Mike eta Ben Lewis, *Clara Zetkin: Letters and Writings*. Londres: Merlin Press, 2015.
- Marxists Internet Archive: www.marxists.org/archive/zetkin/index.htm.
- Puschnerat, Tânia, *Clara Zetkin: Bürgerlichkeit und Marxismus*. Essen: Klartext Verlag, 2003.
- Riddell, John, ed., *Founding the Communist International: Proceedings and Documents of the First Congress, March 1919*. New York: Pathfinder Press, 1987.

- The German Revolution and the Debate on Soviet Power.* New York: Pathfinder Press, 1986.
- Lenin's Struggle for a Revolutionary International 1907-1916.* New York: Pathfinder Press, 1984.
- To See the Dawn: Baku, 1920—First Congress of the Peoples of the East.* New York: Pathfinder Press, 1993.
- To the Masses: Proceedings of the Third Congress of the Communist International, 1921.* Historical Materialism Book Series, Chicago: Haymarket Books, 2016.
- Toward the United Front: Proceedings of the Fourth Congress of the Communist International, 1922.* Historical Materialism Book Series, Chicago: Haymarket Books, 2012.
- Workers of the World and Oppressed Peoples, Unite! Proceedings and Documents of the Second Congress, 1920, 2 liburuki.* New York: Pathfinder Press, 1991.
- Taber, Mike, ed., *The Communist Movement at a Crossroads: Plenums of the Communist International Executive Committee, 1922-1923.* Historical Materialism Book Series, Leiden: Brill, 2017.
- Trotsky, Leon, *The Struggle Against Fascism in Germany.* New York: Pathfinder Press, 1971.
- The Third International After Lenin.* New York: Pathfinder Press, 1996.



FAXI/MOAREN AURKA BORROKAN

NOLA AURRE EGIN ETA NOLA IRABAZI

«Faxismoa etsai guztiz arriskutsua eta beldurgarria da proletarioentzat. Gaur egun, burgesak munduan zehar hedatzen ari diren eraso orokorraren adierazpiderik indartsuena, trinkoena eta klasikoena da. Guztiz premiazkoa da hura azpiratzea. Eta ez soil-soilik proletarioek klase gisa duten existentzia historikoari dagokionez —proletarioen klaseak askatuko baitu gizadia, kapitalismoari gaina hartuz—: auzitan dago, halaber, langile arrunt oren iraupena, eta auzitan milaka eta milaka esplotaturen ogia, lan-baldintzak eta bizi-kalitatea».

Clara Zetkin

«Hitz gutxi daude *faxismo* hitza bezainbeste erabiltzen direnak eta era berean hain gutxi ulertzen.

Askorentzat, *faxista* etiketa ez da irain bat baino, norbanako eta mugimendu bereziki higuin garri eta erreakzionario batzuk gaitzesteko balio duena. Eskuineko diktadura militarrek politikoki deskribatzeko ere erabili ohi da».

Mike Taber eta John Riddell

ISBN 978-84-16946-75-4



9 788416 946754


kata
krak
liburuak